# Goienkaria

2007ko martxoaren 16a > Egubakoitza > VII. urtea > 280. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Birziklapenean gainerako komunitateetan baino aurreratuago gaude EAEn"

**Marta Garmendia**
Mankomunitateko teknikaria > 09

**G2a** Topagunearen film laburren zirkuitua > 43

**DEBAGOIENA**
**Datorren egubakoitzean iritsiko da Korrika ibarrera** > 06

**ARRASATE**
**Kulturate: kultura etxe berriaren inaugurazioa gaur** > 20

**KIROLA**
**Oñatiko XVI. duatloia zapatuan: 300 lagun lehian** > 40

**HEZKUNTZA** > 'HIZKUNTZAK IRAKATSI ETA IKASTEKO MARKOA'

# Ibarreko eskolak, irakaskuntza sistema berriaren aurrean

**HEZKUNTZA SAILA** Itunpeko ikastetxeetan eta publikoetan 07/08 ikasturtean ezarriko duten sistema berria aurkeztu du

**ALDAKETAK** Oraingo A, B eta D ereduak gainditbuta, sistema berria eleanitza eta berritzailea dela dio Jaurlaritzak

**DEBAGOIENA** Ibarreko hezkuntza ordezkariak, sistema berria ezartzeko jarriko dituzten baliabideen zain > 02

**ARETXABALETA** > LANA

## Azben 40 langile kolokan

Kezka langileen artean, arduradunek aurkeztutako berregituratzea dela eta > 05

## Agarreko garaian aurkeztu dute Kilometroetako zirkuitua

Zirkuitu laua, batez ere herrigunetik igaroko dena, baina naturgune ederrak ere zeharkatuko dituena. Halakoa izango da Bergaran urriaren 7an egingo den Kilometroak 07ren zirkuitua. Sei kilometro eta erdi izango ditu, eta sei gune. Usondo eta Arrizuriagako parkeak eta Erdi Aroan jauntxoen liskarren lekuko izan ziren Gabiria eta Ozaeta dorretxeak ere ikus ahal izango dira aurtengo Kilometroetan.

Urrira arte itxoin beharrean, bihar goizerako, zapatua, ibilaldia antolatu dute zirkuituan barrena. > 15




**AGARRE** Gipuzkoako garai bakarrean egin dute aurkezpena. Argazkian, Elortza, Bikuña, Azkarate eta Salegi, antolaketakoak. ENEKO AZKARATE

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55






**HEZKUNTZA** > 'HIZKUNTZAK IRAKATSI ETA IKASTEKO MARKOA'

# Eredu malgua, baina oraindik zehazteko gauza asko dituena

**BALORAZIOA** Datorren ikasturtetik aurrera ezarriko duten irakaskuntza sistema berria baloratu dute ibarreko eragileek

**POLITIKOAK, ALDE** Eusko Jaurlaritzaren proposamena dela-eta, PP alderdiak bakarrik erakutsi du kontrako jarrera

**EREDURIK EZ** Proposamen berriarekin, A, B eta D ereduak desagertu egingo dira, eta 'helburuak zehaztu'



IKASTETXETIK IRTETEN Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxeko ikasleak, eguazten arratsalde

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Joan den egubakoitzean aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Tontxu Camposek datorren urtean bertan eskola publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan garatzen hasiko diren irakaskuntza sistema berria: "Eleanitza, berritzailea eta ereduak gaindituko dituena" berbak erabili zituen Camposek proposamena aurkezterakoan. "Azken 25 urteotan bete ez den helburua lortzea da irakats sistema berriaren helburu nagusia, alegia, euskal ikasleei euskaraz ulertzeko eta adierazteko gaitasuna bermatzea".

Eredu hori ibarrera ekarrita, Ikastolen Elkarteko, Eskola Publikoko eta gainontzeko itunpeko ikastetxeek sistema berria ondo ikusten badute ere, bat egin dute balorazio sakonik egiteko oraindik goizegi dela esaterakoan: "Lege horren ildo nagusia baino ez dute aurkeztu, eta ikusi egin beharko da hori garatzeko zein baliabide jartzen dituzten", adierazi zion Lurdes Ugalde ibarreko Eskola Publikoko koordinatzaileak GOITBri: "Eskola Publikoak bere garaian egin zuen D ereduaren aldeko apustua, eta orain arte horretan ibili gara murgilduta; gainontzeko ereduak ia-ia desagertu egin dira; sistema berriak atzerritik datozen gazteak ere kontuan hartu beharko ditu".

Joxerra Zubizarretak, Ikastolen Elkarteko presidenteak, sistema horrekin ikaslea ardatz bilakatuko dela azpimarratu zuen, baina, Zubizarretaren ustez, "sistema bat-batean aldatzea astakeria litzateke; erdibide batzuk geratu behar dira". Ibarrean, baina, badira ikastolak izan barik itunpeko ikastetxeak direnak. Arrasateko Mesedeetako Andra Maria ikastetxea da adibide bat, eta hango zuzendari Amaia Larrañagak ere ondo ikusi du Camposek aurkeztutako proposamena, nahiz eta sistema berri horren "letra txikia" ere irakurri beharko duten. Horrekin batera, Jaurlaritzak inbertsio handiak egin beharko dituela aurreikusten du: "Helburua bi hizkuntza ondo jakitea bada eta hirugarren hizkuntzan ere moldatzea, baliabide ekonomiko eta pertsonalak beharko dira. Gainera, apurka-apurka ezarri beharko da sistema hori, eta, akaso, bidean hainbat aldaketa egin beharko dituzte".

**"Eleanitza, berritzailea eta ereduak gaindituko dituena" berbak erabili zituen Tontxu Camposek sistema berria aurkezteko**

**1975/76 ikasturtean ibarrean 8.805 ikasle zebiltzan A ereduan ikasten eta 1984/85 ikasturtean 2.715 ikasle; egun, eredu hori desagertu egin da ibarretik**

### HELBURUAK

*Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoak* izeneko proposamenak bi hizkuntza ofizialen gaitasunean lortu beharreko helburuak finkatzen ditu. Horrekin batera, hirugarren hizkuntza batendako ere helburuak finkatzen ditu. Hala, Lehen Hezkuntzako ikasleek (12 urte) euskaran zein gaztelanian B-1 maila lortu beharko dute: ideia nagusiak ulertzeko gaitasuna, bai entzutez eta baita idatziz ere; testu sinpleak eta koherenteak idazteko gaitasuna; elkarrizketa batean esku hartzeko gaitasuna.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (16 urte), berriz, neska-mutikoek B-2 maila lortu beharko dute: hitzaldi luzeak eta argudio konplexuak ulertzeko gaitasuna: albiste edo txostenak irakurtzeko gaitasuna; gai askoren gainean ondo idaztea eta jatorrizko hiztun batekin erraz mintzatzeko gauza izatea. Horrekin batera, atzerriko hizkuntzari dagokionez, DBH amaitzerakoan ikasleek B-1 maila ziurtatuta izan beharko dute.

### AUTONOMIA PROPIOAZ

Helburu horiek lortzeko ikastetxe bakoitzak hizkuntza egitasmo propioa lantzeko gaitasuna





...ean, klaseak amaitu ondoren. XABIER URTZELAI

izango du, baina Camposek ez zuen zehaztu sistema berria ezartzeko zein baliabide jarriko dituzten. Helburua kalitatezko elebitasuna lortzea bada, eta irakasleen zati batek ikasgaiak hirugarren hizkuntzan emateko gauza izan behar badu, egungo egoerari buelta eman beharko zaio. EAEn, eskola publikoan eta itunpeko ikastetxeetan 882 irakasle gehiagok izan beharko luke-te hizkuntza eskakizuna.

**IBARREKO EGOERA**

Debagoienean, itunpeko ikastetxeek eta Eskola Publikoak aspaldi egin zuten D ereduaren alde. Atzera begiratua egiten badugu, 1975/76 ikasturtean, 6-14 urte bitartean 8.805 neska-mutikok ikasten zuten A ereduan. 1984/85 ikasturtean, berriz, kopuru hori 2.715 ikaslera murriztu zen. Hala, 2001-2002 ikasturtean Arrasaten eta Bergaran 44 ikasle zeuden Haur Hezkuntzan eta DBHn A ereduan matrikulatuta. Gainontzeko herrietan ez zegoen horrelako adibiderik, eta B eredua ere gainbeheran zetorren. Gaur egun A eredua baztertuta dago –Donostian hiru ikastetxe daude, baina utzi egingo dute eredu hori–, eta 1.170 ikasle dabiltza DBHra arte B ereduan ikasten.

POLITIKARIEN BALORAZIOA

## Legebiltzarkideen artean, PPko ordezkariek bakarrik egin zuten proposamenaren kontra

Legebiltzarkide gehienek begi onez ikusi zuten Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza sistema berria; kritika gogorrenak, berriz, PP alderdiaren aldetik etorri ziren: "Fundamentalista batzuek haien frustrazioak familiei helarazi nahi dizkiete, A ereduaren porrotaren inguruan gezurrezko datuak emanez, eredu hori kolokan jartzeko".

Bestalde, EAJko Arantza Aurrekoetxeak oso begi onez ikusi zuen Hezkuntza sailburuak aurkeztutako proposamena, eta euskararendako eta gaztelaniarendako helburu komunak zehaztea garrantzitsua dela gaineratu. PSE-EEko Isabel Zelaak hauxe esan zuen: "Gure filosofia batzen du, baina ama-hizkuntzan ikasteak aukerazkoa izan beharko luke". EAko Onintza Lasaren iritziz, "proposamen ausarta da, zezenari adarretatik heldu dioten erakusle, eta gehiengoaren nahiari eusten dio". Aralarko legebiltzarkide Aintzane Ezenarro "oro har" ados agertu zen marko berriarekin: "Ondo ikusten dugu eredu bakarra eta malgua ezartzea, betiere marko bakarra konpartitzen bada". EHAK taldeko Itziar Basterrikaren ustez, "B-2 baino erreferente altuagoak behar dira", eta C-1 kontuan hartu beharko litzatekeela aldarrikatu. Horrekin batera, erronkari aurre egiteko aurrekontuak beharko direla gaineratu zuen, eta Eusko Jaurlaritzari ausarta izateko eskatu.



**Lurdes Ugalde**
Goieskolako koordinatzailea

### "Proposamena garatzeko autonomia izatea ondo dago"

Denboratxoa daramagu entzuten hizkuntza politika aldatu egin behar dela, ez dagoelako egungo beharrei eguneratuta. Egia esateko, baina, oraindik oso goiz da proposamen berriaren gainean berba egiteko, lege horren ildo nagusia baino ez dutelako aurkeztu, eta ikusi egin beharko delako zelan finkatzen duten hori eta zein baliabide jartzen dituzten. Hasiera baten, ondo iruditzen zaiguna da ikastetxeok hizkuntza plan hori egiteko autonomia izatea, beste arlo batzuetan gertatzen den moduan. Bestalde, baina, minimoak ondo ezarri beharko dira, ikasleak eskatzen zaizkion ezagupenak izan ditzan, derrigorrezko hizkuntzan, gutxienez.



**Joserra Zubizarreta**
Gipuzkoako Ikastolen Elkartea

### "Proposamen zentzuzkoa da, ikaslea izango da ardatza"

Gipuzkoako Ikastolen Elkartean, hasiera baten, proposamena positibotzat jotzen dugu, urrats garrantzitsuak egin direla uste dugulako. Behingoz, A, B eta D ereduak alde batera utzi, eta helburu jakin batzuk ezartzea gauza garrantzitsua da. Egia da proposamen horren lehen agerraldia baino ez dutela egin, hasi baino ez dela egin. Hemendik aurrera ikastetxeak ez dituzte eredu bakoitzean dituzten ikasle kopuruaren arabera baloratuko. Hori alde batera utzi, eta aurrerantzean ikaslea izango da ardatza, eta ikasle hori ebaluatzerakoan jakingo dugu non gauden eta nora jo behar dugun. Alde horretatik, proposamen zentzuzkoa da. Hori, baina, aurrerago garatu beharreko urratsa izango da.



**Amaia Larrañaga**
Mesedeetako Andra Maria

### "Malgutasuna behar da; ikastetxe guztiak ez daude berdin"

Lurdesek esan duenarekin bat nator ni. Batetik, modeloak desagertzea albiste ona da, eta, bestetik, ikastetxe bakoitzak sistema berria garatzeko autonomia izatea ere positiboa da. Azken batean, zentro guztiek gutxieneko batzuk bete beharko dituzte, baina ikastetxe guztiak ez daude egoera berean, eta horregatik da ona malgutasun hori. Hala, gutxieneko horiek ondo zehaztu beharko dira. Proposamen horren gainean, baina, egunkarietan irakurri duguna dakigu, eta momentuz azalean geratu da dena; hala, proposamen horrek duen *letra txikia* ere irakurri beharko da. Orokorrean esanda, baina, sistema berriaren aurrean baikor nago.



**EKINTZAILEAK** > EKINTZAILEEN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEN DA MARTXOAN

# Negozio-ideiak sortzearen gaineko mintegia antolatu du Mankomunitateak

Martxoaren 26tik 28ra izango da eta hilaren 23ra arte dago izena emateko aukera

**A.I.** > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak antolatuta, negozio-ideiak sortzearen gaineko mintegia izango dugu martxoaren 26tik 28ra. Mintegi horren helburua da enpresa-ideia berriak sortzeko tresnak ematea, ideia horiek arrakasta izan dezaten, proiektuak kalitatezkoak izan daitezen eta sormena lantzeko. Mintegia zuzenduta dago enpresa-ideiaren bat dutenei edo, ideiarik ez izanda ere, auto-enpleguaren bidea jorratu nahi dutenei. Ikastaroa izango da 15 ordukoa; hiru egunean, egunean bost ordu. Esan bezala, martxoaren 26tik 28ra, astelehenetik eguaztenera, izango da, 09:00etatik 14:00etara. Eskolak Arrasaten izango dira, Mankomunitatearen Garapen Agentziaren egoitzan.

Izena emateko aukera dago martxoaren 23ra arte. Horretarako hiru bide hauek dauzkagu: Garapen Agentziara bertara jotzea (Nafarroa etorbidea 23, Arrasaten); 943 79 30 90 telefono zenbakira deitzea edo posta elektroniko bitartez (*garapen-agentzia@debagoiena.com*).

Mintegia orain antolatzeko arrazoia da martxoa ekintzaileen hilabetea dela. Garapen Agentziek eta erakundeek martxoko egun bat zehazten dute Ekintzaileen Egun. Debagoieneko Mankomunitateak aurten erabaki du mintegi horrekin ospatzea ekintzailetasuna.

**2006AN, 33 ENPRESA BERRI**

Debagoieneko Mankomunitateak emandako datuen arabera, 2006. urtean 33 enpresa sortu zituzten gure ibarrean, eta 43 lanpostu.

Ekintzaileen adinari dagokionez, 25 urtetik beherakoak izan ziren %13,3; gehienak, %53,3, 25 eta 35 urte bitartekoak; eta 35 eta 45 urte bitartekoak, %30. Ekintzaile bakarra (%3,3) egon zen 55 urtetik gorakoa.

Sortutako enpresa edo negozio gehienak pertsonei zerbitzu eskaintzekoak dira (%32,25); %25,8 dira enpresei zerbitzua eskaintzen dietenak; merkataritzaren alorrean kokatu ditzakegu enpresen %19,35 eta ostalaritzan %9,68.

**ZILARREZKO Q SARIA**

# Aretxabaleta institutua eta Ulma Forja saritu dituzte

Astelehenean izango da lehen ekitaldia Ulma Forja lantegian, Oñatiko Zubillagan

**A.I.** > ARRASATE

Oñatiko Ulma Forja enpresako langileek eta Aretxabaleta institutuak Zilarrezko Q saria jasoko dute martxoan.

Iaz lortu zuen Oñatiko Ulma Forja enpresak kalitatearen Zilarrezko Q Saria. Orain, Ulma Forjako langileei eman diete kalitatearen eta bikaintasunaren sari hori. Astelehenean, martxoak 19, egingo dute saria emateko ekitaldia Ulma Forja lantegian. Hantxe egongo dira, besteak beste, Jose Inazio Zudaire Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Energia sailburuordea, Jesus Catania MCCko presidentea eta Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea.

Aretxabaletako institutuak ere lortu du kalitatea saritzen duen Zilarrezko Q eta martxoaren 28an egingo dute saria emateko ekitaldia, Aretxabaletako Otalora jauregian.

BIZIGUNE ETXEBIZITZA HUTSEN PROGRAMA

bizitzaz bete



hutsik duzun etxea

**Euskadin, 75.000 pertsonak baino gehiagok* etxebizitza duina izateko duten eskubidea aldarrikatzen dute. Bestalde, 26.000 pisu daude hutsik.**

Pisu horietakoren bat zurea bada eta **Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren** bidez alokatzeko eskaintzen baduzu, etxebizitzari erabilera ona emateaz gain, **onura hauek eskuratu** ere egingo dituzu:

**_ Zure pisua alokatzeko kudeaketa guztiak geuk egingo ditugu.**
**_ Bost urtez alokatuta izango duzula eta errenta zintzo-zintzo kobratuko duzula bermatzen dizugu.**
**_ Geu arduratuko gara pisua mantendu eta zaintzeaz.**
**_ Eta obraren bat egin behar baduzu, finantzatu egingo dizugu .**

DENA GURE KONTU ZUK ZERTAZ KEZKATU IZAN EZ DEZAZUN

900 251 251 INFORMA ZAITEZ

aurrera doan herria — un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK — DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
visesa

* Etxebiden izena emandako pertsonak

**MANIFESTAZIOA** > AHT-REN AURKAKO DEBAGOIENEKO TALDEEK EGIN DUTE DEIALDIA

# AHTren aurkako manifestazioa deitu dute biharko Arrasaten

'AHTren inposaketa salatzeko eta kaltetuei elkartasuna adierazteko' izango da biharko manifestazioa

Bihar, zapatua, 17:30ean, abiatuko da manifestazioa Arrasateko Herriko Plazatik



**DEBAGOIENEKOAK** AHTren aurkako Debagoieneko taldeetako ordezkariak, martitzeneko agerraldian. GOIENKARIA

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE
Abiadura Handiko Trenaren aurkako Debagoieneko herrietako taldeek manifestazioa antolatu dute biharko, zapaturako, Arrasaten. 17:30ean abiatuko da manifestazioa Arrasateko Herriko Plazatik, *Herriari entzun, AHT gelditu* leloarekin.

Manifestazioaren helburua da, batetik, AHTren inposaketa salatzea eta, bestetik, lurjabe kaltetuei elkartasuna adieraztea eta laguntasuna eskaintzea, antolatzaileen hitzetan.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Sustapen Ministerioko agintariei eskatzen diete AHTren lanak eta proiektua bera bertan behera laga eta eztabaida zabal eta parte-hartzaile bat bultzatzeko.

Horixe adierazi zuten AHTren aurkako taldeetako kideek martitzenean egin zuten prentsaurrekoan.

Ingurumenari egingo dizkion kalteak aipatu zituzten, baita proiektuaren atzean interes ekonomikoak daudela ere. Gaineratu zuten Abiadura Handiko Trenak ez duela inola ere garraioaren arazoa konponduko, okertu baizik.

**UDALEI KRITIKA**
Eusko Jaurlaritza eta Sustapen Ministerioak sekretupean jokatu dutela salatu zuten eta gaineratu zuten Debagoieneko udalek ere antzera jokatu dutela: "Udal gehienek ere interes horien morrontzapean jokatu dute, herritarrak informatu eta babestu beharrean. Hau bereziki salatu nahi dugu, gurean inoiz egin den proiektu garestiena eta txikitzaileenaren aurrean, erabat oztopatu eta galarazi dutelako eztabaida".

Azkenik, hauxe adierazi zuten: "Oraindik garaiz gaude arazoari sustraitik heldu eta eztabaida hori behingoz martxan jartzeko". Bide batez, aramaioarrak animatu zituzten egingo duten herri galdeketan parte hartzeko eta egitasmo honen aurkako jarrera agerian lagatzeko".

**KORRIKA 07** > LEINTZ GATZAGATIK IRITSIKO DA KORRIKA

# Gaur zortzi iritsiko da lekukoa gurera

Martxoaren 20ra arte dago kilometroak erosteko aukera, baina gehienak salduta daude



**KORRIKA 05** 2005eko Korrika Bergaratik pasatu zeneko irudi bat. GOIENKARIA

**A. I.** > BERGARA
Martxoaren 22an Karrantzatik (Bizkaia) abiatuko da Korrika 07; hurrengo egunean iritsiko da gurera. Martxoaren 23an, egubakoitza, Leintz Gatzagan hartuko dugu Korrikaren lekukoa debagoiendarrok, 23:35ean. Gauerdian Eskoriatzara (Marulanda) iritsiko dira korrikalariak; 00:42an, Aretxabaletara (Ederlan parera); 00:59an Arrasatera (gasolindegira); 01:51n, oñatiarrei emango diete lekukoa Elorregiko biribilgunean eta 02:30ean iritsiko da lekukoa Oñati erdialdera. Martxoaren 25ean, domeka, berriz sartuko da Korrika gurean, Antzuolan, hain zuzen ere. 06:31n Deskargara iritsiko da; 07:10ean sartuko da Bergarara; 08:00etan elgetarren eskura pasatuko da lekukoa, Uberan eta 08:30ean irtengo da Debagoienetik, Elorrio aldera.

Martxoaren 20ra arte, martitzena, dago kilometroak erosteko aukera.

**IRAKASKUNTZA**

## Ikasle Abertzaleek greba deitu dute

Debagoieneko taldeak MUren jarrera eta politika kritikatu ditu

**A.I.** > ARRASATE
Ikasle Abertzaleek martxoaren 29rako grebarako deialdia egin diete ikasleei. Horren arrazoia da ikasleek gaur egun "eskubide urraketa sufritzen dutela". Horren adibide jartzen dituzte adierazpen askatasunik eta grebarako eskubiderik ez izatea, eta hezkuntza sistemak ikasle mugimenduarekin bukatu nahi duela salatzen dute.

**MU-RI KRITIKAK**
Debagoieneko Ikasle Abertzaleek, deialdiarekin batera, MUren politika salatu dute. "Kapitalismoaren eta izaera espainolaren bidetik hezten gaituzte", diote. Eta hauxe gaineratzen dute: "2010ean inposatu behar diguten Bologna prozesuari aurreratu egin zaio MU".

**NEKAZARITZA**

## Debarroa ez da Batzar Nagusietara aurkeztuko

EAJ eta EA alderdiek ezezkoa eman zioten Aralarren proposamenari

**A.I.** > BERGARA
Batzar Nagusietako Landa Garapeneko batzordean, Aralarren ekimenez, hauxe eztabaidatu zuten: Debarroa proiektuaren sustatzaileek batzorde horretan proiektuaren berri ematea. EAJ eta EA alderdiek, baina, proposamen horren aurka bozkatu zuten eta bertan behera geratu zen.

Urtarrilean Batzar Nagusietan onartu zuten Diputazioari eskatzea Debarroa proiektua Gipuzkoa osora zabaltzen lagun zezala.

**HELBURUA**
Debarroa proiektuaren helburua da nekazari balioak gizarteratzea. Debagoienaren eta Debabarrenaren artean sustatutako proiektua, hain zuzen ere.

**ENPRESA** > BERREGITURAKETA AZBE-N

# Berrogei langileri eragingo dien berregituraketa egin nahi du Azbek

Azbe lantegiko 76 langileetatik 40ri eragingo dien berregituraketa proposatu dute arduradunek; enpresa batzordea aurka dago

**LEIRE KORTABARRIA** > ARETXABALETA

Aretxabaletako Azbe sarraila lantegian berregituratzea aurkeztu dute enpresako arduradunek, eta 40 langileri eragingo die. Horrek harridura sortu du langileengan –azken ekitaldietan oso emaitza onak izan ditu enpresak–, eta baita kezka ere.

Assa-Abloy multinazional suediarrak erosi zuen Azbe 1999an. Orduz geroztik, Aretxabaletako lantegiak multinazionaleko gainerako lantegiek baino emaitza hobeak lortu ditu: hamar langileko milioi eta erdi euroko salmentak izan zituen eta gainerako lantegiek, hamar langileko milioi bat eurokoak.




**AZBE** Aretxabaletako Basabe poligonoan dago Azbe sarraila lantegia, Assa-Abloy multinazionaleko kidea. GOIENKARIA

**EZ DITUZTE BOTAKO**

Azbe Aretxabaletako lantegiko arduradun Iñaki Garairekin harremanetan jarrita, esan digu ez dela egia 40 langile bota egingo dituztenik, baizik eta 40ri eragingo diela berregituraketak. 2006an inoiz baino irabazi handiagoak lortu zituztela esan digu, baina berregituraketa enpresa estrategia kontua dela: seriean lan egin beharrean, lana espezializatu egin gura dute. Horrez gain, multinazionalak enpresa batzordearekin eta sindikatuekin hitz egingo duela esan du.

**KALITATEZKO POSTUAK KENTZEA**

Enpresa batzordeak, berriz, gogor kritikatu du neurri hori. Haren esanetan, helburua da kalitatezko lanpostuak aldi baterako lanpostuekin ordezkatzea, eta lan kostu txikiko herrietan egindako produktuaren irudi bilakatzea.

"Multinazionalak esan arren enpresa ez duela desegin nahi, oso denbora laburrean bi berregitiuraketa izan dira, eta horien helburua da Assa-Abloyk enpresa erosi zuenean ginen 100 langileetatik 64 kaleratzea", salatzen du enpresa batzordeak. Lehenengo berregituraketaren eraginez, 24 langilek borondatezko bajak eta aurre-erretiroak hartu dituzte.

Azken neurri horren atzetik etxebizitzarekin lotutako arrazoiak egon litezkeela ere esan du enpresa batzordeak, "lantegia leku estrategikoan dagoelako". Horregatik, herriko ordezkari politikoei eskatu diete "bidegabekeria hau saihesteko".

**ENPRESA** > RECIEDER, MOTORRAK BIRZIKLATZEKO PLANTA

# Ederlanen Recieder plantak, 11,7 milioiko salmentak

Motorrak birziklatzeko Recieder lantegia sortu du Fagor Ederlanek Aragoiko ILSSArekin batera

**L.K.** > ARRASATE

MCCko Fagor Ederlan kooperatibak sortutako Recieder enpresak 11,71 milioi euroko salmentak izan ditu, eta aurten 14 milioi saltzea espero du. Hala, ondo hasi du ibilbidea %50ean Industrias Lopez Soriano (ILSSA) enpresarekin partaidetzan sortutako enpresa horrek.

Enpresa 2006an eratu zuten, eta emaitzak jardunaldi hari dagozkio. Erabiltzen ez diren motorrak birziklatzen ditu eta haietako materialak berreskuratzen ditu Reciederrek.

Lantegia Zaragoza hiriko Birziklapenerako Parke Teknologikoan dago. Eremuak 20.000 m2 hartzen du. Lanean hasteko, 9,6 milioi euro inbertitu zuten Ederlanek eta ILSSAk. Parke teknologiko hartan lanean hasi den lehenengo enpresa da Recieder. Guztira, 862 hektarea ditu parkeak, eta birziklatzeko 150 enpresa inguru kokatzea espero da.

**GUTXIAGO KUTSATZEKO**

MCCk dioenez, Recieder proiektu berritzailea da, sektoreko teknologiarik aurreratuena erabiltzen du, eta ingurumenari buruzko arau komunitario zorrotzenak betetzen ditu. Europako Batasunaren laguntzarekin finantzatzen da.

Arautegi zorrotz hori betetzeko, Reciederrek dagoeneko erabiltzeko moduan ez dauden ibilgailuetako Materialak Bereizteko Prozesu Automatikoa delakoa sortu du. Sistema horrek araztegitik datorren ur isurketa hutsera murriztea lortu du, eta maila handia lortu du materialak bereizten, batez ere aluminioak eta ferrikoak.

Automobilgintzaren merkatuan, ibilgailuetan gero eta aluminio gehiago erabiltzeko joera dago, gutxiago pisatzen duelako. Horrela, CO2 isuriak murriztu egin daitezke: pisua %20 murrizten bada, erregai kontsumoa %12-16 artean murrizten da, eta bi kilo altzairu erabili beharrean kilo bat aluminio erabiltzen bada, 20 kilo CO2 gutxiago isurtzen da.

Horri gehitu behar zaio automobilgintzaren etorkizunerako baldintza dela erabilitako produktuak birziklatzeko behar ekonomikoa, eta gaur egungo produkzio prozesuetan horiek guztiak edo zati bat berriro erabiltzeko joera dagoela. Horrek guztiak Fagor Ederlanen negozioa indartu egiten du.

**ILSSA, EDERLANEN LANKIDEA**

Aragoiko ILSSA enpresa da Fagor Ederlanen lankidea proiektu honetan. Enpresa hori liderra da materialak birziklatzen eta berreskuratzen –500 tona material kudeatzen du urtero. Bere ezaugarrietako bat da zabalkunde politika sendoa duela, eta birziklapena eta balorizazioa da enpresa moduan duen estrategiaren oinarrietako bat.

Fagor Ederlan taldearen burdin materialen hornitzaile historikoa da ILSSA. Haren fakturazioa 300 milioi euro da, eta 500 langilek dihardute bertan.

nuclertec, s.a.
Tel.: 943 20 89 96
Zentro laguntzaile:
naturgas energia

GALDARAK BERRITZEKO KANPAINA

Zure galdarak 10 urte baino gehiago baditu eta arazoak ematen badizkizu, prezio ezin hobean galdara itxi batengatik aldatuko dizugu.

270 euroko diru-itzulketa duen Renove plana tramitatuko dizugu, zuk nahi duzun markarekin eta ezertaz kezkatu barik.

Dei ezazu eta gure teknikariek bisita egingo dizute, eta aholkatua eman.

Urkizu 11, solairuartea
EIBAR
Tel.: 943 20 89 96
nuclerteceibar@euskalnet.net

**POLITIKA** > DEMOKRAZIAREN, HIRITARTASUNAREN ETA LURRALDETASUNAREN GAINEKO BILTZARRA OÑATIN

# Gizarte kohesioaren garrantzia azpimarratu du Zenarrutzabeitiak

Nazio askotako gizarteen gaineko azterketa egiten da gehienbat biltzarrean

Zapatuko azken lan saioan Ipar Euskal Herriaren egoera aztertuko dute adituek



**HARRERA** Idoia Zenarrutzabeitia, Lourdes Idoiaga eta Joxerramon Bengoetxea izan ziren, besteak beste. ARRITXU BARRIUSO

**A.B. / M.B.** > OÑATI

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea demokraziaren, hiritartasunaren eta lurraldetasunaren gaineko nazioarteko biltzarra hartzen ari da egunotan. Eguaztenean hasi zen eta zapatura arte iraungo du.

Idoia Zenarrutzabeitia lehendakariordea inaugurazio ekitaldian izan zen eguaztenean, Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendari Joxerramon Bengoetxearekin eta Oñatiko alkate Lourdes Idoiagarekin batera.

**"ERRESPETUAN OINARRITU"**

Zenarrutzabeitiak "gizarte kohesioaren garrantzia" azpimarratu eta demokraziak "errespetua lantzeko espazioa izan beharko lukeela" adierazi zuen. Gainera, bizikidetzak "errespetuan oinarritu" behar duela jakinarazi zuen. Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko harremana beharrezkotzat jo zuen.

Egunotan Oñatin egiten ari diren biltzarraren garrantziaz ere hitz egin zuen lehendakariordeak. Mota horretako jardunaldietako hausnarketak eta ikerketak baliotsuak izan daitezkeela adierazi zuen. Joxerramon Bengoetxeak ere ildo beretik jo zuen: "Euskadiko normalizazio politikoaren eztabaidarako izan daitezkeen oinarriak aztertzeko aukera" gisa aurkeztu zuen biltzarra.

Lehen hiru egunetan *Demokrazia, Hiritartasuna eta Lurraldetasuna nazio anitzeko gizarteetan* gaia landu dute. Eguazteneko lan saioak *Demokrazia nazio aniztasunak: Araugintzaren inguruko eztabaida* zuen izena. Atzokoa, berriz, *Hiritartasuna eta egitura politiko konplexua duten estatuen ereduak: federalismoa, Devolution delakoa, sezesioa* izan zen. Quebeceko eta Euskadiko ikuspuntuak aztertu zituzten, besteak beste.

Eta gaur, *Lurraldetasuna globalizazioaren garaian* auziaren gainean hitz egingo dute Oñatin. Lurraldea estaturik gabeko nazioen, estatuen eta nazioarteko komunitateen arteko harremanak eratzeko elementu gisa landu behar dela azpimarratuko dute han.

**IPAR EUSKAL HERRIA**

Biltzarreko azken lan saioa Ipar Euskal Herriaren egoeraren gainean izango da; hain zuzen, mugaz gaineko lankidetzarako zuzenbide, politika eta kultura tresnak aztertuko dituzte zapatuan.

Politika zientzietako, filosofiako, zuzenbideko eta soziologia juridikoko adituak batu dira egunotan Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundean, nazio askotako gizarteen erronkak aztertzeko. EHUko irakasle Francisco Letamendia, Igor Ahedo eta Maite Zelaia, bestalde, koordinazio lanaz arduratuko dira.

**HONDAKINAK** > AZPIEGITURAK EGIN ETA KUDEATUKO DITU

# Mankomunitateak Hondakin Partzuergoa eratzea hitzartu du Diputazioarekin

Erakundea maiatzean sortzea espero dute; Diputazioak eta mankomunitateek hitzarmena sinatu zuten eguaztenean

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa sortzeko hitzarmena izenpetu zuten eguaztenean Gipuzkoako Diputazioak eta Debagoieneko, Debabarreneko, Sasietako, Urola Erdiko, Urola Kostako, San Markosko eta Tolosaldeko mankomunitateek. Arritxu Olidenek hartu zuen parte sinatze ekitaldian.

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Plan Nagusiaren helburu nagusiak bultzatuko ditu Partzuergoak, hala nola erraustea, birziklatzea, konpostatzea eta ahalik eta zabor gutxien sortu eta hondakindegietara botatzea.

**BAKOITZAREN ARDURAK**

Udalerrietako zaborra jasotzeak udalen eta mankomunitateen ardura izaten jarraituko du. Hondakinen Partzuergoak konpostatze eta errauste plantak eraiki eta kudeatuko ditu eta zaborraren garraioa bere gain hartuko du.

Partzuergoa maiatzean osatuko dutela azaldu zuen Garapen Iraunkorreko diputatu Luis Mari Oiarbidek. 2009ko uztailerako, Gipuzkoako zabortegi guztien itxiera aurreikusita dago. Zaborrak nora eramango diren zehaztu eta errauste planta egiten hasiko dira.2012an hondakinak errausten hastea da helburua.



## gure artekoak

**TOYOTA AURIS** > Martxoko lehen egunean merkaturatu dute Toyotaren azkeneko modeloa: Auris, urrearen izena eman diote. Toyotako arduradunek esan zutenez, "barrutik kanpora" diseinatu dute automobila.

**Andoni Erdabide** > Euskoautoko Toyota-ko arduraduna

# "Autoaren barruko aldeari eman diote lehentasuna"

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Automobil ertainen segmentuan, bederatzi airbag automobil guztietan dakartzan modelo bakarra da Toyota Auris. Gidariaren belaunen parean dauka bederatzigarren airbaga. Horixe da eskaintzen duen segurtasunaren adibideetako bat. EuroNCap-ek ematen dituen bost izarrak dauzka; umeen segurtasunari dagokionez, lau izar dauzka eta oinezkoen segurtasunari dagokionez, hiru izar. Horrek esan nahi du oinezko bat harrapatzekotan, diseinatuta dagoela ahalik eta kalterik txikiena egiteko.

Segurtasunari dagokionez, automobil guztiek dauzkate honakoak ere: ABS balaztak, trakzio eta oreka kontrol sistemak.

**DISEINU BERRITZAILEA**

Andoni Erdabidek azaldu digu Aurisen diseinua Toyotakoek egin dutela, barrutik kanpora: "Barruari eman diote lehentasuna eta horixe diseinatu dute lehenengo", azaldu digu Erdabidek. Horrek ekarri du barruko espazioa handia izatea eta erosoa.

**SMART-ENTRY ETA EASY FLAT**

Zer gordetzen da ingelesezko izen horien atzean? Smart-Entry &Star sistema da ateak zabaldu eta ixteko eta automobila martxan jartzeko. Urrutiko agintea poltsikoan eramatea nahiko da automobilera gerturatu eta atea zabaltzeko. Eta automobila martxan jartzeko nahikoa da botoi bat sakatzearekin. Hori bai, urrutiko aginteak automobil barruan egon behar du.

Easy-Flat sistemak, bestalde, eserlekuak erraz ezkutatzeko aukera ematen digu. Mugimendu sinple bat nahikoa da.

Aipatzekoa da, azkenik, gasoliozko motorrak aluminiozkoak direla, oso arinak, eta ez dutela banaketa-uhalik. Hiru urteko bermea eskaintzen du Toyotak.



Toyota Auris Sol modeloa erakusten Andoni Erdabide. A.I.

### Toyota Auris Sol D4D 126 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 20.000 eurotik hasita |
| Luzera | 4,22 metro |
| Zabalera | 1,76 metro |
| Maletategia | 777 litro[1] |
| Kontsumoa | 5,4 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 195 km/h[3] |
| Otik 100era | 10,3 seg. |
| CO2 isurketak | 144 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

## etxeko leihotik



**Goiatz Arana** > GOITBko erredaktore-burua

# Zintzoagoak izango bagina sikiera...

Zabaletako merkataritza zentroa guztion ahotan dago, eta Ibai Arte elkartekoak buru-belarri dabiltza lanean halako azpiegitura bat erdigunetik kanpo egin ez dezaten, horrek euren negozioetan eta, oro har, herri barruko bizimoduan izan dezakeen eraginaren beldur. Arrazoi dutela esaten dieten askok eta askok merkataritza zentrorako bidea hartuko ote duten nago ni, egiten duten tokian egiten dutela ere. Ikusi besterik ez dago egungoak nola lepo-raino betetzen diren. Garibai etorbideko aldaketek ere kalera atera dituzte asko, baina ez ziren hainbeste izan Udalak informazioa emateko Kulturaten egindako saiora joan zirenak. Um... Horrek ere ematen du zer pentsatu.

Eta hara, aurtengo negua eskas doala-eta aldaketa klimatikoaren beldur direla diruditenak ere haserretu egiten dira eguraldi adituekin, hotza, euria edota elurra iragartzen dutenean, urte sasoia edozein dela ere zerua garbi eta tenperatura beroak gura balituzte bezala. Eta nahastuta nago ni, gauza bat pentsatu eta beste bat esan, bat esan eta bestea egiten dugula ikusita. Zintzotasunetik asko dugunik ezin esango dugu behintzat!

**"Jende gutxi joan zen Garibairi buruzko informazio saiora, gutxiegi"**

**> Aipatutako hiru kasuak egun gertatzen denaren argazki bat baino ez dira, ordea. Antzerako mila adibide erakusten dizkigu errealitateak. Eutsi diezaiegun nork bere ideiei!**

**> Ni ere joaten naiz merkataritza zentro horietara, eta uste dut gutxi batzuk baino ezin izango dutela kontrakorik esan. Baina behin eta berriz, egun pasa, hara joatea... Ezta besterik ez balego ere!**

## begi-bistan



**Ziburu bereziak (Arrasate)**
**2007/03/13**

**Argazkia:** Ubane Madera.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Egubakoitzean estreinatu zituzten Arrasateko umeek herriko historia irudikatzen dituzten ziburuak, Santa Barbara parkean; kontu bitxia, benetan. Irudian, gaztelu itxurako ziburua.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Kristina Larrañaga**
PRESO OHIA

Eguaztenean laga zuten aske Larrañaga arrasatearra. Iazko ekainean atxilotu zuen Frantziako Poliziak, Azkainen (Lapurdi), "zerga iraultzailearekin" zerikusia zuelakoan. Ordutik, Pariskoko kartzela baten egon da. Bihotzeko arazoak ditu Kristinak.



**Marilu Madinabeitia**
ANDEREÑOA

Korrikak emakumeak omenduko ditu aurten. Aretxabaletako batzordeak, ikastolaren sorreran andereño izan ziren Marilu Madinabeitia, Mari Carmen Gutierrez eta Kristina Gomez omenduko ditu, Korrikari ongi-etorria egiteko afarian, hilaren 23an.



**Idoia Azkarate**
PINTOREA

Idoia Azkarate bergararrak margo erakusketa jarri du Donostiako Alde Zaharreko La Colchoneria tabernan, San Vicente kalean. Martxo bukaerara arte egongo da zabalik. Hamasei margolan jarri ditu ikusgai, argizari margoz egindakoak, oso koloretsuak.

Biologian lizentziaduna da Marta Garmendia tolosarra. Duela hiru urte eta erdi iritsi zen Debagoieneko Mankomunitatera eta hango Ingurumen teknikaria da. Azkenaldian, konposta egiteko kanpainan lanean dabil buru-belarri. Foru Aldundiaren laguntzarekin konposta egiteko 250 tramankulu banatuko ditu laster Debagoieneko Mankomunitateak.

**Marta Garmendia** > Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen teknikaria

# "Oraingoan 250 konpostagailu eskatu ditugu eta berehala agortu zaizkigu"

**AMAGOIA LASAGABASTER** > ARRASATE

**Materia organikoa ongarri bihurtzea, horixe da konposta egitea. Debagoieneko Mankomunitateak nork bere etxean konposta egiteko tramankuluak banatu ditu doan. Debagoieneko hainbat herritar konpostagile bihurtu dira dagoeneko.**


Marta Garmendia, Mankomunitateak Akeiko transferentzia plantan duen konpostagailuaren ondoan. AMAGOIA LASAGABASTER

**Konposta egiteko bigarren kanpaina jarri duzue martxan. Zelan doa?**

Arrakasta izugarria izan dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak konposta egiteko tramankuluak ematen dizkigu dohainik eta guk ibarrean banatzen ditugu. 2005ean egindako kanpainan, 75 banatu genituen. Oraingoan, 250 tramankulu eman dizkigu Diputazioak eta berehala agortu dira guztiak. Eskaera gehiago ere izan ditugu, baina konpostagailu barik gelditu gara. Eskaera egin eta konposta egiteko tramankulua hartuko duten guztiei ordu eta erdiko ikastaroa ere emango diegu.

**Zeinek erabiltzen du konposta egiteko makina?**

Gehienak ortua edo loratégia duten herritarrak dira, eta hantxe jartzen dute konpostagailua. Ulertzen dugu, materia organikoaren kasuan, etxebizitza barruan birziklatzea ez dela erraza. Beste tramankulu bat erabiltzen da kasu horretan, eta zizareekin egin behar da konposta. Jakina, jendeak ez ditu eduki gura zizareak etxean.

**Zaila da konposta egitea?**

Ez, ez da zaila, baina hainbat gauza hartu behar dira kontuan. Zein materia organiko bota behar den eta zein ez jakin behar du konpostagileak. Gero, bakteria, onddo eta intsektuek eraldatzen dute material hori. Horiei esker, humus antzeko bat sortzen dute, eta horixe da lurrerako ongarria. Gainera, usainik ere ez du izaten; beraz, garbia da.

**Orturik ez duenak zelan aprobetxatu horrenbeste konpost?**

Ez dago arazorik. Materia organikoaren %80 ura izaten da; beraz, bolumenean asko murrizten da kantitatea. Etxeko hondakinekin etxeko landareendako ongarria bakarrik lor daiteke.

**Materia organikoak jasotzeko edukiontziak, noizko?**

Programa pilotua jarriko du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak laster. Marroi koloreko edukiontziak izango dira, eta ibarrean, Aretxabaletan jarriko dituzte. Asmoa da edukiontzi horiek kontrolatzeko erabiltzaileei giltzak ematea. Hala, ziurtatuko dute edukiontzi horretan bota beharrekoa bakarrik botatzen dutela herritarrek. Edonola ere, oraindik informazio gutxi dugu Mankomunitatean.

**Birziklatu ezean, zelako kalteak eragiten ditu materia organikoak?**

Gainerako zakar guztia moduan, hondakindegira doa. Eta badakigu horrek zein kalte eragiten duen. Materia organikoak, gainera, erraz usteltzen da eta kirats izugarria izaten du, besteak beste.

**Ongarri kimikoekin alderatuz, zein onura ditu konpostak?**

Abantaila da naturala dela, lurrarendako onuragarriak diren mantenugaiak ditu-eta. Lurraren egitura eta kalitatea hobetzen du nabarmen.

ONURAK

**"Konpostak lurrarendako onak diren mantenugaiak ditu, eta lurraren kalitatea hobetzen du"**

GURE ARAZOA

**"Guk ezin dugu inor behartu birziklatzera. Norberaren ardura da hori"**

DATU POSITIBOAK

**"Birziklapenean, EA gainerako komunitateetan baino aurreratuago gaude"**

**Ez dugu erraustegirik herri ondoan gura, baina oraindik jendeak ez du birziklatzen. Zer egin?**

Nik uste dut zaborraren arazoa gurea dela, guk sortzen baitugu zabor hori guztiori. Hori kontuan hartuta, ezin duguna egin da kutsatu eta gero norbaiti eskatu arazo hori konpontzeko. Birziklatutakoari eta birzikla ezin daitekeenari erantzun egokia emateak bateragarria izan beharko luke. Irtenbideak aurkitu behar ditugu.

**Enpresek kutsatuz gero, isunak izaten dituzte. Beste batzuek ingurumenarekiko konpromisoa hartuz gero, saria izaten dute. Eta herritarrek izan beharko lukete horrelakorik?**

Herritarrendako saria da bizi den lekua zainduta egotea. Horrek behar luke izan sari nahikoa. Guk ezin dugu inor behartu birziklatzera. Norberaren ardura da hori.

**Estatuan euskaldunok ei gara gehien birziklatzen dugunok. Egia da?**

Bai, datuak alderatuz EAEn datu hobeak izaten ditugu. Kontua da hemen beste komunitate batzuetan baino aurreratuago gaudela. Hainbat tokitan, esaterako, oraindik ez dituzte ontziak birziklatzen.

**Abian jartzen dituzuen kanpainetan, arrakastaren gakoa non izaten da?**

Uste dut, azken baten, herritarrek dutela giltza. Publizitate kanpainak egin arren, kontzientziaziorik ez badago herritarrek ez dute parte hartuko. Zorionez, birziklatzeko kanpainek erantzun ona izaten dute.

**Badu etorkizunik materia organikoaren birziklapenak?**

Bai. Dena dela, kontuan izan behar dugu gauza hauek ez direla egun batetik bestera lortzen eta gai honek ere bere denbora beharko duela.



zabalik

Urko Lopez

# Arkitektura, izen ona eta aurrekontuak

Azkenaldian nahiko orokortua dago arkitekto famatuek hiri eta herrietan zerbait egitearen joera (zubiak, eraikinak...). Esaterako, Bilbon, Donostian edo Durangon lan egin duten, ala egingo duten arkitekto bikainak famatuak egin dira arkitektura zirkuluetatik at. Ez dugu izenik emango, soberan ezagunak dira, euskal arkitekto bikain asko baino ezagunagoak, tamalez.

Halere, arkitekto hauek ekartzea ez da merkea, *caché* ederra dute. Baina eurek egindako lanek, askotan benetako artelan gisa hartuak, nazioarteko oihartzuna ematen diote hiriari. Zoritxarrez, Bilboko Udala arkitekto horietako batekin auzitan dago beste batekin egiten ari den lanarekin lotua. Batek daki nola geratuko den auzi hori.

**"Orokortua dago arkitekto famatuek hiri eta herrietan zerbait egitea"**

**"Ezin al dezake euskal arkitektoren batek antzeko lanik egin? Askotan izenagatik larregi ordaintzen da**

Dena den, honek badakartza hainbat hausnarketa:

- Zer nahi dugu hirigintzan? Izen ona ala funtzionalitatea?

- Herri lanen batean aldaketaren bat egiteko orduan zilegi al da arkitekto horrek azken hitza izatea, kalean ala auzitegietan?

- Izena irabazten dute gure hiriek, turismotik eratorritako diru sarrerak ere. Baina, Bilbon dagoen auzia ikusita, eta hau beste nonbaiten ere eman daitekeela pentsatuz, merezi al du aurrekontu publikoetatik horrenbeste diru gastatzea gero hirigintzari trabak ekartzeko arriskua badago? Honek hirigintza oztopatzen du. Ez da zilegi egoera hau, hiritar xume honen ustetan.

- Ezin al dezake euskal arkitektoren batek antzeko lanik egin? Agian sakrifizio gutxiago ekarriaz aurrekontu publikoei begira; ez arkitekto kaxkarragoa izateagatik, hori argi gera dadila, baizik eta askotan izenagatik larregi ordaintzen delako.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza | Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## herritarrak galdezka

### ESKORIATZAKO LANTEGI BATEK SORTUTAKO KUTSADURA AKUSTIKOA DELA ETA

**Eskoriatzatik posta elektroniko bat jaso dugu, hango lantegi batek sortutako kutsadura akustikoagatik galdezka. Behin baino gehiagotan udaletxera jo duela dio mezuaren sinatzaileak, baina ez diotela oraindik arazoari irtenbiderik eman. Arazoa zuzentzeko neurririk hartzeko asmori baduten galdetu nahi du.**

Eskoriatzako udal aparejadorearengana jo dugu azalpen eske. Hark dioenez, arazo horren gaineko idatzizko kexa bakarra jaso dute. Arartekoa ere zuzendu da udaletxera informazio eske eta, era berean, ustezko kutsadura akustikoa sortzen duen enpresari eman dioten arazoaren berri. Beharrezko neurketak egin dituela eta indarrean dagoen araudia betetzen duela adierazi dio enpresak udaletxeari. Hala ere, udal aparejadoreak aitortzen duenez, Eskoriatzako Udalak ez ditu bitartekoak horrelako neurketak egiteko eta ez dute neurketarik egin oraindik. Gaiak ez duela irtenbide erraza gaineratzen du, zoritxarrez, Eskoriatza udal txikia izanda ez delako herrian sor daitezkeen arazo denak konpontzera heltzen. Aipatutako arazoak soluzioaren zain jarraitzen duela adierazi digute Eskoriatzako Udaletik.

### TABERNETAKO TERRAZAK NOLA ORDAINTZEN DIRA BERGARAN?

**Udaberri eta uda partean taberna askok terrazak jartzen dituzte Debagoieneko herrietan. Bergaran, ordaintzeko orduan zein irizpide jarraitzen duten jakin nahi du herritar batek.**

Bergarako udaletxean zera adierazi digute: hileroko kuota kobratzen zaie terrazak jartzen dituzten tabernei. Horretarako okupatzen duten lur eremua hartzen da kontuan: mahai bakoitzak 3 $m^2$ betetzen duela hartzen da oinarritzat. Horren arabera, $m^2$ bakoitzeko 5,90 euro ordaindu behar izaten dute tabernek. Hileroko ordainketa izaten da, baina bada 15 egunekoa (gutxienekoa) egiteko aukera ere. Kasu horretan, goian aipatutako kuotaren erdia ordaindu lukete tabernek.

### NOIZ SARTUKO GARA UDABERRIAN?

**Udaberriaren atarian gaude, baina zehatz-mehatz udaberrian noiz sartuko garen jakin nahi dute Arrasaten, apustu bat dela medio.**

Martxoaren 21ean sartuko gara udaberrian, 01:07an. Ordu aldaketa martxoaren 24tik 25era bitarteko gauean egingo dugu.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## marrazkiz

Unai Busturia




## blog

# Donostian, astelehen goiz batez

**Patxi Traperp**
www.patxitrapero.blogspot.com

Donostia hiri ederra izango da, ederretan ederrena… Baina astelehen goiz batean bertako kaleetan zehar zoazela, bertako biztanle presati burumakur serioegiei arretaz begira, trafikoari begira, obrei begira… hauxe datorkizu burura. Neri behintzat hauxe etorri zait burura: Eli Laztangurenen artelan bikaina.

Poesia pixkat orain.

Elkano kaleko banku batean eserita, eguzkitan. Katixaren liburu erosi berria irakurtzen…

Begiak lerroen gainean dantzan ditut, baina ezin det ebitatu, orrialdeak aurrera egin ahala, zeharka, ibiltari presatien oinetan erreparatzea…

(Ez naiz konturatu, lagun batek esan didan arte, oin guzti hoien jabeek, zalantzarik gabe, sekulako inbidia zidatela)

Jaiki egin behar izan det lehenengo ipuina bukatu gabe. Ez da han eten nere gozamena. Maria Cristina parean, langile estresatu presatiz betetako bulego batean, aulki moderno bat dago, zeru oskarbiaren kolorekoa, eta hantxe eseri naiz ipuinari atzera kosk egitera… Atzera jaikierazi didaten arte.

Mende hasierako sapai altuko eskilara-buru ilun batean, toki ezin xarmangarriagoan bukatu det lehenengo istorio hunkigarri gazi-gozoa.

Bide batez, izugarri gustatu zaidana. Ez dakidana da, nundik sortzen dan Donostian, Avenida inguruan, eguerdi aldera, infernuko tripetatik

plazara

1970eko hamarkadatik hona Arrasate Musikalek egindako lan aipagarria nabarmentzen du Itziar Lamarainek, eta eskola hura zutik jarri zutenen lana eskertu. Arrasateri ekarri dion musika aberastasuna neurtzea ezinezkoa litzatekeela dio Lamarainek. Halaber, kezkatuta azaltzen da Musika Etxearen proiektu interesgarria ez delako gauzatu amaitzear dagoen agintaldian.

**Itziar Lamarain ***

# Arrasateko Musika Etxearen proiektuaren zain

Musikazaleak baina batez ere kulturazaleak ziren arrasatear batzuek Arrasate Musikal sortzeko oinarriak jarri zituzten 1972. urtearen inguruan.

Hasiera baten, talde haren eragile nagusietako bat Jose Mari Agirreurreta izan zen, berezkoa zuen nortasun indartsuarekin. Harekin elkarlanean aritu ziren, Jose Luis Mendieta, Juan Aranburu, Javier Pagaldai eta proiektua aurrera eraman zuten beste lagun batzuk. Ezinezkoa litzateke denak izendatzea. Juan Artzamendi herriko musikari nagusiak hartu zuen Arrasate Musikalen zuzendaritza.

Ilusioz beteriko garai gogorrak ziren. Zerrajera Metalurgikoa izan zen talde hura jaso zuen lehen eraikina. Azkenik, bi urte geroago, oraingo eraikinera, Aprendizen Eskolara joan ziren, Javier Basterretxearen ahaleginei esker. Herriko bederatzi musika irakasle ziren hasieran, Juan Artzamendi handiaren zuzendaritzapean. Ondo prestatutako irakasleak, ilusio handiz lanean hasi zirenak.

Arrasate Musikalek 565 ikasle ditu gaur, lau mailatan banatuta, eta 34 irakasle ari dira.

Musika instrumentuei dagokienez, 21 instrumentu ikasteko aukera dago eta badira instrumentu bat baino gehiago ikasten ari direnak.

Arrasate Musikalek herriari ekarri dion musika aberastasuna neurtzea ezinezkoa litzateke. Ez daukat tarterik Arrasaten musikaren inguruan egin den lana azaltzeko. Gai horrek beste artikulu bat mereziko luke.



MIKEL ARROIABE

Eta 2007. urtean kokatzen gara. Aurretik esan bezala, Arrasate Musikal gogor dabil ikasle kopurua handitzeko ahaleginean.

2003-2007 bitarteko udal agintaldian lanean hasi ginenean, kaxoi batetik Musika Etxea proiektua atera zuten, Arrasate Musikal eta musikarekin erlazionatutako beste hainbat talde Zerrajerako erlojuaren eraikinean kokatzeko. Badirudi proiektu hark hainbat aldaketa jasan zituela, eta tartean zenbait milaka euro gastatu zituztela. Tamalez, susmoa dut diru hori zaborrera bota dela.

2006ko abuztuan, Diputazioak atzera bota zuen aipatutako proiektua. Diputazioko arduradunek emandako arrazoia hauxe izan zen: hobe zela Zerrajerako erlojuaren erakinerako proiektu integrala egitea.

Arrasateko udal gobernuaren partetik, ez zuten aintzakotzat hartu Goikobaluk eta Arrasate Musikalek egindako ekarpen interesgarria. Aipatutako proiektua 2004ko martxoan aurkeztu zuten Goikobaluk eta Arrasate Musikalek. Horren berririk ez genuen izan, harik eta hainbat hilabete igaro ondoren bide ez ofizialetik gure esku izan genuen arte.

Berriro esango dut: proiektu ederra zen. Hainbat aldaketa beharko zituen proiektuak, baina oraindik ere bada kontuan izateko modukoa. Udaletxeko *jauntxoek* hala ikusten badute, behinik behin. Baina zera ikusten dut: ez daudela horretarako gertu eta ideia hura ezertan geratuko dela.

Gaurko egunez, ez dakigu zein proiektu egingo den Zerrajerako erlojuaren eraikinean. Eta oraindik albiste txarragoa dena: ez dakigu inoiz egingo den Musika Etxea.

Gaur egun, oso baldintza eskasetan eta arrisku serioekin, Arrasate Musikalek Aprendizen Eskolan jarraitzen du. Arriskuena esaten dudanean, ez da debaldeko esaldia: joan den otsailaren 16an istripu larriren bat gerta zatekeen. Zorionez, ez zen halakorik gertatu. Edozein modutan, udal gobernuari zerbait egiteko ordua dela adierazi nahi diot.

**"Herriko talde batek bere garaian egindako lanari esker, Arrasate Musikalek 565 ikasle ditu gaur"**

**"Ez dakigu zein proiektu egingo den Zerrajerako erlojuaren eraikinean. Eta ez dakigu inoiz egingo den Musika Etxea"**

*Itziar Lamarain, PPko zinegotzia Arrasateko Udalean.

zer deritzozu?

**www.goiena.net**

## Martxoaren 8ko ekintzetan hartu duzu parte?

| | |
|---|---|
| BAI | %50 |
| EZ | %50 |

**> HIPOKRESIA NAGUSI**
Ez. Niretzat, egun arrunta da, eta ospatuko ez balitz, hobe. Emakumeen egoeraren gaineko albiste mordoa eta ekintza mordoa daude egun horretan, eta urte osoan, zer? Gainera, urterourtero datu berak dira: soldata askoz txikiagoa, urtetik urtera gero eta emakume gehiago bikoteak hilda... Hitzak eta sinboloak bai, baina ekintzak, noizko?
**Mari Carmen**

**> ALDARRIKATU**
Bai. Unibertsitatean egindako ekitaldietan parte hartu dut. Gure berdintasuna guk aldarrikatu ezean nork egin behar du ba?
**Ainara**

**> EGUNERO**
Ez. Uste dut egun guztiek izan behar dutela bai emakumeonak eta baita gizonezkoenak ere, inolako bereizketarik gabe. Egun bakarrean zertarako ospatu gero egunero ezberdintasunean bizitzeko?
**Miren**

**DATORREN ASTEKOA: Debagoienaren eskaintza Aste Santuan erakargarria da?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu erantzun interesgarrienak.

-top

datorrela dirudien sirena hots ezin tristeago hori… Hain hiri ederra hain kontrapunto zirraragarriz berezitzen duena.

Norbaitek baleki, eskertuko nioke esatea.

## Hamarratza

**Jose Felix Diaz de Tuesta**
www.goiena.net/blogak/atauri

Holaxe esaten zaio Arrasate aldean armiarmari. Modu askotara esaten zaio armiarmari euskaraz. Debagoienean, esate baterako, izen hauek erabiltzen dira: *hamarratza* Arrasaten, *miarma* Bergaran eta *armiarma* Oñatin. Ondarroan marasma. *Aramu* ere erabiltzen da, ez dakit non baina.

*Amarauna*, berriz, armiarma sareari esaten zaio Arrasaten. *Miarmari ari* esaten zaio Bergaran eta *marasma sare* edo *marasma tela* Ondarroan. *Aramu sare* eta *geun* ere ageri dira hiztegian.

Batera edo bestera, gauza da era asko dagoela errealitate bat ikusteko eta errealitate hori izendatzeko. Ikusi besterik ez dago euskaraz eta eremu txiki batean zenbat hitz erabiltzen diren *hamarratz* eta *amaraun* esateko.

## Denboraldia hasi

**Lokatza Ziklismo Eskola**
www.goiena.net/blogak/lokatza

Larunbatean denboraldia hasi dabe lokatzako kadetiak Beasainen... eta nola hasi dien! Antzuolako Xabier Aranzetak irabazi dau tenporadako bigarren karreria. (...). Igandean goizian Iban Caballerok 4. iñ dau Eibarko helmugan jubenillen lasterketan (...):

koplak

**Eñaut Uriarte**

## Brum Brum goma usaina

Formatu baten biltzen dittu honek
ikuskizuna glamourra
kirol haundixa daukagu berau
nahiz eta ez izan Tourra

Oraintxe bertan pozarren nago
ezin dot ba diximula
igande honetan hasten dalako
Australian bat formula

Nerbixuak ezin lasaittuta
denen odola borborka
berdia jarri ta hasiko da
txapelketako borroka

Eskerrak hemen guk telebista
izango dogula emaile
ikusteko ia bere amaieran
hor izango dan garaile

Alonsok markaz aldatu eta
Michael Schumacherrek agur
aurten nor irtengo dan garaile
ni neu ez nago ba ziur

Alonso, Fisichella, Kristian Klein
Rosberg, Kubika eta Massa
jende mordua titulurako
emozioa demasa

# Isil-isilik dabitz, kale barrenian...

**Mikel Gangoiti**
(Arrasateko Gazteak)
Arrasate

Herri zaintza-ko soldadutxoak, beti herritarron ongizatearen zerbitzura. Pasa den hilean, Bilboko kaleetan eseri ziren milaka terroristarengandik libratu bagintuzten, arrasatearron osasunak arduratzen ditu oraingoan.

Nonbait, Sebero Altube plazara ematen duen etxe bateko fatxadan jarritako harrizko plaka batek kezkatzen ditu. Jolasean dabilen umeren bati jausteko arriskua egonez gero, ulertuko genuke beraien ezinegona, baina ez da kasua.

Demokrata batzuen begiko minaren arrazoia delakoan gaude. Herriko errealitatea moldatu nahia, baina sendagai merke bezain inefikaza dela erakutsi du denborak.

Goazen harira. Aipaturiko plakak gazte erakundearen 25. urtemuga ekartzen du gogora, *25 urte borrokan tinko* lelopean. Bengoa taberna aurkitzen den fatxadan zegoen, hiru metro inguruko altuerara eta ez du inoiz erortzeko arriskurik izan.

Baina bada denbora, Franco hil zenetik garbitu gabe dauden tribunal espainiarretatik datozen aginduak harro betetzeaz gain, sententzia hauek ematen dien inpunitatearen "jokoari" gustua hartu dion gertuagoko norbait. Herritarron izua arma paregabea baita.

Horren lekuko da Ferrerias kaleko etxebizitza bateko arduraduna. Terrorismo (zenbat balio du hitz honek?) delitu baten susmopean dagoela jakinarazi diote Bergarako ertzain etxetik. Bera egiten baitute gazte erakundearen konpromiso eta lanaren oroigarri den plakaren arduradun. Nor ez da izutzen bada, "Al consentir implícitamente la continuidad de su exhibición, podría ser imputado como autor de un delito de los de terrorismo del Código Penal vigente, cuyo enjuiciamiento corresponde a la Audiencia Nacional" dioen gutuna etxean jasotzean?

Arrazoiak arrazoi, hitzak eta ekintzak, aurpegiak eta gurutzeak, PNVren politikaren eguneroko ogia.

Euskal Gazte Herriak, eta oro har Euskal Herriak, sufritzen dituen etengabeko errepresio eta eskubide urraketen aurrean, borroka da bide bakarra! Azken 25 urteetan bezala Euskal Herriaren alde lanean segiko dugula adierazi nahi dugu, nahiz eta batzuei ez gustatu.

Apirilaren 6, 7 eta 8an eman zure urratsa, gazte. Zatoz Untzagatik Laudiora burutuko dugun gazte uholdera, zatoz Gazte Martxara! Gazte indarraz zabalduko dugu independentziarako bidea. Gure izarra independentzia!

# Parte-hartzea bermatu?

**Maite Ilarduia Iztueta** (Bergarako Ezker Abertzalea) > Bergara

Pasa den otsailaren 21ean Bergarako EAJ-PNVk datozen Udal Hauteskundeetan bere alkatetzarako hautagaia aurkeztu zuen. German Muruamendiaraz.

Bere burua aurkezterakoan, Udalean herritarren parte-hartzea bermatzearen alde azaldu zen, eta aurkezpenerako erabili zuten pankartan horrelako leloa irakurri zitekeen: *Bergara: ez dugu gauzak egiteko era aldatuko.*

German Muruamendiaraz ez da berria Udalean, azken 4 urteetan turismo eta ondare batzordeburua eta 3. alkateordea izan da azken 30 urteetan herri honek izan duen Udal antidemokratikoenean.

Bera partaide izan den agintaldi honetan, 1.800 herritar baino gehiagoren lehen hitza ere (bozka) ez da errespetatu, eta 4 urte luze hauetan bera partaidea izan den gobernuak ez du ezer egin honi buelta emateko eta, gainera, egoera horretaz baliatu izan da beraiei ez zegozkien karguak hartuz.

Bergararrontzat hain garrantzitsuak diren Arau Subsidiario berrien (gaur egun Plan Orokorra deitzen dena) lanketan ez da bermatu benetan herritarren parte-hartzea, nahiz eta oraingo fasean legea betetzeko *partxeo* bat egin den. Urteroko aurrekontuak egiterakoan herritarren inongo parte-hartzerik ez da egon. Hainbat herritarrek eta taldek aurkeztutako mozioak ez dira osoko bilkuretan tratatu ere egin.

Hainbat adibide herritarren parte-hartzearen arloan agintaldi honen argazki azkarra ateratzeko, lau urte hauetan hainbat herritarrek hileko azken asteleheneko ohiko plenoan (German Muruamendiarazen parte-hartze eta isiltasunarekin) ikusi ahal izan dutena.

Eta orain, "herritarren parte-hartzea bermatzearen alde" azaldu? Lau urtetan izan duzu aukera eta ez duzu ezer egin. Orain sinetsi behar dizugu? "Bergara: ez dugu gauzak egiteko era aldatuko" diozue. Orduan, nola bermatuko duzue herritarren parte-hartzea?

# Amnistia, independentzia...

**Jon Agirre**
(Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren izenean)
Aramaio

Euskal Herriak bizi behar du libre, batu, euskaldun eta justizia sozialean oinarriturik. Horretarako, ordea, aitortua behar du izan erabakitzeko bere eskubidea, eta berau ahalbidetuko duen marko demokratikoa adostua. Euskal Herriak gainditu behar ditu Frantziak eta Espainiak ezarritako mugarri legalak, politikoak, ekonomikoak eta errepresiboak.

Bide luzea egin dugu norabide horretan egungo atakara heldu arte. Borroka ibilbide luzea, gogor eta gorabeheraz beterik izan da. Bertan, hogeita bi presokide eta hamasei senide eta lagun maite galdu ditugu. Borroka ibilbide horretan ehunetik gora borrokalari esku zabaleko hil dira. Horien guztien borroka ereduzkoari diogu zor egun gauden tokian egotea, egun gauden egoeratan egotea. Beraz, agur eta ohore bizia ere eman duten euskal borrokalari guztiei.

Gure borrokaren zio nagusia Euskal Herriaren askatasuna lortzea da. Euskal Herri independente, batu, euskaldun eta sozialista baten alde jarduten dugu. Bai orain, espetxe fronte honetan, bai lehen norbere ingurune organizatibo propioan aritzen zelarik. Euskal herriko independentziaren eta sozialismoaren aukera, ordea, Frantziak eta Espainiak historikoki zanpatu dute, ekonomiaz, politikaz, legez eta indar armatuz zanpatu ere. Eta horretan datza gatazkaren gako nagusia, alegia.

Iaz, gure herriaren lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubidea aintzat harturik, aukera politiko eta sozial guztietarako atea ireki nahi duen prozesua abiatu zen. Euskal Herriari benetako marko demokratikoa aitortu dion prozesuari heldu zitzaion alegia. Urrats garrantzitsuak eman ditu Ezker Abertzaleak prozesuaren baitan. Hala ere, prozesua blokeatuta dago. Espainiako Gobernuak atzera egin duelako bere konpromisoetan, eta ez duelako argiro aitortzen Euskal Herriaren eta euskal herritarron eskubide nagusia: izan eta erabakitzekoa. Frantziakoa tematzen da hein berean gure herriaren ukazioan. Areago, uko egin diote lurraldetasuna eta autodeterminazioa bilduko dituen marko demokratikoadostuari, haren inguruko akordio politikoa mamitzeari muzin egin dioten neurrian.

Horrek prozesuan oinarriak berak hankaz gora botatzen ditu eta, edonondik begiratuta ere, gatazkaren luzatzearen aldeko uholde erraldoi bat eratu behar dugu euskal herritar guztion artean, menpe hartzen gaituzten bi estatuen harresiak botako baditugu.

Ez digute ezer emango, borrokaren bidez gure askatasun osoa konkistatuko dugula baizik. Euskal Herriaren independentzia eta sozialismo zaleok altxa behar dugu autodeterminazioaren bandera hori, altxa eta askatasunaren gailurrera eroan, herritargo zabalarekin batera. Gure herriak biziraulteko behar duen marko demokratiko berritik, guztiok ateratzen garelako garaile, Euskal Herria garaituko da-eta!

Egunero eta toki guztietan autodeterminazioaren alde indar egiteko, indarra metatzen segitzeko, deialdia luzatzen dugu. Auzolan horretan, borroka ibilbide horretan, elkarrekin topo egingo dugula ziur izan.

# SOS hezur muin donazioak

**Jon Goikoetxea Arrizabalaga, Jon Uzkudun Amunarriz eta Aitor Azkarate Suinaga**
(Iturrigorri Elkarlana)
Arrasate

Euskal Autonomia Erkidegoan 22 pertsona daude bizi iraun ahal izateko premiazko hezur muin emate baten zain. Edozeinek izan dezake egoera horretara eraman dezakeen gaixotasun bat, eta ia edozein izan daiteke hezur muin emailea. Iturrigorri Elkarlana elkartean hezur muina jasotzea behar duten gaixoei laguntzeko lan egiten dugu, hain zuzen.

Aurreko ostiralean, ETBko berrien saioetan eskainitako informazio bati erantzuteko idazten dugu gutun hau. Berriemaileak eta Osakidetzako Transplanteen koordinatzaileak orokorki organo emateei buruzko berriak eman zituzten, hezur muin emateak benetan gaizki tratatuaz, eta arduragabe, informazio nahasia eskainiz. Hiru gauza denuntziatu nahi ditugu:

1. Hala da, euskaldunak munduan lehenak gara organo emate kontuetan, hain aurreratuak diren Ameriketako Estatu Batuen aurretik, gainera. Zorionak, euskaldunoi eta baita Osakidetzari ere lan horregatik! Zoritxarrez, berri hartan, hezur muin emateak ere tratatzen ziren, eta kasu honetan, Europako eta Espainiako mailatik behera gaude. Euskal Autonomia Erkidegoan, Ameriketako Estatu Batuetan baino 10 aldiz hezur muin emaile gutxiago ditugu biztanleko. Horrek esan nahi duena zera da: Euskadin gaixo mota hauen bizia salbatzeko ditugun aukerak askoz ere txikiagoak direla.

2. Osakidetzan badakite Euskadiko zenbait herritan hezur muin emaileak lortzeko ba- bateko kanpainak egin direla, eta 4.000 sinadura inguru lortu direla ere bai. Kopuru hau Euskal Autonomia Erkidegoan dugun hezur muin emateetan benetako mugarria da, eta pauso kualitatibo ikaragarria suposatuko luke, pertsona gaixo hauen bizia salbatzeko orduan dugun gaitasunean. Aukera ezin hobe hau, bere misioa lortzeko ahalik eta egokien kudeatu beharrean, Osakidetzak, gure emaileen kalitatea publikoki dudan jartzen zuen, hauek papera sinatu bai, baina benetan emaile izan nahi ez dutelakoan. Emaile hauetako askok, lan orduak utzita, hiriburuetara joan behar izan dute Osakidetzak ematen zion orduan analisia egitera.

3. Biziriko emaileei buruz hitz egiterakoan, berriz, arrisku handiko operazioak zirela, eta epaile baten sinadura eta oniritzia behar zela zioten. Baina ez zuten aipatu, hezur muin emailea izateko, nahikoa dela Osakidetzako arduradun batekin 20 minutuko elkarrizketa izan eta gero, dokumentu xume bat sinatu eta odol analisi klasiko bat egitea. Bagara gutxi batzuk tramitea pasatu dugunak, eta ez dira horren konplexuak.

Hezur muin emateak ugaltzeko, horretarako gizartea sentikortzeko eta emate horiek kudeatzeko ardura Osakidetzarena da bete betean. Hezur muin emaile izan nahi dugun pertsonen zerrenda luzea da dagoeneko, eta gure lehentasuna Euskal Autonomi Erkidegoan dauden emaile kopurua ahalik eta gehien gehitzea da. Mesedez, utzi ezazue informazio ilun, eta fidagarritasun gutxikoak emateari, eta aprobetxatu ezazue aukera hau ahalik eta azkarren.

Une honetan 22 pertsona daude hilzorian zuen zain, baita beraien familia eta lagunak ere, eta milaka emaile hauei laguntzeko prest. Gu emaileok zuen bizi asegurua gara, izan zaitezte zuek gurea. Egin zaitez hezur muin emaile.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

Lacetti 1.4 SE 16 v 5 URTEKO BERMEA

SARRERA KUOTA BARIK
60€/hilean-lehen urtean
138€/hilean - 108 alditan
Prever Plana barne. UTB: %6,72




Chevrolet Lacetti

HOLAKO BALDINTZEKIN, IRAGARKIAN LEKUA GERATZEN ZAIGU.
Erabili leku hau "Hiru lerroka" jolasean jarduteko.

Giauto

EIBAR
Otaola, 27
943 202 500

OLABERRIA
Karobi Ind.
943 885 150

salmentak: 902 345 225
tailerra: 902 345 235
www.giauto.es
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet es más.

CHEVROLET

Lacetti modeloa 1.4 SE 16 v (ez dator bat iragarkiko modeloarekin) Salneurria: 11.524 € (Prever Plana eta promozioak barne) Kuotak: 1etik 12ra 60 € eta 13tik 120ra 138 €. Finantzatutako zenbatekoa: 15.912,10 €. TIN: %6. UTB: %6,72. Irekitze komisioa: %2,5 (288,10 €). Eskaintza hau ez da metagarria beste promozio batzuetarako. 2007/03/31 arte baliagarria Penintsula eta Balear Uharteetarako. Finantzaketa: Finanza Banco de Credito SA. RBE: 07/MAR. Kontsumo mistoa (l/100 km): 7.1-808. CO2 emisioa (g/km): 171-210. Garantia: 3 urte edo 100.000 km. 2003/23ko Garantien Legea beteaz eta 2 urte Chevrolet 5 Zerbitzuaren kontratuaren baldintzak beteaz.

# Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**

## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

## EKONOMISTAK

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

## GESTORIAK

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Jatetxe Gida




## Azpeitxi jatetxea
Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde
Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Dragon Oriental
Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Dukiena jatetxea
Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Gure Ametsa
LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Taberna-Berri
Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Afari informalak



## Unzueta
Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Uxarte
Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea
Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**



**> ARRASATE**
Auzotarren hiru laurdenak ados Bruesak eskainitako proiektuarekin **> 18**



**> BERGARA**
Bainuetxeko eta kanpoko zelaiko lanak aurrera doaz Agorrosinen **> 24**



**> ARETXABALETA**
Zaharren etxe berria egiteko azken pausoa eman du Udalak **> 31**



**> ESKORIATZA**
Udala eta Aldundia tratuan dabiltza herrian bidegorri sarea egiteko **> 34**

**BERGARA** > KILOMETROAK 07, URRIAREN 7AN

# Kilometroetako zirkuituak sei gune ditu eta urbanoa eta laua da

Naturgunea, herriko parkeak eta dorretxeak zeharkatuko ditu

Zapatuan zirkuitua ezagutzeko irteera egingo dute, 10:30ean, ikastolako jolastokitik

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Ondoko mapan ikusten denez, hauxe da Kilometroetako zirkuitua: Aranzadi ikastolako patioa, Fraiskozuri, Santa Marinako zubia, azoka, Alkabieta kalea (Jesusen Zerbitzarien paretik hilerriraino), Martinez de Iralako ikastola, Boni Laskurain, bidegorria, Algodonera parea, tunela pasa eta bidetxoan gora argindarraren transformadorera, Artabila, Agarre baserri ondoko garaia, Aumategi jauregia, Agarretxeberri baserria, Candy Hoover, Ozaeta, Labegaraietako kiroldegia, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia, Arrizuriaga parketik Iparragirre kalera eta handik seminariora.

**ALGODONERAKO ORUBEA**

Berez, asmoa da bidegorritik Algodonera parera heltzean pareta bota eta orubea zeharkatzea zirkuitua. Handik Gabiria dorre ondotik (orduko bukatuta izango dituzte berritze lanak) Artabilara igoko litzateke. Aranzadi ikastolarekin batera zirkuitua antolatzen dabilen herritar taldea negoziatzen ari da hori. Orube hartan etxebizitzak egingo dituzten eraikuntza enpresakoekin eta Udalarekin ari dira aztertzen hori egin ahal izango duten edo ez; izan ere, oraindik ez dakite noiz hasiko dituzten lanak. Zirkuitua ezin bada handik sartu, bidegorriko tunela pasa ostean dagoen bidetik gora igoko dira Artabilara, eta handik Agarre baserri ondoko garaira (horreora). Horixe izango da zirkuituko aldaketa handiena, egotekotan.




**ZIRKUITUA** Plano horretan ikusten da zirkuitua nondik nora izango den eta guneak non jarriko dituzten. GOIENKARIA

DATUA

# 6.510

**METRO**

Zirkuituak 6.510 metro izango ditu guztira. Horietatik ia bi herritik kanpo egingo dituzte, Agarreko garai inguruan; beste guztiak herri barrutik pasako dira. 150 metro bakarrik daude asfaltatzeke.

**SEI GUNE ETA APARKALEKUAK**

Bestalde, Kilometroetako zirkuituak sei gune izango ditu: ikastolan, azokan, Martinez de Iralan, Algodoneran, Artabilan eta Labegaraietako kiroldegian. Oraindik zehazteke dute zer egongo den gune bakoitzean, baina horretan dihardute.

Zirkuitua definitzeko orduan hainbat faktore izan dituzte kontuan: aldapa handirik ez egotea, irisgarritasuna, herriko errepide nagusiak libre uztea eta aparkalekuak. Azken horrekin lotuta, pentsatu dute autobusak Labegaraietako industrialdean aparkatzea; 160 autobusendako tokia dago han. Autoak Poligonoan eta San Juanen aparkatuko dituzte eta egun horretarako autobus zerbitzu berezia egongo da handik herrira; baita, jakina, inguruko herrietatik ere.

XEHETASUN BATZUK

**> SARRERAK**
Hiru sarrera nagusi izango ditu zirkuituak: Labegaraietako kiroldegia, Poligonoa eta Ibargarai kalean palmondoa dagoen biribilgunea; han jaitsiko dira lantzaderetan datozenak.

**> ARDOA ETA AUTOA**
Salgai daude Debagoieneko tabernetan Kilometroen aldeko ardo botilak. Bestalde, autoaren zozketarako txartelak ere saltzen hasiko dira aurki Gipuzkoa osoan.

**> ERRAMU ZAPATUA**
Erramu-zapatuan txosna eta arropa denda jarriko dute seminarioko patioan. Bezperan, kantu-poteoa egingo dute.

## Agarre baserri ondoan dagoen garaian aurkeztu dute Kilometroetako zirkuitua

Agarre baserriaren ondoan dagoen garaian aurkeztu dute aurtengo Kilometroetako zirkuitua. Hantxe egon dira: Igor Elortza, ikastolen elkarteko ordezkaria; Unai Azkarate, Kilometroak 07ko koordinatzailea; eta Jone Salegi eta Gotzon Bikuña, zirkuitua antolatzen dabilen lantaldeko kideak. Haien esanetan, herriko hainbat puntu interesgarri zeharkatuko ditu zirkuituak, tartean Gipuzkoako garai (horreo) bakarra, eta horregatik aukeratu dute gune hori aurkezpena egiteko. Zirkuituan zehar ikusiko diren beste gune batzuk dira, adibidez: Usondo parkea, Erdi Aroko jauntxoen liskarren lekuko diren Gabiria eta Ozaeta dorretxeak, naturgunea eta herriko industrialde garrantzitsu bat.

Zirkuituaren aurkezpenean esan dutenez, saiatu dira ibilbide polita eta edonork egiteko modukoa antolatzen. "Duen aldapa bakarra Agarreko garai ingurutik Gaittao aldera doan bidean dago, beste guztia laua da", esan du Gotzon Bikuñak. Dena dela, zapaturako irteera antolatu dute zirkuitua ezagutzeko. Ikastolako patiotik irtengo dira 10:30ean eta urriaren 7an Kilometroetara etorriko direnek egingo duten ibilbide bera egingo dute. Debagoeindar guztiak daude gonbidatuta.




Igor Elortza, Jone Salegi, Gotzon Bikuña eta Unai Azkarate. ENEKO AZKARATE

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 18 | Español | Araba etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 19 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 20 | Etxeberria | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Eguaztena, 21 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Eguena, 22 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 23 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 18 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 19 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 20 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 21 | Urrutikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 22 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 23 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 18 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 19 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 20 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 21 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 22 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 23 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 18 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 19 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 20 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 21 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 22 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 23 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA (Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 03 54 00
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........943 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 17**
Okertzea dator, baina zapatuan eutsi egingo dio. Hori bai, iparraldetik joko du haizeak eta laino maskalak izango ditugu, baina larregi okertu barik.



**Domeka, 18**
Domekan ere eguraldi polit samarra izango dugu. Iluntze aldera sumatuko dugu ipar haizeak badakarrela aldaketa, eutsiko dio.

### EUSKAL HERRIAN

Ipar haizea lainoak ekarriko dizkigu zapatuan eta domekan. Edozelan ere, astelehenera arte euria egin barik eutsiko diola diote aurreikuspenek. Baina badator okertzea eta domeka iluntze aldera hasiko gara igartzen. Astelehenetik aurrera, eguraldia okertu egingo da.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Astelehena, 12 — **-1 ºC**

**MAXIMOA** Astelehena, 12 — **20 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **109 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 7** | 10 ºC | 7 ºC | 94 l/m² |
| **Eguena, 8** | 8 ºC | 1 ºC | 8,1 l/m² |
| **Egubakoitza, 9** | 12 ºC | 2 ºC | 6,9 l/m² |
| **Zapatua, 10** | 13 ºC | 4 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 11** | 17 ºC | 2 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 12** | 20 ºC | -1 ºC | - l/m² |
| **Martitzena, 13** | 19 ºC | 0 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MARTXOAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **12** | **19** | **25** | **3** |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Erretiratuen mendi irteera martxoaren 22an**
Kanpanzarrera, Besaidera eta Udalara joango dira San Joxepe elkartekoak martxoaren 22an. Bazkaria Udalan egingo dute. Izenematea (20 euro) erretiratuen elkartean. Argibide gehiago 943 76 30 09 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

DEBAGOIENA
**> Lankidetza ikastaroak udan, Hego Amerikan eta Afrikan**
Bakerako Lankidetza Batzarrak (BLB) Hegoaldeko herrialdeetako lankidetza ikastaroak antolatu ditu udarako: Guatemalan, Hondurasen, Marokon, Senegalen, Tunisian, eta abar. Argibideak 94 444 32 07 telefonoan edo *www.acpp.org* helbidean.

BERGARA
**> Internet hasiera ikastaroak, doan**
Bergarako KZgunean, martxoaren 19tik 30era, goizez (11:00-13:00) edo arratsaldez (16:00-18:00). Argibideak 943 76 73 24 zenbakian.

ARAMAIO
**> Dirulaguntzak eskuratzeko deia**
Udaleko Kultura eta Euskara sailek urteko dirulaguntzak banatuko dizkiete herriko taldeei kirol, jai, kultura... eta bestelakoak antolatzeko. Martxoaren 20a da mugaeguna.

BERGARA
**> Pol-Poleko beteranoen irteera**
Denboraldiko bigarren irteera domekan, hilaren 18an. Kantabriara joango dira, egun guztirako: Carasa- Candiano-Virgen Bien Aparecioda. Irteera frontoitik egingo dute, 07:30ean.

ARRASATE
**> Tai-chi eskolak Arrasaten**
Eguaztenetan, 20:15etik 21:30era Arizmendi ikastolan, San Viatorren. Argibideak ondoko telefono zenbakian: 679 64 24 91 (Rafael).

ANTZUOLA
**> Posta elektronikoaren gaineko ikastaroa**
Martxoaren 22an *Komunikatu posta elektronikoaren bidez* delako ikastaroa egingo dute. Argibideak 943 79 94 44 zenbakian (09:00etatik 18:00etara) edo *antzuola@kzgunea.net* helbidean.

ARRASATE
**> Emakumeen Eskubideen Gutuna: eztabaida**
Zapatuan, martxoaren 17an, Emakumeen Eskubideen Gutunaren gaineko eztabaida Arrasateko Emakume Txokoan, 10:30ean. Mugimendu feministak idatzi eta garatu duen gutuna azatergai.

ESKORIATZA
**> 1957an eta 1958ko urtarril eta otsailean jaiotakoen irteera**
Udan, ekainaren 9an egingo dute irteera, Arratiara. Interesatuek honako telefonoetara dei dezakete: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

BERGARA
**> 1981ean jaiotakoen bazkaria**
Martxoaren 31n egingo dute, Agorrosin tabernan. Izenematea Euskadiko Kutxan, martxoaren 27ra arte. Bazkari egunean Polo-Polen elkartuko dira, 13:00etan.

DEBAGOIENA
**> Korrikaren 15. ekitaldia Debagoienera iritsiko da egubakoitzean, hilaren 23an**
Korrikaren 15. ekitaldia martxoaren 22an jarriko da abian Karrantzan eta 23an iritsiko da Debagoienera: Gatzagara 23:35ean helduko da. Aurtengo ekitaldia euskal emakumea omenduko du Korrikak. Martxoaren 20ra bitartean izango da kilometroak erosteko aukera, 943 77 03 69 zenbakira deituta.

ARRASATE
**> 1940an jaiotako emakumeen bazkaria**
Martxoaren 31n, Arrasateko batzokian. Aurretik, meza parrokian. Izenematea (20 euro) Zabaleta lurrindegian.

BERGARA
**> Olio dastatze ikastaroa hilaren bukaeran**
Martxoaren 28an eta 29an, Blas Melgarejo eta Andres Martos olio ekoizleen eskutik. Argibideak kultura etxean (943 77 91 58).

OÑATI
**> Hainbat ekitaldi Pake-Leku elkartean**
Astelehenean, *Mrs. Henderson presenta* filma, 17:30ean. Martitzenean, *Como dormir mejor y descansar más* hitzaldia, 18:30ean. Martxoaren 23an, Legazpiko erretiratuen antzerki taldearen emanaldia, 18:00etan.

BERGARA
**> Eski irteera Aste Santuan Pol-Polen eskutik**
Apirilak 6tik 14ra bitartean Alpeetara, Val Thorens-era irteera. Argibideak 943 76 48 51 telefonoan edo *pol-pol.menditaldea@hotmail.com* helbidean.

BERGARA
**> 1979an jaiotakoen bazkaria martxoaren 31n**
Tartufo jatetxean egingo dute. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan egin daiteke, martxoaren 20ra arte.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Bidegorria egitea zer iruditzen zaizu? Erabiliko zenuke?



**Inma Beristain**
Langilea
Antzuola

Trenbidea bidegorri bihurtzea ondo iruditzen zait, baina egokiagoa litzateke bide zaharra konpontzea; gehiago erabiliko genuke, bai paseorako, baita Bergarara joateko ere.



**Ibai Zabalo**
Ikaslea
Antzuola

Oso ondo; paseatzeko toki askorik ez dago eta korrika egitera ere jende asko joaten da futbol zelaira. Polita izango litzateke bidegorria egitea. Erabiliko nuke kirola egiteko edo Bergarara joateko.



**Miren Aristi**
Erretiratua
Antzuola

Beharra badago, paseatzeko tokiak egon arren, aldapa handia dago-eta. Gainera, askok ezin dugu aldapan ibili eta toki lauak ondo etorriko litzaizkiguke. Ni herrian ibiltzen naiz paseoan.



**Ana Abasolo**
Langilea
Antzuola

Ni Zumarragakoa naiz eta han asko erabiltzen da, baina gertu dagoelako. Trenbidean bidegorria egitea ondo dago, baina beherago egingo balute hobeto, jende gehiagok erabiliko luke.



**Juan Tomas Zabalo**
Langilea
Antzuola

Lagunartean askotan berba egin izan dugu horren inguruan; bidegorri beharra dago. Nahiko etxe egin dituzte dagoeneko eta orain, horrelakoak egiteko garaia iritsi dela uste dut.

txaloak eta txistuak



M.B.

## Abiadura moteltzeko bandak jarri dituzte

Bergarako Urteaga kalean abiadura murrizteko bandak jarri dituzte administrazioek. Joan den abenduan, irakurle batek kexua helarazi zigun ibilgailuak handik abiada handiegian pasatzen zirela-eta; eta neurriak eskatzen zituen. Eskaera aintzat hartu dute.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 9

Maider Unda aramaioarrak borroka libreko Espainiako txapelketa irabazi du. Guztira, bederatzi alditan irabazi du. Hain zuzen, Pekingo joko Olinpiar Jokoetan parte hartu ahal izatea da Undaren helburu nagusia.

usteak uste

Oihana Elortza

## Sagardotegi garaia den bakoitzean

Sagardotegi baten izan ginen bost lagun bazkaltzen joan den zapatuan, Hernanin. Elegante bazkaldu genuen. Koadrila handian joanez gero gutxiago jaten ote den inpresioa dut nik, eta zapatuan nire aldeko beste adibide bat topatu nuen. Guri, bi txuleta atera zizkiguten bostendako, eta beste oñatiar batzuei, bi hamarrendako. Ez da berdina, noski, eta sukaldera buelta bat baino gehiago egin zituzten gazte haiek.

Sasoi horretan Hernanin jende gehiegi ibiltzen den ustea ere eduki izan dut eta zapatuan horren lekuko ere izan nintzen. Arratsalderako, herriko tabernak jendez lepo zeuden, eta taberna inguruan ere beste asko, gurekin batera, eskuan tragoa hartuta. Eskerrak hamarrak eta laurdenetako trena hartu genuen bueltatzeko. Hernaniarrekin ere gogoratu nintzen; eurei galdetu behar nola pasatzen dituzten sagardotegi garaiko asteburuak.

Baina inpresioak inpresio, elegante pasa nuen eguna. Bateko eta besteko, baina badakit hurrengo baten ere joango naizela sagardotegi batera, txuleta gehiago edo gutxiago jatera edo jende artean disfrutatzera edo hernaniarrak gogoan izatera.

5 galdera...

# Aitor Madrid

Kazetaguneko arduraduna
Aretxabaleta

**1. Aste Santua gertu dago eta bidaietan pentsatzen hasi da jendea. Zer eskubide ditugu bidaiari gisa?**
Normalean, bidaia bat egiten dugunean ez dugu kontuan hartzen gauzak gaizki atera daitezkeenik. Adibidez, *overbooking* delakoa gerta daitekeela. Kazetaguneetan *Bidaiari gisa zure eskubideak* ikastaroa ematen dugu, zer eskubide ditugun jakiteko. Besteak beste, Aena eta hegazkin konpainien webguneetan sartzen gara, *overbooking*-a gertatuz gero edo maletak galduz gero zer eskubide eskaintzen dizkiguten jakiteko.

**2. Oporrak hasi aurretik beharrezkoa da, beraz, informatuta egotea...**
Prebentzioa ezinbestekoa da. Askotan joaten gara pentsatzen ez dela ezer gertatu behar, eta gero, pasatzen denean, ez dakigu zer egin. Horregatik, gertatu aurretik begiratzea gomendatzen da. Internet tresna baliotsua da informazioa lortzeko.

**3. Zer egin behar dugu arazoak sortzen hasten direnean?**
Erreklamazio orria bete eta dagokion tokira bideratu behar dugu. *www.kontsumo.net* webgunean xehetasun guztiak azaltzen dira. Maletak galdu edo *overbooking*-a gertatzen bada, adibidez, konpentsazio bat ematera derrigortuta daude. Sarritan ez dugu erreklamatzen ez dakigulako.

**4. Zeintzuk dira gehien urratzen diren eskubideak?**
Koste baxuko enpresetan, *overbooking*-a sarritan izaten da. Hegazkina bete aldera, behar baino txartel gehiago saltzen dituzte eta askotan, hegaldi barik geratzen da jendea.

**5. Hegazkin enpresen kasuan *zerrenda beltza* osatu du Europako Batasunak...**
Hala da. Ondo dago, segurtasun neurri guztiak betetzen dituen edo ez jakin daitekeelako hegaldia hartu aurretik. Hori ere ikastaroan zehar ikusten da.





**GUZTIAK** San Antolingo etxe guztiak bota eta berriak egitea proposatu du Brues enpresa eraikitzaileak. U.M.

**ETXEAK** > BRUES ENPRESAREN PROPOSAMENA

# Zigorrolako auzotarren hiru laurdenak baiezkoa emango lieke etxe berriei

Martitzenean izan zuten azken batzarra 25 atarietako buruek Brueseko ordezkariekin; orain, auzokide guztiekin berba egingo dute enpresakoek

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Martitzenean, hilaren 13an elkartu ziren bigarren aldiz San Antolingo etxeetako 25 atarietako buruak eta Bruesako ordezkariak. Helburua zen Brues enpresa eraikitzaileak egindako eskaintzaren gainean Zigorrolako auzotarren iritzia zein den jakitea eta haien zalantzak argitzea.

San Antolingo etxeetako bizilagun batek GOIENKARIAri jakinarazi dioenez, auzotarren hiru laurdenak ados daude Bruesaren proiektuarekin: hau da, 25 etxeak bota eta berriak egitearekin. "Hori bai, badaude batzuk oso kontra, eta batzarrera eraman zuten Bruesak Barakaldon egindako obra baten informazioa, erakusten hango asko ez zirela batere pozik geratu enpresak egindakoarekin.

**BANKETXEKO ABALA**

Horrez gain, jakinarazi du Bruesakoek gauza garrantzitsu bat eskaini dietela: bizilagun bakoitzarendako banketxeko abal bat, etxebizitzaren balioarekin: "Horrela, gure etxeak botaz gero, eta berriak egiten dabiltzala enpresakoak joan egiten badira, aseguratuta dugu gutxieneko diru kopuru bat". Zehaztu digu abal hori izango dela etxeen lehengo balioaren eta oraingo balioaren arteko kopuru bat, 360.000 euro pasatxokoa. "Horrez gainera, eskaini ziguten etxe bat oraingoa baino zertxobait handiagoa (komuntxo bat gehiago, diote eurek), bospasei metro handiagoa, igogailuarekin eta trastelekuekin. Hori baino etxe handiagoa gura duenak aldea bere poltsikotik ordaindu beharko luke. Eskaini digute, baita ere, oraingo etxeetatik gorde nahi ditugun altzari guztiak gordeko dizkigutela biltegi batean eta gero berriro ekarriko dizkigutela". Etxeokin batera, Bruesen asmoa da garajeak eraikitzea eta baita behebarru komertzialak ere.

Bestalde, bizilagunei agindu diete, baita ere, etxe berria egin bitartean, bizilagunen %80 etxe zaharrean bizi ahal izango dela "eta etxe zaharretik berrira zuzenean pasa ahal izango dela; gainerakoei, ordainduko diete eurek beste nonbaiten bizitzearren ordaindu behar duten errenta edo senideren baten etxera joaten badira, konpentsazio bat".

Datorren astean, berriz, hasiko dira bizilagun guztiekin banan-banan berba egiten.

GOIENKARIAk Bruesara ere jo du informazio bila, baina esan dute guri ezer esan baino lehen, bizilagunekin egon behar dutela. Udaletxera ere jo dugu, baina han ez dute informaziorik.

**MERKATARITZA-GUNEA**> ALEGAZIOA

# Aralarren alegazioa merkataritza-guneari

"Egitamu horrek dituen akats larriak ikusita, ez zen sekula hasierako onarpenera iritsi behar", Aralarren ustez

**U.M.** > ARRASATE

Arrasateko Aralar alderdiak alegazioa aurkeztu dio Zabaletako Plan Bereziari. Plan horrek ahalbidetuko luke Eroskiren ondoan merkataritzagune handi bat eraikitzea.

**BEHARRAK AZTERTU BEHAR**

Hasteko, Aralarkoek merkataritza-guneetako kontsumo mota baztertu egiten dute: "Ez gara halako merkataritza-gune erraldoien aldeko, ezta halakoetan bideratzen den kontsumo motarena ere, kontsumitzea beste arrazoirik ez baita halakoetan nabarmentzen". Hauxe ere gaineratu dute: "Bakarkeria, elkarbizitza oztopatu eta pertsonen arteko harremanak saihestu, automobila ezinbesteko tresna bihurtu eta kaltegarri deritzogun ohitura luzea sorrarazi eta indartu egiten dute merkataritza-gune horiek". Uste dute ezinbestekoa dela "azterketa serioa egitea", besteak beste, ikusteko ea Arrasaten beharrezkoa den halakorik. Eta egitekotan, herri barruan egitea egokiago ikusten dute. Horrekin batera, udal teknikariek Zabaletako plan bereziaren gainean eskatu dituzten xehetasunak "akats zerrenda luzea" direla uste dute.

Horrela, uste dute ez zela plan horren "hasierako onarpenera iritsi behar" eta eskatu dute Udalak Egitamu Berezi hori bertan behera utz dezan.



U.M.

## Markesina berriak Garibain

Garibai etorbideko autobus geralekuak handitu egin dituzte, eta Lurraldebus zerbitzuarekin orain lehen baino autobus askoz gehiago dagoela ikusita, Udalak markesina berriak ipini gura ditu. Noranzko bakoitzean markesina bat gehiago ipini gura du, hain justu ere. Diputazioak dirulaguntza ukatu dio, baina berriro eskatuko du Udalak.

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontratxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82


MENETA taberna
• Eguneroko menua
• Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
• Pintxoak
• Errazioak
Domeka gauetan sukaldea itxita
Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

**ETXEAK** > ERRENTAN EMATEKO 216 ETXEBIZITZA

# Maiatzean adjudikatuko dituzte Zerrajerako etxebizitzen obrak

Gaur egun Eusko Jaurlaritza (Visesa) eraikitzen dabilen etxebizitzen atzeko aldean 216 etxebizitza eraikiko dituzte, garaje eta trastelekuekin; errentan emateko etxebizitzak izango dira



**ATZEAN** Orain eraikitzen dabiltzan babes ofizialeko etxeen atzeko orubean 216 etxebizitza egingo dituzte. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

La Caixak eraiki behar dituen etxebizitzen ezaugarri bertsuak izango dituzte Udalak Zerrajeran eraikitzea onartu dituen etxebizitzok: babes ofizialekoak izango dira, errentan emateko 20 urterako, txikiak, eta 35 urtetik beherako gazteei eta 65 urtetik gorako pertsona nagusiei zuzendutakoak.

Guztira, 216 etxebizitza eraikiko dituzte, garaje eta trasteleku banarekin. Telefonicaren zentralaren eta Visesa eraikitzen dabilen etxebizitzen atzeko orubean eraikiko dituzte.

Bestalde, etxebizitza horietatik zazpi Udalarendako izango dira, herrian sor daitezkeen behar sozialei aurre egiteko (tratu txarrak jasaten dituzten emakumeendako, pobrezia larrian daudenendako…).

Lanon aurrekontua, 4.979.181 euro da. Orain, Udalak lehiaketa abiaraziko du, lanak zeinek egin erabakitzeko. Aurreikuspenen arabera, maiatzean erabakiko dute zeinek eraikiko dituen etxebizitzak. Obrak noiz hasi, berriz, zehaztu barik dago.

**ZAZPI SOLAIRUKOA**

Obra osoak (urbanizazio eta guzti) 60.936 metro koadroko eremua hartuko du. Hortik, etxebizitzek 18.855 metro koadro hartuko dituzte. Behe solairua eta beste zazpi solairu izango ditu eraikinak. Beheko solairuan lokalak egokituko dituzte, jarduera ekonomikoetarako.

**ESKATZAILEEN BETEBEHARRAK**

Babestutako etxebizitza horiek banatzeko lehiaketa antolatuko du Udalak, baina oraindik ez dute zehaztu noiz egingo duten.

Lehiaketan parte hartzeko Etxebiden izena emanda izan beharra dago. Edo, bestela, izena eman behar da Udalak zabalduko duen zerrenda berri baten. Horretarako, derrigor erroldatuta izan behar da iazko urtarrilaren 1a ezkero Debagoieneko edozein udalerritan, Aramaio barne. Arrasaten 20 urtez bizi eta 10 urtez erroldan apuntatuta daudenak ere onartuko ditu Udalak.

Guztien artean, oro har, Arrasaten erroldatuta daudenek lehentasuna izango dute.

Horrez gainera, honako ezaugarriak bete beharko dira: 35 urtetik behera edo 65etik gora izatea eta diru sarrerak 9.000 eta 33.100 euroren artekoak izatea.

Halako etxebizitza bat tokatzen zaionak 20 urterako errentamendua lortuko du. Eta, behin epe hori pasatuta, Udalak edo Jaurlaritzak bereganatu egin ditzakete etxebizitzok. Hori egin ezean, maizterrak berak eros dezake etxebizitza.

EZTABAIDA

## EBren ustez, etxebizitza horiek eskuratzeko baldintzen orria "atzerakoia" da

Ezker Batuak osoko zuzenketa aurkeztu zion puntu horri. Horrez gainera, 19 zuzenketa partzial aurkeztu zituen. Ander Rodriguezek EBren izenean salatu zuen onartutako baldintzen orria atzerakoia dela, zenbait baldintza La Caixari ezarritako baldintzen orritik kopiatuta daudela eta ez dituela kontuan hartzen behar handien dituzten herritarrak, batez ere diru sarreren baremoari dagokionez; baita ere argudiatu zuen udalerriaren lurzoru publikoa pribatizatzearen kontra daudela eta Etxebizitza Sailarekin etxeok eraikitzeko hitzarmena bilatzearen alde egin zuela EBk. Bada, bozketan, EBk, PPk eta Talde Mistoak (6) kontra bozkatu zuten, baina gainerako alderdien (EAJ, EA, Aralar eta PSE-EE) 13 botoekin onartu zen puntua.

**OSOKO BILKURA**

## Udaltzainek beste egoitza bat izango dute

PSEren botoei esker onartu zituzten kreditu aldaketak

**U.M.** > ARRASATE

Eztabaida eta salaketa ugari eragin zituen kreditu aldaketak osokoan. Ezustean, PSE-EEk alde bozkatu zuen, haien esanetan, Udalari gutxieneko jarduna ahalbidetzeko. Oposizioko alderdiek (EB, PP, Talde Mistoa), berriz, kontra bozkatu zuten eta Aralar abstenitu egin zen. Gainera, EBk osoko zuzenketa aurkeztu zion, gogoraraziz oposizioak 2007rako aurrekontu alternatiboa aurkeztu zuela, oposizioko alderdi guztien adostasunarekin. Azkenean, onartu egin zuten zenbait kreditu aldatzea hainbat obra egiteko.

**UDALTZAINGOA, NAFARROARA**

Tartean, Udaltzaingoa Nafarroa etorbidera aldatzeko partida onartu zuten. INEM pareko eraikinera eramango dituzte udaltzainak. Lantaldea nabarmen hazi da eta udaletxeko bulegoa txiki geratu zaie. Obra Sailetik jakinarazi dutenez, proiektua ia eginda dago. Xehetasun batzuk besterik ez da falta. Hori horrela, 15 egun barru behin betiko proiektua aurkeztuko dute.




UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**KULTURA** > KULTURATEREN INAUGURAZIO OFIZIALA

# Herriko bost artistaren lanen erakusketak zabalduko du Kulturate

## Arregi, Goikolea, Landaluze, Lopez eta Riviere arrasatearren lanak jarri dituzte ikusgai Kulturaten

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Kulturate kultura etxe berriaren inaugurazio ofiziala egingo dute, 18:30ean. Arrasateko alkate Inazio Lakuntzak eta Aldundiko diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik esku hartuko dute.

Instalazioak bisitatuko dituzte eta, bide batez, herriko bost artistak jarri duten talde erakusketa zabalduko dute. Hain zuzen ere, honako artisten lanak izango dira ikusgai: Iñigo Arregi, Juan Luis Goikolea, Kepa Landaluze, Melina Lopez eta Iñaki Riviere.

**HERRIKO BOST ARTISTA**

Bostak arrasatearrak dira, eta bakoitzak hainbat lan jarri ditu. Orain dela pare bat urte, Udaleko Kultura Saileko arduradun Jon Garai harremanetan jarri zen Kepa Landaluzerekin, eta bien artean herriko hainbat artistengana jo zuten.

Garairen asmoa zen Kulturate herriko artisten lanekin zabaltzea. Hala, herriko bost artista aukeratu zituzten.

Melina Lopezek alanbre, igeltsu eta egurrarekin egindako eskulturak, zeramikak eta bi dimentsioko margolanak jarri ditu, *Sentsazioak* izenpean.

Kepa Landaluzek, berriz, lan bakarra eraman du *Ker-ker* izenpean. 33 piezarekin osatutako burdinazko eskultura da.

Iñaki Rivierek 15 bat margolan eraman ditu; gehienak azken bi urteotan egindakoak, eta bat oraindik bukatu gabea, egiten dabil-eta. Juan Luis Goikoleak, berriz, 12 margolan batu ditu askotariko desberdinak erabilita.

Horrez gain, Iñigo Arregik hamar eskultura eta lau margolan jarriko ditu. Hortaz, bostak ere artista esanguratsuak dira.



**AZKEN UKITUAK** Melina Lopez 'Sentsazioak' izeneko lan bildumari azken ukituak ematen. IKER BARANDIARAN



**LEHIAKETAREN IRABAZLEA** Argazkian, Francisco San Miguelen lana. UDALA

**HIRIGINTZA** > BITERI PLAZAKO ESKULTURAK

# Kooperatibismoaren gaineko eskultura jartzeko lanak

## Kooperatibismoaren gaineko eskultura jartzeko oinarria prestatuko dute berehala

**I.B.**> ARRASATE

Asteon, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du Biteri plaza berrian kooperatibismoaren gaineko eskulturaren oinarriak jartzeko lanak hastea.

Biteritik Maalara jaisteko maldaren alboko berdegunean jarriko dute eskultura. Francisco San Miguel arabarrak irabazi zuen lehiaketa.

**BITERIREN ESKULTURA**

Hainbat herritarrek Biteriren eskultura plaza horretan jartzea eskatu zuten. Horren harira, Inazio Lakuntza alkateak argitu digu bere asmoa dela Biteriren eskultura Gazte Buleoaren alboan jartzea. Hala ere, horren aurretik Mendi tabernako etxearen lanak bukatu beharko dituztela azaldu du.

**MUSIKA** > GOIKOBALU ABESBATZA

# Goikobalu abesbatzak egoitza propioa eskuratu du

## Egokitze lanak egingo dituzte, eta apirilean hasiko dira etxabean entseatzen

**I.B.**> ARRASATE

Goikobaluko kideak pozarren daude. Ez da gutxiagorako; izan ere, 1989an abesbatza sortu zutenetik ez dute orain arte egoitza propiorik izan. Orain arte beste batzuen lokalak erabili dituzte, eta entsegu ordutegiak mugatuta izan dituzte.

Otsailaren hasieran alkatea eta Udaleko alderdi politikoak batzar batera deitu zituen Goikobaluk.

**ZERRAJERAKO ETXABE BAT**

Hala, alkateak agindu zien Zerrajerako etxabe bat utziko ziela. Eta, hain zuzen, egoitza hori behin-behinekoa da, Udalak Saiolango Musika Etxea noiz egingo duten zain daudelako.

Etxabeak 180 metro koadro ditu, eta lau gelatan banatuko dute: hiru txiki ahotsetarako eta handia, berriz, entsegu orokorretarako.







UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04


GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950 • 2007 ARRASATE
ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA
ETXE MOBEL
ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE
ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA
ARKAUZ
MUEBLES
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA
Lagunen aurrean ederto gelditu nahian?
Har ezazu lasaitasun!
Arkauz etxeak eskainitakoarekin txundituta geldituko dira.
Arkauz zure etxea da.


Lirainen, arrazoi ugari dituzu irribarre egiteko
Profesionaltasuna
8 profesional zure esanetara
Zure beharretara egokitutako debaldeko diagnostikoak
Diagnostiko pertsonalizatuak
Emaitzak
Emaitzen bermea
Teknologia aurreratuena
Orratz gabeko mesoterapia
Oxigenoterapia
Berritzaile zelularra
Eskaintza bereziak
Apirilaren bukaera arte
%20ko deskontua
gorputz tratamenduetan
LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA
Bixente ferrer, 1 Tel.: 943 79 52 17

> ATLETISMOA

## Lander Errastik 4,40 metroan ezarri du marka

Arrasateko pertika jauzilariak marka ederrarekin esan dio agur pista estaliko denboraldiari, zapatuan 4,40 metroko saltoa egin zuen-eta –4,35 metro zuen marka onena–. Errastik jarraipena eman gura dio gorputzaldi on horri, maiatzean hasiko du-eta aire zabaleko denboraldia.

Bestalde, domekan infantil mailako Gipuzkoako Txapelketa egingo dute Lasarten.

> URPEKARITZA

## Ikastaroa antolatu dute, eta apirilaren 16an hasiko da

AUKEAk urpekaritza ikastaroa antolatu du, Musakolako kiroldegian egiteko. Bost eskola teoriko izango dituzte, eta lehenengo praktikak igerilekuan egin eta gero, Getarian egingo dituzte beste lau saio, itsaso zabalean. Gainera, ikastaro horrekin nazioarteko urpekaritza titulua eskuratzen da. Informazioa *www.ksub.net*-en edo 627 930 330 telefono zenbakian.

> ESKUBALOIA

## Ford Mugarrik Lea Corazonistas hartuko du Iturripen

Liderraren kantxan gutxigatik ez zuen eman ezustea Ford Mugarrik, partidu amaieran 30-28 erakusten zuen-eta Elgoibarko markagailuak.

Bihar, berriz, laugarren sailkatuta dagoen Lea Corazonistas talde gasteiztarra izango da Iturripen (17:45). Gasteizen jokatu zutenean 36-34 nagusitu zen Corazonistas, eta horri buelta eman guran daude Arrasatekoak.

**SASKIBALOIA** > LEHENEGO MAILA, IGOERA FASEA

# Mugarri Alkesa, joan den urtekoa errepikatzeko aukera guztiekin

Zurututzaren mutilek igoera faseko bigarren itzuliari ekingo diote bihar Durangon. Baskonia da, baina, kontrario zuzenena

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Mugarri Alkesako mutilek zortzigarren postuan dagoen Tabirako Baque talde bizkaitarra izango dute bihar zain (19:00, Durango). Sailkapenak talde hori atzean dagoela erakusten du, baina joan den urtean Arrasatekoei irabazteko gauza izan ziren, eta ezustea ematen abilak direla erakutsi.

Orain momentuan hirugarren dago Mugarri Alkesa, baina aurretik dagoen Urdanetak partidu bat gehiago jokatu du, eta, berez, Arrasatekoek dute abantaila: "Urdaneta baino gehiago, Baskonia da gure benetako kontrarioa, garaipen kopuru bera dugu-eta. Dena dela, oraindik talde horren kontra jokatu behar dugu, eta hori izango da norgehiagoka erabakigarria", esan digu Jagoba Gamarra taldekideak. *Zuru*-ren mutilek, baina, ondo dakite kontrario zuzenekin kontuak egiten hasi aurretik gainontzeko partiduak ere irabazi egin behar dituztela: "Gainera, bigarren itzulian bi partidu bakarrik jokatuko ditugu etxean eta lau kanpoan. Hemen inork ez du ezer opari egiten, baina, hanka-sartzerik egiten ez badugu, irabazteko moduan egongo gara".

Ondo bidean, Mugarri Alkesak joan den urtean egindakoa errepika dezake: "Jokalariak motibatzeko ondo etortzen da hori". EBArako igoera fasera bidean, bada; pausoz pauso, baina.



BESAIDE MTB

## Bizikletan lehenengo irteera, Oiartzun aldera

Besaide MTB taldeak martxoaren 24rako antolatu du denboraldiko lehenengo irteera, Oiartzun ingurura. Hala, Aiako harrietatik pasa barik, ondo-ondotik egingo dute mendi zeharkaldia. Arantzan hasiko dira bizikletan, eta Izura igo eta gero, Artikutzako mugetatik Bianditzeraino egingo dute, handik Oiartzunera jaitsiera ederra egiteko (25 km).

Datorren astelehena, hilak 19, eta martitzena, hilak 20, dira izena emateko egunak, 19:30etik 20:30era, Besaideko lokalean (943 77 30 66).

**futbitoa zaldibar**

**PARTIDUAK**

| Martxoak 17, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **10:00** Abokajarro-Iturriotz Tab. | **Cicatrus** |
| **11:00** Cicatrus-Lasagabaster | **Abokajarro** |
| **12:00** Manhattan Pip.-Cipris | **Lasagabaster** |
| **13:00** McAuen Dauen-HLB 108 | **Cipris** |
| **16:00** THC-AT Celaya | **Equs** |
| **17:00** Equs-Dublin Irish Pub | **AT Celaya** |

| Martxoak 18, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** Iluntz-Iriztu Taberna | **OMU Dribling** |
| **12:00** OMU Dribling-Betrayer | **Iriztu Tab.** |
| **13:00** Saukelu Abian-Billy & The. | **Betrayer** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Saukelu Abian | 34 | 13 |
| **2.** | AT Celaya | 32 | 13 |
| **3.** | Dribling | 31 | 13 |
| **4.** | Betrayer | 26 | 12 |
| **5.** | Iluntz | 26 | 13 |
| **6.** | Cipris | 23 | 13 |
| **7.** | Iriztu Taberna | 21 | 13 |
| **8.** | HLB 108 | 21 | 13 |
| **9.** | Abokajarro | 20 | 13 |
| **10.** | Lasagabaster | 20 | 13 |
| **11.** | Manhattan Pippol | 17 | 13 |
| **12.** | McAuen Dauen | 14 | 13 |
| **13.** | Iturriotz Taberna | 13 | 13 |
| **14.** | Dublin Irish Pub | 12 | 12 |
| **15.** | Billy & The Cowboys | 10 | 13 |
| **16.** | Equs | 6 | 13 |
| **17.** | Cicatrus | 6 | 13 |
| **18.** | THC | 4 | 13 |

## Oraingo asteko zigortuak: Pippol eta Saukelu Abian

Bi talde horiek zigortu dituzte Zaldibarko antolatzaileek, edo, zehatzago izateko, bi talde horietako jokalari bana. Lehenengo taldearen kasuan, jokatzen ez zegoen jokalari bat kantxa barrura sartu eta kontrarioari bultza egiteagatik zigortu dute. Jokalari horrek bi partidu egingo ditu txapelketatik kanpo. Horrekin batera, antolatzaileek lasaiago ibiltzeko ohartarazi dituzte. Saukelu Abian taldearen kasuan, lehenengo dagoen taldeak daukana ematen du hor jarraitzeko. Baina, batzuetan pasatu egiten dira; euretako batek epailea iraindu zuen.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Kanpotarrak Arrasaten

**Jimmy Alonso Alvarez** > Ikertzaile judiziala
Arrasaten bizi da

# "Hasieran, zegoen jende nagusi mordoak harritu ninduen"

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

**28 urte ditu Jimmy Alonso kolonbiarrak. Arrasateko txoko guztiak ezagutzen ditu, azken sei urte eta erdi hemen eman ditu-eta. Kriminologia ikastera etorri zen, baina garestiegi ateratzen zitzaion eta sukaldari lan egiteari ekin zion.**

Jaioterriaz "munduko hiririk onena" dela eta jendeak "uste bezain arriskutsua" ez dela adierazi du. Medellin hiriari buruz ari da. Ez du "antzekotasunik" ikusten haren eta Arrasateren artean. Kultura eta gizartea ez ezik, ordutegia eta klima ere erabat ezberdinak direla esan du. Azken horren harira, Medellinen "beti udaberria izango balitz bezala" dela gaineratu du.

Ibarrera iritsi zenean, arratsaldeko lehen orduetan kalean "inor" ez ibiltzea arraroa iruditzen zitzaiola dio. "Nire hirian egun osoan aurki daiteke norbait", azpimarratu du. Horretaz gain, "zegoen jende nagusi mordoak ere harritu ninduen", esan du. Horretan aldaketa "itzela" igarri duela dio Alonsok. "Orain askoz ume gehiago daude. Jaiotzak nahiko igo dira", adierazi du.

**"Oso ondo moldatzen naiz; koadrila daukat, hemengo jendez osatua. Ondo hartzen naute eta pozik nago"**


Urteak daramatza Alonsok ibarrean.

**LEHEN ETORKINAK**

Kolonbia utzi zuenean Arrasaten jarri zen bizi izaten. Lagun batekin etorri zen, ama zuen hark. Ibarrera iritsitako lehen etorkinak zirela gogorarazi du.

Ez du familiarik hemen, Medellinen jarraitzen du. Hori, edozelan ere, ez da arazo: "Oso ondo moldatzen naiz", dio. Hasiera baten euskaldunak "itxiak" direla baieztatu badu ere, denborak aurrera egin ahala lagunak egin ditu eta "orain koadrila eta guzti" dauka, "bertako jendez osatua".

Adiskide eta lankideekin "zortea" izan duela esan du kolonbiarrak: "Ondo hartzen naute, eta pozik nago". Iaz, Aste Santuan, lagunekin Medellin bisitatu zuen, "munduko hiririk onena dela ikus zezaten".

argazki zaharra

# Duela mende bateko Biteri etorbidea

XX. mendearen hasierako irudi honek orduko Biteri etorbidea erakusten du. Herritarren joan-etorriaren bide nagusia zen urte haietan, hirigunea eta tren geltokia lotzen zituen-eta.

1902. urtean Pedro Biteriri esker sortu zen eskola ere ikus daiteke argazkiaren eskuma aldean. Horrek emandako 200.000 pezetekin eraiki zuten ikastetxea.

Aldaketa nabarmena igarri du ordutik hona Biteri etorbideak. Azkenaldiko lanen eraginez, arrasatear guztien gustuko ez den itxura du.

**Argazkia:** Valeriano Martinez.
**Testua:** Mirian Biteri
**Urtea:** XX. mendearen hasiera.



bere ustez


Oihan Zubizarreta

## Txikitasunak munduari biraka

Munduko gertaera handiek gure egunerokoan dituzten islei begira nago. Zenbat notizia eta zenbat argazki. Munduari bira ematen diote eta gurean ere bere arrastoa uzten dute.

Egunerokoari loturiko bizimodura kondenatzen gaituzten honetan, hipotekak, autoak, etxebizitzak edo aisialdi baten bilaketa itsuak estaltzen dizkigu isla horiek, gure zilborraz haratago begiratzea debekatuz. Eta gurean ere ematen diren gertaera handiek munduari bira eman diezaioketela ere ikusten dut argazkiotan.

**"Gorputz horren itzalean ikusi ditut duintasuna, borroka eta bizitzeko indarra"**

Bahiturik dagoen gorputz biluzi baten argazkia, hilotz batena, munduari biraka. Eta gorputz horren itzalean ikusi ditut duintasuna, borroka eta baita bizitzeko indarra ere. Gurean bizi dugun zurrunbilo politiko-intoxikatu honetan, asmo ezkutuek bultzaturiko politikari ustelen aurreko irakurketa berri bat eta herritarrontzako irakasgai handia.

Eta itzalaren arrastoari jarraika, gure eguneroko txikitasunak ikusi ditugun pertsonak, borrokalariak eta duinak, preso politikoak, herritarrak... mundu osoari biraka, etorkizuna borrokaz irabaztera dei eginez.

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Garagardo ona, giro hobea
TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**ZERBITZUAK** > MAIATZEAN ZABALDU NAHI DITUZTE

# Bainuetxeko eta kanpoko zelaiko lanak aurrera doaz Agorrosinen

Hiru sauna eta ur hotzeko eta beroko bi putzu egongo dira bainuetxean

Kanpoan komunak eta dutxak jarriko dituzte eta sarrera zuzena egongo da tabernara



**ZELAIA** Karpa zuriaren azpian egondako igerilekua apurtu eta estali egingo dute zelaia egiteko. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Aurrera doaz Agorrosingo bainuetxearen lanak. Baita kanpoko zelaiarenak ere. Maiatzerako bukatu nahi dituzte, eta horretan ari dira hainbat langile. Bi proiektu horiekin, bukatuta egongo dira Agorrosingo lehen faseko lanak.

**HIRU SAUNA ETA UR TXORROAK**
Agorrosingo sarreratik sartu eta ezkerretara egongo da spa edo bainuetxea. Aldagelak pasatu, eta plaza karratu baten itxura dauka saunak eta ur txorrotak dauden guneak.

Plazaren erdian lau sentsaziodutxa egongo dira; bakoitzak gorputzeko atal batera botako du ur txorrota, batzuek beste batzuek baino presio handiagoarekin. Dutxetara bidean hiru sauna egongo dira: alde batean sauna lehorra eta beste aldean sauna hezea eta frigibariuma, sauna hotza. Erdiko dutxak pasatu ostean, berriz, bi ontzi egongo dira urez beteta. Bietako txikienak ur hotza izango du eta handiak, ur beroa; 33-34 gradu inguruan egongo da. Putzu handi horrek hiru eremu izango ditu: ur txorrotak lepora botako duten gunea, ur burbuilaz inguratuta eserita egoteko gunea eta putzuaren erdian, etzanda egoteko hiru ohe. Horrez gain, lasaitzeko gune bat eta Santio Bidea izeneko ibilbide motz bat ere egongo dira bainuetxean. Ibilbide horretan harri-koxkorrak egongo dira, eta oinutsik egin behar da. Bidean, ura aterako da izkinetatik.

Bainuetxeko ur ontzien berezitasuna izango da ura bromoarekin desinfektatuko dutela kloroa erabili ordez. Bestalde, bainuetxera joateko bazkide egin beharko da. Agorrosingo bazkideak direnak bakarrik sartuko dira, ez Debagoienekoak.

**DUTXAK ETA KOMUNAK KANPOAN**
Kanpoko zelaiko planoak ere eginda daude. Barrutik kanpora joateko bi pasabide egongo dira igerileku handitik. Kanpoan espaloia egongo da lehendabizi eta parean zelaia, berdegunea. Espaloiaren mutur batean komunak eta dutxak egongo dira eta bestean, tabernara zuzenean joateko bidea. Zelaia egiteko, baina, Agorrosin egin aurretik karpa zuriaren azpian zegoen igerilekua apurtu eta estali egin behar dute. Karpa zuria Labegaraietara eramango dute, han dagoen tenis pista estaltzeko. Horrez gain, igerileku hori zabalik zegoenean aldagela moduan erabiltzen ziren txabolak ere Labegaraietara eramango dituzte biltegi moduan erabiltzeko eta, besteak beste, Beti Busti elkartekoek materiala gordetzeko; izan ere, bota egin behar dute orain Udalak auzo hartan duen biltegia. Zelaian ez da hamakarik egongo. Lurra prestatuko dute, etorkizunean beste instalazio bat egin behar badute ere, orain artekoa erraz altxa dezaten.

**EPEAK ETA AURREKONTUAK**
Esan bezala, maiatzerako bukatu nahi dituzte bai bainuetxeko bai zelaiko lanak. Kirol teknikari Unai Asurmendik esan duenez, hala ere, "ekainerako bukatuta egongo dira. Berdegunea, adibidez, ekainaren 16ko asteburuan zabalduko dugu, uda sasoirako. Ekainetik irailera egongo da zabalik kanpoko eremua, 10:00etatik 20:00etara". Aurrekontuei buruz galdera eginda, hauxe erantzun du Kirol teknikariak: "900.000 euro inbertituko ditugu bainuetxea egiteko eta beste 600.000 euro inguru, berdegunea egokitzeko". Egun, 2.300 bazkide ditu Agorrosin kirolguneak. Asurmendik adierazi duenez, ikastaroetara jende asko joaten da.



**BAINUETXEA** Putzu handian, firu gune egiten dihardute. O.E.





**PREBENTZIOA** > ESKUORRIAK ETA BIDEOA ATERA DITUZTE ARRISKUEZ OHARTARAZTEKO

# Drogen eta lan arriskuen prebentzioaren arteko lotura erakutsi dute

Ohartarazi nahi dute lan arriskuak gehitzen direla drogen ondorioz eta eskatzen dute kontsumo arduratsua

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Drogen arriskuak prebenitzeko proiektu bat egin dute. Udaleko Ongizate Sailak, drogen mendetasunen prebentziorako Udaleko sailak eta Miguel Altuna institutuak egin dute proiektu hori elkarrekin. Helburua da drogen kontsumoak lan arriskuan izan dezakeen eraginaren gainean informazioa ematea.

**ESKULIBURUA ETA BIDEOA**

Arantzazu Amasorrainek, Ongizateko zinegotziak, azaldu duenez, "drogak hartzeak dituen arriskuak eta lan arriskuak, biak batera aztertu nahi ditugu proiektu horretan". Horretarako, Miguel Altuna institutuarekin eta Sasoia enpresarekin batera eskuorri bat eta hamar minutuko bideo bat prestatu dute. "Bi euskarri horietan datorren informazioa da: zeintzuk diren drogen eraginak eta ondorioak, batez ere langileengan, eta enpresan lan prebentzio programa bat izateak zein onura ekarriko dizkien langileei", azaldu du Arantzazu Loidik, drogen mendetasunen prebentziorako udal teknikariak.

Proiektua egiteko ikasleengan oinarritu dira, ez enpresetan. Horrela, ikasleen eta ikastaroetara doazenen artean banatuko dituzte eskuorriak. Juan Carlos Arellanok, Miguel Altunako segurtasun arduradunak, esan duenez, "bide batez, gogorarazi nahi diegu ikasleei lanpostua gal dezaketela drogak arduragabe kontsumitzeagatik". Azken finean, ikasleei mezu hau eman nahi diete proiektuaren arduradunek: batetik, droga guztiek ondorioak dituztela eta lan arriskuak gehitu egiten direla, eta, bestetik, drogak hartu behar badira kontsumoa arduratsua izan dadila. Prestatu duten bideoa udal webgunean sartu dute.



**PROIEKTUA** Arantzazu Loidi, Arantzazu Amasorrain eta Juan Carlos Arellano proiektua prentsaurrekoan aurkezten. O.E.




**UMEAK** Bi hilabetez egongo dira Saharako umeak gurean. BUBISHER

**ELKARTASUNA** > UZTAIL ETA ABUZTURAKO

## Saharako umeak ekartzeko dei egin du Bubisherrek

7 eta 12 urte bitarteko ume sahararrak ekarri nahi dituzte, uda hemen pasa dezaten

**O.E.** > BERGARA

Bergarako Bubisher elkarteak deia zabaldu nahi du datorren udan Saharako umeak etxean hartzeko. 7 eta 12 urte bitarteko umeak ekarri nahi ditu Bubisherrek udako bi hilabeteak Bergaran pasatzeko, uztaila eta abuztua. Joan den urtean bederatzi ume ekarri zituzten Antzuolara eta Bergarara.

"Aurtengo udarako, Antzuolako bi familiak eta Bergarako bostek dagoeneko esan digute Saharako ume bana hartuko dutela", esan du Bibi Andueza Bubisherreko kideak. Elgetako Udalak ere esan dio Bubisherri ume batendako dirulaguntzak emango dizkiola. Interesatuak zenbaki honetara dei dezake edozertarako: 670 41 76 07.

> JARDUN

### Martxoaren 23an egingo du aurtengo kantu afaria Jardunek, Artatse elkarte gastronomikoan

Hilaren 23rako antolatu du aurtengo kantu afaria Jarduneko gazte taldeak. Artatse elkartean egingo dute eta euskal kantuak abestuko dituzte, trikitilariek lagunduta. Aurtengo afaria, gainera, Korrika Kulturalaren barnean sartzen da. Kantu afarirako txartelak Pol-Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan eta Jardunen egongo dira salgai, 12 eurotan bazkideendako eta 15 eurotan besteendako.

> IKASTAROA

### 0 eta 1 urte bitarteko umeendako masaje ikastaroa antolatu dute Aranzadik eta Haurtxoak

Umeendako masaje ikastaroa antolatu dute Aranzadi ikastolak eta Haurtxoa haurtzaindegiak. 0 eta 1 urte bitarteko umeei masajeak nola eman ikasteko ikastaroa izango da. Apirilean eta maiatzean emango dituzte ikastaroko eskolak. Interesa duenak martxoaren 19tik 30era du izena emateko epea. Bestalde, gatazken eta zigorren inguruko tailerra ere emango dute Aranzadin. Hiru ekimenak aurkezteko bilera hilaren 28an egingo dute.



POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

**LITERATURA** > KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETA

# Literatura lehiaketaren 22. ekitaldia

## Apirilaren 20an bukatuko da lanak entregatzeko epea, eta sariak ekainaren 2an emango dituzte

**JOKIN ETXEBARRIA** > BERGARA

Koldo Eleizalde 22. literatura lehiaketa deitu du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Lehiaketa horretan, Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek har dezake parte, bakarka zein taldeka. Lau generotan banatzen da lehiaketa: ipuin idatzia, ipuin kontaketa edo antzerkia, bertsoak eta komiki zinta. Azken bi horietan eta 1991 aurretik jaiotakoen sailean Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du.

**LANAK AURKEZTEKO MODUA**

Lanak gutun-azal handi batean bidali edo entregatu beharko dira Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan. Gutun-azalaren kanpoko aldean honako hauek idatzi beharko dira: *Koldo Eleizalde Lehiaketa* izenburua, lanaren generoa (ipuina, bertsoa...) eta zein sail edo taldetakoa den.

Gutun-azal handi horretan, berriz, sartu beharko dira lanaren bi kopia. Bestalde, lanean ez da egilearen izenik jarriko, eta horren ordez goitizen bat jarriko da. Hori bai, gutun-azal handiaren barruan sartu behar da txiki bat, egilearen goitizenarekin eta honen barruan egilearen datuak jarri beharko dira. Saritutako lanak Bergarako Udalaren esku geldituko dira.

Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 20ra arte dago zabalik. Sariak, berriz, ekainaren 2an, zapatuan, emango dituzte, Bergarako Zabalotegi aretoan, eguerdiko hamabietan. Informazio gehiago jasotzeko, 943 77 91 79 telefonora edo *ljimenez@bergara.net* helbidera jo dezakezue.



**SARIAK** Ekainaren 2an banatuko dituzte sariak. Argazkian, iazko irudi bat. GOIENKARIA


GOIENKARIA

## Martxoaren 21ean hitzaldia egingo du Juan Madariagak

Martxoan zehar egongo diren kultura ekitaldien barruan eta Bergarako Udal Artxiboak antolatuta, Juan Madariagak faxismoa eta haren ezaugarriak zer-nolakoak izan ziren azalduko du hitzaldi batean. Hain zuzen ere, *Los años de la autoridad y el orden: los fascismos* lelopean, gazteleraz egingo du hitzaldia Madariagak. Martxoaren 21ean, eguaztenean, izango da Migel Altuna Institutuan, arratsaldeko sei eta erdietan. Sarrera doan izango da.

> IKASTAROAK

### Olio dastatze ikastaroa egingo dute martxoaren 28an eta 29an kultura etxean

Blas Melgarejo eta Andres Martos olio egileek eta Sierra Maginako kontseilu erregulatzailearen partaideek olio dastatze ikastaroa emango dute martxoaren 28an eta 29an kultura etxean. 19:00etatik 21:30era izango da eta sarrera doan da.

> GAZTETXEA

### 'BAP!! bai, ederki' Joxi Ubedaren liburuaren aurkezpena egingo dute eguenean gaztetxean

Joxi Ubedaren *BAP!! bai, ederki* liburuaren aurkezpena egingo dute eguenean, martxoaren 22an, gaztetxean, 19:30ean. BAP!! taldearen historia eta garaiko kronikak jaso ditu Ubedak. Astindu fanzineak eta Isiltasuna apurtzen proiektuak antolatu dute eguneko ekitaldia. Hainbat bideo ere egongo dira ikusgai.

> ANTZERKIA

### 'Nork dio euskaldunok ez dugula umorerik?' lelopean umore gaua egongo da gaur Pol-Polen

Zerbait barregarria kontatzeko duen edonork 22:30ean hasiko den lehiaketan parte har dezake. Horren harira, txiste kontalari bat, bakarrizketari bat eta antzerki talde bat ere egongo dira, lehiaketatik kanpo, umore gauean.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09




# INFORMAZIO OHARRA:

Strac Fitness SL enpresak, Estatuan Spinning®, Spin® eta Spinner® marken lizentzia duenak, honakoa argitu eta jakinarazi nahi du:

Espainian eta nazioartean balioa duten Spinning® prestakuntza ikastaro ofizialak Spinning® programako Master Instructores taldeko irakasleek baino ezin dituzte eman, Strac Fitness SL enpresaren oniritziarekin eta hura jakinaren gainean egonda; irakasle horiek Mag Dog Athletic-eko prestakuntza izan dute.

Prestakuntza ikastaro horiek Spinning® zentro ofizialetan bakarrik eman ahal izango dira, Star Stranc enpresako Spinner Bikes bizikletak eta ikastaroak emateko baimendutako irakasleak dituztenak.

Gaur egun, Euskal Herrian hainbat instalazio ofizial ditugu, eta denek betetzen dituzte baldintza horiek; horietako bat da Bergarako **Giartzu gimnasioa**. Bertan, hiru irakasle ofizial eta Spinning®-eko materiala oso-osorik aurki daiteke.

Garbi geratzen da, beraz, aipatutako guztia betetzen ez dituzten ikastaroak ez direla ofizialak eta legez kanpokoak direla erabat.

Begirunez,

Eva Garcia
Prestakuntza eta Ekitaldietako zuzendaria
Master Instructor Spinning®

SPINNING

STAR TRAC
Designed to inspire

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA

# Bergarak Bizkaiko txapelduna hartuko du

Josetxo Muniategiren mutilek Urdulizen kontra jokatuko dute Euskadiko Txapelketako igoera faseko lehenengo jardunaldia



**IGOTZEKO ASMOZ** Bergarakoendako orain hasiko da benetako lehia. X.U.

**XABIER URTZELAI**> BERGARA

Deskantsurako tarte barik, Gipuzkoako Txapelketan nagusitu eta Bergarakoek segidan hasiko dute Euskadiko Txapelketarako igoera fasea. Hala, mahoneroek Arabako El Pilar (Gasteiz), Gipuzkoako Usurbil eta Bizkaiko Urduliz, Urdaneta (Loiu) eta Gaztelueta (Leioa) taldeen kontra neurtu beharko dituzte indarrak fase horretan.

**BIZKAIKO ONENAREN KONTRA**

Aurreratu moduan, oraingo asteburuan ekingo diote erronka berriari; eta Bizkaiko txapelduna izango dute bisitan: "Gipuzkoan eta Bizkaian lehenengo sailkatu garenok egongo gara aurrez aurre, eta norgehiagoka hori non gauden jakiteko ondo etorriko zaigu", esan digu Josetxo Muniategik, Bergarako entrenatzaileak.

Gipuzkoako Txapelketan ondo ezagutzen zituzten kontrarioen kontra jokatu eta gero, orain erreferentzia gutxiago dituzten taldeak izango dituzte aurrean: "Badakigu Bizkaiko taldeek eskubaloi klasikoa egiten dutela. Indarrean oinarritzen da haien jokoa, eta jokalari beteranoagoak dituzte. Guk horren kontra egin beharko dugu: azkar jokatu, kontraerasoan, eta erritmo horri azkenera arte eutsi behar diogu". Muniategiren esanetan, alde horretatik abantaila daukate: "Talde askok zazpi-zortzi jokalari erabiltzen dituzte gehien, eta azken minutuetan talde horiek behera egiten dute. Guk lortu dugu hamalau jokalarirekin taldearen mailari eustea, eta, horri esker, partidu amaieran besteak baino freskoago egoten gara, minutuak banatuago egoten dira-eta".

**TXIRRINDULARITZA**

# Xabier Arantzetak ondo hasi du denboraldia

Lokatzako kadete mailako ziklista Beasaingo proban gailendu da

**X.U.** > BERGARA

Lokatza taldean dabilen Xabier Arantzeta antzuolarrak indartsu hasi du denboraldia, urteko lehenengo lasterketa irabazi egin du-eta. Kadete mailako proban, sei lagunez osatutako txirrindulari taldeak atzean utzi zuen tropela, eta Lierniko maldetara iritsitakoan erakutsi zuen Antzuolakoak indartsu dagoela. Inork eutsi ezin zuen erritmoarekin hasi zen aldapa gora, helmugara iritsi arte. Oraingo domekan Eibarren izango dute lasterketa.





NERITZEL ALBISUA

# Argazkikoek 2.632 kilometro dituzte aurretik

Martxoarekin batera ibarreko zikloturistak irteerak egiten hasi dira. Hala, martxoko aste bukaera guztietan inoiz baino bizikletazale gehiago ibili dira errepidean, nahiz eta, egin duen eguraldia lagun, neguan ere jende asko ibili den kirol hori egiten. Bada, Bergarako Txirrindularitza Elkartekoek behar den moduan hasi dute denboraldia, Dorletatik itzulia eginda. Hori horrela, martxoaren 4an zikloturisten Ama Birjinari lore eskaintza egitera joan ziren erretratuan azaltzen diren lagunak. Orduan 50 kilometroko ibilbidea egin zuten (Bergara-Dorleta-Bergara), eta joan den domekan 68 kilometro egin zituzten. Oraingo domekarako, berriz, 70 kilometro egitea aurreikusten dute (Bergara-Elgoibar-Deba-Itzar-Deba-Elgoibar-Bergara). Urri amaierara arte, domekero irtengo dira. Guztira, 2.632 kilometro dituzte zain.

**labegaraieta**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Niu Tim - Irubide | **15-3** |
| Belengua-Altospornos | **3-15** |
| Tiki Taka - Teatekh | **0-3** |
| Komando Piperrak-Irish Pub | **1-9** |
| Tornilleria Deba - CM Errotagain | **Atzeratua** |

**PARTIDUAK**

**Martxoak 18, zapatua (kanpoan)**

| | | |
|---|---|---|
| **11:00** | Niu Tim - Irish Pub | **Altospornos** |

**Martxoak 19, domeka**

| | | |
|---|---|---|
| **09:30** | Tiki Taka - CM Errotagain | **T.Deba** |
| **10:30** | Torni. Deba - CM Errotag. | **K.Piperrak** |
| **11:30** | Irubide - K.Piperrak | **CM Errot.** |
| **16:30** | Torni.Deba - Niu Tim | **Belengua** |
| **17:30** | Irish Pub - Belengua | **Teatekh** |
| **18:30** | Teatekh - Altospornos | **Irish Pub** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | CM Errotagain | 42 | 14 |
| **2.** | Niu Tim | 39 | 14 |
| **3.** | Teatekh | 30 | 15 |
| **4.** | Altospornos | 27 | 15 |
| **5.** | Tiki Taka | 21 | 15 |
| **6.** | Irish Pub | 18 | 14 |
| **7.** | Irubide | 12 | 15 |
| **8.** | Belengua | 9 | 15 |
| **9.** | Komando Piperrak | 9 | 15 |
| **10.** | Tornilleria Deba | 3 | 14 |
| **11.** | Azkenak | 0 | 0 |

## Hiru jardunaldiren faltan, inork ez du amore emango

Aurtengo Liga Txapelketa amaitzeko ez da asko geratzen, hiru jardunaldi baino ez. Eta, sailkapenak erakusten du bi talde dabiltzala nor baino nor gehiago lider izateko lehian.

Hori horrela, oraingo asteburua erabakigarria izan daiteke, Niu Timek eta CM Errotagainek norgehiagoka bat gutxiago jokatu dute-eta. Asteburuan bi partidu jokatuko dituzte, eta astindu horri ondoen erantzuten dionak hartu dezake aurrea. Atzeratutako bi partidu horien harira, Niu Tim eta Irish Pub taldeen arteko lehia epaileak azaldu ez zirelako atzeratu zen. Hala, Gipuzkoako areto futbol federazioari galdetu eta gero, egun hartan jokatzera azaldu ziren jokalariek bakarrik jokatu ahal izango dute. Irish Pub taldetik jokalari hauek jokatuko dute: Juan Jose Castro, Enrike Diaz, Mikel Elkorobarrutia, Eneko Gutierrez, Oscar Ortiz, Gorka Otxoa, Jose Pescador, Jesus Mari Roman, Luis Carlos Ruiz de Eguino eta Pedro Sanchez.

Niu Timek, berriz, Julen Aranburu, Iñaki Corral, Ander Elkorobere-zibar eta Miguel Angel Sanchez jokalariekin jokatuko du. Aukeran, jokalari gutxi dira horiek, horren norgehiagoka erabakigarriari aurre egiteko.

**nire bidaia hura**

## Jabier Gonzalez

Danimarka eta Norvegia > 2006ko abuztua

# "Fiordoak ikusi nahi dituenak mendia izan behar du gustuko, oso menditsuak dira-eta"

MIRIAN BITERI> BERGARA

**Danimarkan eta Norvegian egon zen Jabier Gonzalez iaz, udan. Hala, Kopenhagen egon ondoren, fiordoak eta Oslo bisitatu zituen Nerea Lete emaztearekin. Norvegiako hiriburuko neska-mutilen edertasunak txunditu utzi zuela ziurtatu du. Bidaia berriro egiteko gogoz dago.**

Astebeteko itsas bidaia egitea pentsatuta zuten arren, azkenean egun pare bat lehenago Danimarkara abiatzea erabaki zuten, Kopenhage ezagutzeko. Han bizikletak edonon aurki daitezkeela azpimarratu du: "Beste ohitura bat daukate, eta hotz handiagoa eta euri gehiago egiten duen arren, jendeak bizikleta erabiltzen du", dio. Gonzalez eta Lete ere bizikletan ibili ziren hiriko burtsa, liburutegia eta Sirenatxo ospetsua ikusteko.

Itsas bidaiaren lehenengo geldiunea Norvegiako Flam-en izan zen. Mendiz eta ur-jauziz beteriko ingurua. Lehen egunean, 23 kilometroko ibilbide ederra egin zuten, oinez, eta naturaren edertasunaz gozatu zuten. Hango etxeekin harrituta geratu ziren bergararrak: "Ia guztiek sauna zuten ondoan". Zaharrenen teilatua, gainera, belarrez estalita zegoela gogoratzen du, hezetasuna kentzeko: "Kuriosoa zen ikustea ahuntzak teilatura igotzen zirela jatera", esaten du.

### BALEA ETA ITSASKI ERRALDOIAK

Geiranger herri txikia bisitatu ostean, Bergen-era iritsi ziren. Alemaniako antzinako merkatarien auzo koloretsuan izan ziren. Han, itsaskia nonahi eros zitekeen merkatura joan ziren. Era askotara prestaturiko izokina probatu zuten eta Euskal Herrian saltzen ez diren espezieak ikusi zituzten, hala nola balea eta itsaski erraldoiak.

Hegoalderantz abiatu ziren ondoren. Kristiansand-era, hain zuen ere. Aurretik ikusitakoarekin aldaketa nabarmena sumatu zuen: "Oso diferentea da, baina denak du xarma", adierazi du bergararrak. Bikingoen antzinako herrixka bat bisitatu eta haiei buruzko istorio "kuriosoak" entzun zituzten han.

Oslon ere bikingoen inguruko elementu asko ikusi zituzten. Etxe tipiko batean eta elizetan sartu ziren: "Denak egurrezkoak dira, baita iltzeak ere", gogoratzen du. Itsasontzi bikingo baten aurrean ere izan ziren: "Lur azpian urteak eta urteak emandako ontzia zen, baina ukitu barik egongo balitz bezala zegoen, mineral bati esker".

### MUNDUKO TOKI GARESTIENA

Oslo munduko tokirik garestiena dela eta poltsikoek igarri egin zutela jakinarazi du Gonzalezek. Horixe izan da, hain zuzen ere, bidaia osotik gutxien gustatu zaiona. Izozki batzuk erosi zituztela eta garestiak iruditu zitzaizkiola azaldu du. Askoz gehiago, hala ere, ez zituzten erosi han.

Euskal Herrira bueltatu aurretik, Holmenkollen hirian izan ziren, Olinpiar Jokoetan erabilitako eski azpiegiturak eta Bakearen Nobel saria ematen den eraikina bisitatzen, besteak beste.

Leku batetik besterako bidaia gauez egiten zutela gogoratzen du bergararrak. Gosaldu ostean, ontzitik irten eta 17:00ak arte ez ziren hara bueltatzen. Leku esanguratsuenak bisitatzen ematen zuten eguna. Afaldu aurretik, ontzia kostaldetik nola urruntzen zen ikusteak gustuko zuen.

Aukerarik izango balu, bidaia berriro egingo lukeela dio. Hobe uda partean neguan baino. Izan ere, "lehen eguneko 23 kilometroak elur edo euriarekin egitea ezinezkoa izango litzateke". Fiordoetara joan nahi duenak mendia izan behar duela gustuko dio. Gonzalezek gogoratzen duenez, "hasierako egunak oso menditsuak eta fisikoki gogorrak izan ziren".


Irudian, Jabier Gonzalez.

**"Beste ohitura bat dute, eta hotz handiagoa eta euri gehiago egin arren, bizikleta hartzen dute"**

**"Bikingoek egindako eraikinak egurrezkoak dira guztiak, baita iltzeak ere"**


Nerea Letek eta Jabier Gonzalezek, hain ezaguna den trol baten panpina ondoan dutela.

**bere ustez**


Jose Angel Mikeo

## Pako Tilla eta Kitaipon

Pakotila eta Kitaiponen erreinuan bizi gara. Edozerk edozertarako balio du. Indarkeriari irteera emateko gauden unean PPk nola erabiltzen duen ETA bere onurarako benetan deigarria da. Eta ez PPrentzat bakarrik, ETAk denerako balio du, edozer planteamenduaren aurrean argudio adabakia balitz erabiliz.

*Euskal Y*-a deritzon Abiadura Handiko Trenaren ereduaren kontra daudenak, gaudenok, terrorismoaren inguruko identifikatuz esaten duguna isilarazteko ere balio du. Maturana izan zen lehena hori botatzen. Aurrean zituen denak poltsa batean sartu eta kito, mutu gelditu ginen. Oraingo sailburuari entzun diot azkenik.

PPk gobernuaren kontra erabiltzen duena Jaurlaritzak herritarrek duten iritzi bat golpetik ezabatzeko erabiltzen du. Argudioek, eztabaidek, iritziek ez dute balio ezertarako. Ez dago elkarrizketarik.

Hartu adabakia eta isildu! Trenaren lanak hasita daudenean mutu eta ikaragarrizko bakardadean gaude. Udalak ere ezer ez omen daki, baina jakiteko ere ez du asko laguntzen. Zapatuan, Arrasaten, mutu gaudenok gure isiltasuna azalduko dugu. Inork entzungo al du? Ez da erraza gorrak mutuari entzutea.

**"Argudioek, eztabaidek, iritziek ez dute ezertarako balio. Ez dago elkarrizketarik"**

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida




hemen bada giro!


































hemen bada giro!



Aralarrek egoitzaren gaineko eztabaida egin arte atzeratu gura zuen

Denbora galtzea egotzi zioten PSE-EEk eta EAJ-EAk Aralarri

Egoitza berria MCCk egingo du, eta 2009an zabaldu gura dute

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Zaharren etxe berria egiteko azken pausoa eman du Udalak



**OSOKO BILKURA** Zaharren etxe berriaren kontuak eztabaida bizia eragin zuen Aralarren eta EAJ-EAren artean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Ohiko osoko bilkura luze eta eztabaidatsua izan zuen udalbatzak astelehenean, hilaren 12an. Zaharren etxe berriak eragin zuen eztabaida, Aralarren eta EAJ-EAren artean; eztabaida bizia eragin ere.

**INFORMAZIO ETA EZTABAIDARIK EZ**
Aralarrek eta Ezker Batuak zaharren etxearen gainean aurkeztutako mozioarekin hasi zuten bilkura. Salatu zuten zaharren etxe berriaren gaineko informaziorik ez dela egon, ezta eztabaidarik ere. Eta hainbat eskaera egin zituzten: herrian bertan eraikitzea posible den aztertzea, irisgarritasuna eta plaza kopuru nahikoa ziurtatzea –70 izango dira Aldundiarekin hitzartutakoak– eta oraingo langileekin zer gertatuko den argitzea. Gainera, kalitatezko zerbitzu publikoa bermatzea eskatu zuten. Eta, horregatik guztiagatik, zaharren etxea egiteko udalbatzak hartu beharreko erabakia atzeratzea gura zuten.

Arritxu Oliden alkateak, berriz, erantzun zien, batetik, Udalak hartutako erabakia ez dela azken pausoa izango, eta, bestetik, Udalak ezin diola esan Aldundiari zelan bete behar duen lana. "Zaharren egoitzaren proiektuari trabak jartzen zabiltzate", gaineratu zuen alkateak, "eta beste norabait joango da MCC eraikitzera". Bozketa eginda, Aralarrek eta Ezker Batuak bakarrik egin zuten alde, eta ez zuten onartu mozioa.

**AZKEN PAUSOA EMANDA**
Asmoa da Untzillara bidean –Egilleor baserri azpian– egitea zaharren etxe berria, eta horretarako lurren behin-behineko izendapen aldaketa onartu behar zuten, gero Aldundira bideratzeko kontua. Aralarrek esan zuen oraindik ez luketela onartu beharko; bestela, hemendik aurrera Udalak ez du-eta zeresanik izango zaharren egoitzaren gaineko kontuetan. PSE-EEko zinegotziak eta EAJ-EAkoek denbora galtzea egotzi zieten, eta Aralarko Sarasuak hauxe erantzun zuen: "Urtebetean ez duzue ezer egin eta orain denbora galtzea dela? Erantzukizunez hartu beharreko erabakia da eta eztabaida eskatzen du". Berotu egin zen orduan EAJ-EAko kide Jesus Mari Herrasti, eta Sarasuaren eta bien artean eztabaida bizia sortu zen. Bozketa eginda, EAJ-EA, PSE-EE eta PPren aldeko botoak jaso zituen eta onartuta geratu zen izendapen aldaketa. Aldundiak onartu behar du orain.

MCCko kideek lehenbailehen hasi gura dute eraikitzen, 2009an zabaltzeko. Gipuzkoako zaharren etxeak ez bezala, kooperatiba izango da Aretxabaletakoa, eta Aldundiarekin hitzartuta izango ditu plaza batzuk. Alkateak begi onez ikusi du MCCren proiektua, "geure-geurea delako kooperatiba". Aralarko Sarasuaren esanetan, ostera, ez da batere modelo ona Aldundiak enpresa baten eskuetan uztea guztia –erakitze-lanak eta zerbitzua–, ez duelako bermatzen kalitatezko zerbitzua.

EA ALDERDIAREN JARRERA

## EAko kideek babesa eman diote zaharren egoitzarako proposatutako proiektuari

EAko kideek zaharren etxe berriaren gainean duten iritzia agertu gura izan dute kaleko txutxu-mutxuei aurre egiteko, eta esan: "EAk ez du sekula zalantzan jarri titulartasuna, ezta kudeatzeko modeloa ere, pribatu-kontzertatua". EAk dio proiektua osorik ez egotea kritikatu zutela hasieran; izan ere, alkateak emandako argibideak ez zetozen bat ondoren kudeatuko duen erakundearen eskutik jasotakoekin. Eta argitu dute Urats-Gaineko langileek lana izango dutela etorkizunean ere.

Kritikatutako bigarren puntua zaharren etxearen kokapena zen, Untzillara bidean: "Baina herri erdian ezinezkoa da kokatzea, eta gure ardura da orain Egilleor baserri azpiko lurren tamaina. 170 toki izango ditu egoitzak, eta beste 30 eguneko zentroak, eta hori guztia egiteko alboko lursaila ere hartu beharko luketela uste dugu". Hala, osoko bilkuran aurkeztutakoa ontzat eman du EAk.



**LANAK** > UGASTEGIRA BIDEA

# Hormigoia botatzea erabaki du Udalak Urkulutik Ugastegira doan bidean

Ugastegin baserriak dituzten jabeak ibili dira eskean azken urteotan, eta azkenean onartzea erabaki du Udalak. Horrek ez du eragingo Aizkorri-Aratz parkean.



**UGASTEGIRA BIDEA** Urkulu urtegian gora, Urbaltz errekaren albotik, joaten da Ugastegiko baserrietara. AMAGOIA LASAGABASTER

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Urkulu urtegitik Ugastegi auzora doan bidea konpontzea erabaki du Udalak. Hormigoia botako du, baserriko jabeek azken urteotan eskatutako moduan.

**HORMIGOIA BIDE OSOAN**
Goroetako auzo bat da Ugastegi. Lau baserri ditu, baina ez da inor bizi bertan, nahiz eta batzuk egunero joaten diren. Urkulu urtegian gora joaten da baserrietara, Urbaltz izeneko errekaren albotik. Bidearen tarte batzuetan lehendik dago botata hormigoia, baina ez guztian, eta 4x4 ibilgailuekin joan behar dute baserrietako jabeek. Horregatik, azken urteotan –eta azken agintaldietan– behin eta berriro egin diote eskaera Udalari hormigoia bota dezan. Eta iaz bi lagun erroldatu ziren Ugastegiko baserrietan, Udala erabakia hartzera derrigortzeko.

**AIZKORRI-ARATZ PARKEAN**
Aizkorri-Aratz parke barruan dago Ugastegiko ingurune guztia, eta hormigoia botako duten bidea ere bai. Horregatik, Foru Aldundiko parkeen ardura duen zuzendariarekin berba egin zuen Udalak erabakia hartu aurretik. Eta hark ez zuen bidea konpontzeko trabarik jarri.

Bada, lanok lehenbailehen hasi gura dituzte, baina oraindik ez dute datarik zehaztu. 185 mila euroko aurrekontua daukate lanok, eta bide osoa batera konpondu beharrean faseka egingo dute, seguru asko. Baina gogoan izan behar da Goroeta auzotik aurrera automobilez pasatzeko baimena behar dela.



ARATZ

## Victoria Eugenia ezagutzen Donostian

Berritu berri duten Donostiako Victoria Eugenia antzokia ezagutzera joan ziren Aretxabaletako Aratz taldeko kideak joan zen martxoaren 8an. Atzegik antolatutako giza eskubideen aldeko jaialdian hartu zuten parte, eta aretxabaletarrek iaz egindako *Bidaia baten ametsa* film laburra bota zuten. Bukatutakoan, agurtzera atera ziren agertokira filmeko protagonistak. Zein baino zein alaiago itzuli ziren etxera, baina ez antzokiko eskaileratan argazkia atera barik.

**UDALA** > ORDENANTZAK

# Zirkulazioaren ordenantza, onartuta

Etxebizitza tasatuen gainekoa eta baserrietako hobi septikoak arautzen duena ere aho batez onartu zituzten

**M.A.** > ARETXABALETA
Hiru ordenantza onartu zituen udalbatzak hilaren 12ko ohiko osoko bilkuran: etxebizitza tasatuena, landa hiriguneko gorotzuren saneamenduarena eta zirkulazioarena.

**HOBI SEPTIKOEI LAGUNTZAK**
Etxebizitza tasatuen ordenantza egiteko Donostiako erregelamendua hartu du oinarri Udalak. Eta beste kontu batzuen artean, desjabetzea ahalmentzen du, hau da, inor ez bada bizi etxebizitza tasatuan Udalak desjabetu egin ahal izango du.

Landaguneko etxebizitzen gorotz-uren saneamenduaren ordenantzak, ostera, baserrietako hobi septikoak arautzen ditu. Orain arte, hobi septikoa jartzearen gastu osoa Udalak bere gain hartzen zuen. Hemendik aurrera, baina, nekazari edo abeltzaintza jarduera duen baserriari bakarrik emango dio %100eko dirulaguntza, eta besteek %30ekoa jasoko dute.

Eta gure herriko zirkulazioa arautuko duen ordenantza ere aho batez onartu zuten, eta poliki-poliki hasiko dira ezartzen udaltzainak. Jesus Mari Herrasti zinegotziak, gainera, proposatu zuen Internet bidez kontsultatu ahal izatea ordenantza bera zein norberaren kontuak: isunak…

> SAHARA
### Umeak hartzeko argibideak emango dituzte hilaren 22an

Iesbaa elkarteak berbaldia antolatu du Saharako umeen gaineko argibideak emateko. Eguenean, hilak 22, izango da, 19:00etan, Iralabarri plazako bideo gelan. Gogoan izan behar da *Oporrak bakean* izeneko egitasmoa dagoela abian martxoan, eta helburua da Saharako umeek gure artean pasatzea uztail eta abuztua. Baten batek argibide gehiago edo umea hartzeko izena eman gura badu, hona telefono zenbakia: 626 63 91 64.

Berbaldiarekin batera, *Goenkale*-n aktore dabilen Arantza Gurmendik egindako dokumentala emango dute, eta Iesbaako kideen asmoa da Gurmendi bera ekartzea azalpenak emateko.

> KIROLA
### Lagunarteko esku pilota txapelketa antolatu dute

Kirol zerbitzuek Debagoieneko lagunarteko esku pilota txapelketa antolatu dute. Binaka izango da, lau t'erdi barruan, eta esku pilotan jokatu gura eta federatu barik daudenei zuzendu diete. Bi maila egingo dituzte: federatu ohiendako edo maila oneko pilotariendako, bata, erdi mailako pilotekin; eta pilota goxoekin jokatuko dutenendako, bestea.

Izena emateko Aretxabaletako kirol etxera deitu (943 71 26 28), mezua bidali (*kirola@aretxabaleta.net*) edo Sergio Uriarteri deitu (665 73 46 23). Eta azken eguna hilaren 20a da, martitzena. Kirol zerbitzuetako abonatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte pertsonako eta gainerakoek, 15.

> ERRETIRATUAK
### Sexu kontuak argitzeko berbaldia martitzenean

Basotxo erretiratuen elkarteak *Zahartzaroa eta sexua* izeneko berbaldia antolatu du. Kutxak bideratutako jardunaldien barruan dago, eta Ainhoa Gartzia aditua izango da hizlaria. Helburua da zaharrek sexuaren gainean lasai berba egiteko eta argibideak jasotzeko gunea izatea. Hala, landuko dituzten gai batzuk izango dira zahartzaroan sexuak duen garrantzia, okerreko mitoak eta sexuaren abantailak zahartzerakoan, besteak beste.

Martitzenean, hilak 20, izango da berbaldia, 17:30ean, Basotxon, erretiratuek duten lokalean. Eta ez dago elkarteko bazkide izan beharrik berbaldira hurreratzeko.

**KIROLA** > XAKE TALDEA

# Bosgarren postuan bukatu du denboraldia Arlutzek

Euskal Herriko gorengo mailan jokatzen du, eta azken urteotan ez da jaitsi

Aste Santu ingurutik aurrera banakako txapelketak jokatzen hasiko dira kideak


**ARLUTZ XAKE TALDEA** Aitor Alcaide, Esteban Romero eta Andoni eta Fran Miguel taldekideak lokalean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Bukatu dute denboraldia Euskal Ligako ohorezko mailan dabiltzan taldeek. Eta herriko Arlutz xake taldea bosgarren geratu da.

**LANEAN FIN**
Denboraldi gogorra izango zela uste zuten aretxabaletarrek, oso jokalari onak izango zituztelako aurkari; Sestaok, esaterako, bi maisu handi ditu. Nahiz eta partida batzuk galdu, guztietan eskuratu dituzte puntuak, eta sasoian egoteak zerikusi handia izan du puntuak eskuratzeko orduan: "Fin ibili gara lanean, eta emaitza onak lortu ditugu", esan digu laukoteak. Banakako kirola da xakea, baina taldean jokatzerakoan gehiago ematen dutela aitortu digute.

**GORENEKO MAILAN**
Euskal Herrian xakean dagoen goreneko mailan jokatzen du Arlutz xake taldeak, eta azken urteotan ez da mailaz jaitsi. Aitor Alcaide, Esteban Romero eta Andoni eta Fran Miguel laukoteak osatzen du taldea azken urteotan, eta ez daukate ordezkorik. Behin denboraldia bukatuta banakako txapelketak hasiko dituzte Aste Santutik aurrera.

**OSPAKIZUNA** > II. UDABERRI JAIA

# Udaberri jaia egingo du Arizmendik

Hilaren 24an, zapatua, izango da, eta Argitxok aurkeztu zien martitzenean ume zein gurasoei

**M.A.** > ARETXABALETA
Iaz egin zuen jai arrakastatsua gogoan duela antolatu du Arizmendik II. Udaberri Jaia martxoaren 24rako. Argitxok eman zien horren berri Basabeazpin elkartutako ume zein gurasoei.

Porrukotxarara irteera eginda hasiko dute eguna, eta handik bueltan jolasak, Bixente Pagoagaren erakustaldia eta buruhandiak izango dituzte. Bazkaltzeko elkartuko dira gero, eta arratsalde partea tailerrek eta diaporama emanaldiak girotuko die. Bukatzeko txokolate beroa eskainiko diete Argitxok eta udaberriko ikur hautatu duten kukuak.



**ARGITXO** Jaiaren antolatzaileak eta Argitxo umeen aurrean. NAGORE OLAVE

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PIENSOS UNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56



TORREBASOKOA MODUKOA Torrebaso industrialdearen ondoko bidegorria Olazarren hasieraraino egin gura dute, bizikleta eta oinezkoendako bide bikoitzarekin. IKER BARANDIARAN

**INGURUMENA** > BIDEGORRI SAREA

# Udala eta Aldundia tratuan dabiltza udalerrian bidegorri sarea egiteko

Hiriarteko tramuak Aldundiak egingo ditu, eta herri barrukoak, berriz, Udalak. Aingeru Guardan hasiko dira

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Trenbide zaharra bidegorri bilakatzeko asmoa aspaldikoa da. Une honetan Eskoriatzako Udala eta Aldundia tratuan dabiltza bidegorri sarea egiteko, eta aspaldiko proiektua berreskuratu dute horretarako.

Gainera, Aldundiak sare hori egiten laguntzeko asmoa dauka. Hain zuzen ere, Aldundiak iragarri zuen A-1 autobidearen lanek eragindako kalteen ordain moduan edo neurri konpentsatzaile gisa egingo zituela.

**HIRIARTEKOA, ALDUNDIAK**

Aurtengo urtarrilean Aldundiak onartu zuen hiriarteko tramuetan egin beharreko lanen ardura hartzea. Herri barruko lanak, berriz, Udalak egin beharko ditu.

Udalerriko bidegorri sarea sei esparrutan banatu dute: Torrebasotik Olazarren lehenengo zenbakira; Olazartik Zorautzera (kanposantu ingurutik); Zorautzetik Aingeru Guarda biribilgunera; Aingeru Guardatik Kuatruena hasierara; Kuatruena hasieratik bukaerara; eta Castañarestik Arlabanera.

Azkeneko tramua, Castañares eta Arlaban gainaren bitartekoa, Bidegik egingo du.

**AINGERU GUARDA, AURRETIK**

Bestalde, Udalak jakinarazi digu Zorautz eta Aingeru Guarda biribilgunearen arteko tramua aurten egingo dutela. Izartuk %30ean lagunduko du, eta Udalak uste du bidegorria saihesbidearen parera joango denez Aldundiak lan hori bere kargu hartuko duela.

**TURISMORAKO ERAGINKORRA**

Gainontzeko tramuak, berriz, gerorako utzi beharko dituztela azaldu digute.

Udaleko ordezkariak pozik daude bidegorri sarea turismorako eraginkorra izango delako.



SAIHESBIDE PAREAN Dorleta auzo atzealdetik ere igaroko da bidegorria. I.B.

**LEHIAKETA** > ESKORIATZAKO AIRE ZABALEKO I. MARGO LEHIAKETA

# Osatuta dago Eskoriatzako aire zabaleko lehenengo margo lehiaketaren epaimahaia

Hilaren 25ean egingo dute aire zabaleko lehiaketa udalerrian; hilaren 25etik apirilaren 15era, berriz, erakusketa egingo dute margolan guztiekin

**I.B.**> ESKORIATZA

Ibarraundi museoko arduradunak eta Jose Mari Agirre Zenitagoia margolari eskoriatzarra fin dabiltza hurrengo asteburuan herrian egingo duten aire zabaleko margo lehiaketa antolatzen.

Lehenengo aldia da herrian halako lehiaketa bat egiten dutena, eta saiatu dira herriko eta kanpoko margolariak erakartzen.

Era berean, epaimahaia finkatuta dute. Honako adituek osatuko dute: Jose Mari Agirre Zenitagoia; Angel Guenaga eibartarra; Richard Perez bilbotarra; Koldo Gojenola eibartarra; eta Naiara Errasti, Lourdes Umerez eta Patxi Magu eskoriatzarrak. Horrez gain, Udaleko ordezkari bat ere izango da epaimahaian.

**60 MARGOLARI GONBIDATUTA**

Bestalde, antolatzaileek Euskal Herriko eta Espainiako 60 bat margolari profesionali gutunak bidali dizkiete, eta lehiaketan esku hartzeko gonbidapena egin. Izan ere, antolatzaileek jakin badakite egun horretan Euskal Herrian ez dagoela halako beste lehiaketarik. Horregatik aukeratu dute egun hori.

**MAILA GUZTIETAKO MARGOLARIAK**

Hainbat margolari profesionali gonbidapena egin dieten arren, antolatzaileek uste dute lehiaketa maila guztietako margolariendako dela. Horren harira, maila askotako sariak banatuko dituzte lehiaketaren egunean. Hain zuzen ere, 16 urtetik beherakoek bestelako sariak izango dituzte eta herriko lan onena egiten duenak ere sari berezia eskuratuko du.

Lehiaketa hilaren 25ean egingo dute eta interesatuek Herriko Plazara jo beharko dute 09:00etan. 14:30era arte izango dute margotzeko aukera. Horren ostean, prestatu egingo dute.

> ONDAREA

### Zeramikaren gaineko erakusketa arrakastatsua

Ibarraundi museoko arduradunek jakinarazi digute otsailaren 23tik martxoaren 11ra bitartean museoan jarri duten erakusketa oso arrakastatsua izan dela.

Erakusketan, Udalak iaz eskuratu zuen zeramika bilduma erakusgai jarri zuten. Horrekin batera, Zubiate labearen inguruan egin gura duten museoaren proiektuaren gaineko zehaztasunak ere eman zituzten.

Jende ugarik ikusi du erakusketa, eta ordura arteko ikusle marka apurtu egin du.

> ZAHARRAK

### Zaharren etxean administratzailea behar dute

Mesedeetako Ama zaharren etxerako administratzaile-arduraduna kontratatu gura dute. Lanpostu hori behin betiko izango da.

Lanpostu horretan esku hartzeko baldintzak honako hauek dira: eskoriatzarra izatea eta euskaraz jakitea; eta zaharren etxeetan administratzaile-arduradun lanak egiten eskarmentua izatea.

Curriculumak Gaztañadui kaleko 22. zenbakira bidali beharko dituzte martxoaren 23a baino lehen.

> KIROLA

### Saskibaloi eta areto futboleko norgehiagokak

Bihar, zapatua, Eskoriatzako kirol elkarteko saskibaloi taldeek bi norgehiagoka izango dituzte. 16:00etan, kadete mailako neskek Aldapeta taldearen kontra jokatuko dute. Ordu berean, senior mailako neskek Andraitz taldea izango dute aurkari.

Domekan ere izango da kirola ikusteko aukera. Hain zuzen ere, 16:00etan, areto futboleko ohorezko ligako taldeak Gasteizko Zaramaga izango du aurkari.

**HIRIGINTZA** > DORLETA AUZOKO FATXADAK

# Dorleta auzoko fatxadak berritzeko lanak bide onetik doaz

Auzotarrek esleitutako lanek 600.000 euroko aurrekontua dute eta Ramel enpresak hartu ditu

Guztira, 136 etxebizitzari eragin die fatxadak berritu eta margotzeko lan erraldoiak

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Dorleta auzoko fatxadek beste itxura bat hartu dute aspaldian. Lanak oraindik bukatu barik dauden arren, oso bide onetik doaz, eta auzoa aldatuta dago.

Auzoko fatxada guztiak eraberritzeko asmoa aspaldikoa da. Auzotarrak Udalaren zain egon ziren luzaroan, azken horrek auzoa bera eraberritzeko lanak egin gura zituelako. Zoritxarrez, Izartu erakundearen laguntzak jaso artean, ez zituzten auzoko lan orokorrak abiarazi. Eta horren ostean, auzotarrek ere fatxadak berritzeko lanak hasi zituzten.

**URTEBETE DARAMATE LANEAN**

Hala, orain dela urtebete Dorletako auzotarrak Ramel enpresarekin harremanetan jarri ziren, eta lanak hasi zituzten.

Lanek 600.000 euro inguruko aurrekontua dute, eta helburua da auzoa osatzen duten etxe guztien fatxadak berritzea eta margotzea. Guztira, lan horiek 17 atari, edo, beste modu baten esanda, 136 etxebizitza hartu dituzte.

Lehenik eta behin, etxeen fatxadak garbitu eta txukundu egin dituzte; horren ostean, margotzen aritu dira.

**BEHEKO SOLAIRUAK FALTAN**

Hitzartutako lanak bukatzeko, etxe guztien beheko solairuak, garajeak eta etxabeak margotzea falta da oraindik.

Auzotarrek azaldu digutenez, Udalak auzoa berritzeko lanak noiz bukatu zain daude: "Kable-sarea sartu ahala, guk fatxadak margotzen jarraitu ahal izango dugu. Baina lan hori egin arte, guk ezin dugu gurearekin jarraitu". Horrez gain, auzotarrek nabarmendu dute aspaldian Udala egiten dabilen lanak geldi samar daudela, eta komeni dela horiek aurreratzea.

**LAN OROKORRA, FONORTE-K**

Bestalde, auzoa osorik berriro urbanizatzen dabil Udala. Espaloiak zabaldu, jolas-leku berria egin, aparkalekuak jarri, saneamendua aldatu eta beste lan batzuk egiten dabiltza. Fonorte enpresak du horren ardura.

**ERABERRITZEKO PREMIA**

Dorleta auzoko etxebizitza guztiak orain dela 41 urte egin zituzten. Oinezkoendako eremu zabala du, eta berdeguneak ere baditu. Auzoa eraiki zutenetik ez dute inoiz halako lanik egin, oraingoa auzo horretan berritze lanak egiten dituzten lehenengo aldia da-eta.



**ITXURA ALDATU** Behin fatxada guztiak margotuta, eta Udalak bestelako lanak bukatu ahala, auzoa zeharo aldatuta geldituko da. IKER BARANDIARAN



FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01

MONDRAGON

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

*Zure Zerbitzura*

**bere ustez**



Alaitz Jauregi

## Eskatu deseo bat!

Edozeini galdetu ezkero: ze eskatuko ziñuke lanpara magiko bat topau ezkero? Gehixenok "loterixia tokatzia" erantzungo giñuke. Baina benetan hori da nahiko giñukena? Argi dago osasuna dala lehenengua danontzat, baina honetaz gain, nik be, beti berdina esaten dot: primitibia tokau ezkero...

Ta tokau ezkero zer? Seguru hobeto bizikogiñakela? Ba azkenaldixan eta denbora gutxixan, gauza dexente pasau jat eta beste konklusiño batzutara ailegau naiz.

**"Beti egongo da inguruan bateren bat milla milioik baino gehixago balio dabena"**

Zeintzuk diran? Diruak baino nahiko balore haundixaua dauzken gauzak dauzkula inguruan, eta ez dittugula bape baloratzen. Esate baterako, zeinek ez dauka inguruan momentu txarretan morala jasotzen jaon lagunen bat? Edota egun tristiak alaitzen jaon lankideren bat? Edota...

Konturatzen bazate, beti egongo da bateren bat inguruan mila milloik baino gehixago balixo dabena. Honegaittik ez nuke nahi aukera hau pasatzen lagatzerik nerekin hain ondo portau diran Antzuolako Haurreskolakuei, Mariaren Lagundikuei, ikastaro ezberdinetakuei danei eskertu barik. Eskerrik asko, benetan!

**MAIRUAREN ALARDEA** > EUSKO IKASKUNTZA ETA UDALA MINTEGIA ANTOLATZEN DABILTZA

# Alardeen gainean maiatzean egingo duten mintegiaren egitaraua ia prest dute

Maiatzaren 3tik 6ra egingo dute euskal alardeen gaineko mintegia: hitzaldiak, ponentziak eta mahai-inguruak egongo dira



**ALARDEA** Antzuolako Mairuaren Alardea, 2006an. GOIENKARIA

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Mairuaren Alardearen Elkartearen ekimenez abiarazi zuten alardearen gaineko azterketa soziokulturala, batetik, eta alardeen gaineko mintegia, bestetik.

Mintegia prestatzen burubelarri dabiltza Eusko Ikaskuntzakoak eta Udalekoak; ia prest dute egitaraua. Maiatzaren 3tik 6ra izango da. Honako ekimenak izango ditugu, besteak beste: alardeen jatorriaren eta garapenaren gaineko berbaldia; Antzuolako alardearen gaineko ikerketaren emaitzak aurkeztuko dituzte eta horren gaineko tailerrak egingo dituzte, baita gazteendako mahai-ingurua ere. Aipatzekoa da, azkenik, maiatzaren 6an, domeka, Euskal Herriko zortzi herritako alarde konpainietako ordezkarien bisita izango dugula eta desfile erraldoia egingo dutela. Erakusketa ere jarriko dute.



ANDONI BALERDI

## Mendi martxa oso arrakastatsua izan zen

Aurreko asteko domekan Debagoieneko eta Debabarreneko 600 bat neska-mutiko etorri ziren Antzuolara, XX. Eskolarteko Mendi Martxan parte hartzera. Giro ederra izan zuten ibilaldia egiteko eta oso ondo pasatu zuten parte-hartzaileek. 65 lagunek jardun zuten ibilaldia prestatzen eta laguntzen. Arrolak eskerrak eman nahi dizkie guztiei: Antzuolako Udalari, Herri Ikastetxeari, Eroski, Goizper eta Oerlikon Balzers Elay enpresei, gaztetxekoei eta Anelkar eta Pausoka elkarteei.

> ANTZERKIA

### Lakrikun taldearen antzerki emanaldia bihar, zapatua

Lakrikun antzerki taldearen emanaldia izango dugu bihar, zapatua, 22:30ean, Olaran etxeko aretoan.

*Eman bira... Bestaldea ikusi arte* antzezlana eskainiko digute. Taldekideek diotenez, bizitzako zenbait egi aurkezten dizkigu antzezlanak, poesiaz eta umorez.

> PILOTA

### Martxoan hasiko dute herriko pilota txapelketa

Olalde elkarteak udaberrirako antolatu du aurten herriko eskuz binakako pilota txapelketa. Hamar bikotek eman dute izena. Oraindik ez dute egutegi zehatzik egin, baina, aurreratu digutenez, martxoaren 24an edo 31n hasiko dute txapelketa eta ekainean amaituko da.

> TXIRRINDULARITZA

### Txirrinduzaleak 09:00etan elkartuko dira aurrerantzean

Txirrinduzale taldea osatu zuten orain dela gutxi. Orain arte 09:30ean elkartu izan dira Altzarte parean; aurrerantzean, baina, 09:00etan irtengo dira, toki beretik. Oraingo domekan honako bidea egingo dute: Antzuola, Deba, Ondarroa, Markina, San Migel, Elgoibar eta Antzuola.

> KORRIKA

### Eskolako neska-mutikoek Korrika Txikia egingo dute

Martxoaren 25ean, domeka, 06:50ean iritsiko da Korrika Antzuolako erdigunera; bi egun lehenago, martxoaren 23an, egubakoitza, ohi bezala, Korrika Txikia egingo dute Herri Ikastetxeko neska-mutikoek. 16:00etan hasi eta kalez kale ibiliko dira.

DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23




**PINTADAK** Pilotalekuko hormetan AHTren eta Patxi Basauri alkatearen aurkako mezuak agertu dira. LARRAITZ ZEBERIO

**PINTADAK** > BASAURIK DIO HERRITAR GUZTIEI EGITEN DIETELA KALTE HORRELAKO EKINTZEK

# Pintadak Patxi Basauri alkatearen kontra

Patxi Basauri alkatea minduta dago, baina ez die gertakariei aparteko garrantzirik eman nahi eta dio halakoek herritar guztiei egiten dietela kalte

**LARRAITZ ZEBERIO**> ELGETA

Pilotalekuko hormek itxura eskasa erakutsi dute azken egunotan. Kolore urdin eta beltzez egindako hainbat pintada irakur zitezkeen zapatua ezkero. Batzuk ETAren aldekoak, beste batzuk Iñaki de Juana eta preso politikoen aldekoak... Elgetako gaztetxearen aldekoak ere agertu ziren.

"Lau edo bost hilabetean behin agertzen dira horrelako pintadak herrian", adierazi dio GOIENKARIAri Patxi Basauri alkateak. "Herritar guztiengan dute eragina horrelakoek; izan ere, horma horiek guztiak garbitzeko pintore bat aurkitu eta ordaindu behar du Udalak".

Egindako pintada guztien artean, baina, batek bereziki eman du atentzioa honakoan. Pilotalekuaren ateetako batean, Patxi Basauri alkatearen aurka egindako pintada batean irainak irakur zitekeen. "Irakurri dut, bai", adierazi du Basaurik, "lore ederra bota didate". Alkateak, baina, ez dio pintada horri berebiziko garrantzirik eman gura. "Tristea iruditzen zait hainbeste urtean lehenengo aldia delako nire izena horrelako pintada batean agertzen dena. Baina ez diot duena baino garrantzi handiagorik eman nahi".

**AKATS ORTOGRAFIKO UGARI**

Askok izan dute pintada horiek ikusteko aukera, luze egon dira-eta kendu barik. Bertan agertu diren akats ortografiko ugariek ere eman dute zeresana.

## Kultura Astea egin dute asteon Elgetako eskolan

Kultura Astea egin dute eskolan. Egunero, 11:00etatik 12:00etara jokoak eta tailerrak egin dituzte.

Martitzenean, gainera, Antton Kazabon idazle oiartzuarraren bisita izan zuten. Asmakizun lehiaketa ere egin dute, argazkian ikusten denez. Hona hemen bi asmakizun:

- Zuria eta biribila, gaueko eguzkia. Zer da?
- Bi zulokoa da gure tximinia, ixten badugu itoko gara ia, arnasa hartu ezinik larri gure bizia. Zer da?



L.Z.

**GAZTETXEA** > XI. URTEURRENA OSPATUKO DUTE ZAPATUAN

## Triki-poteoa, bazkaria eta kontzertuak egingo dituzte

Gauean, 22:30ean, Edan eta Apartheid taldeek girotuko dute Elgetako gaztetxea

**L.Z.** > ELGETA

Bihar, zapatua, ospatuko dute herriko gaztetxearen XI. urteurrena. Ospakizunak 13:00etan hasiko dira triki-poteoarekin. Ordu eta erdi geroago bazkaria egingo dute, eguraldi onarekin gaztetxe kanpoan. Pasta-entsalada, solomoa piperrekin, postrea, kafea, kopa eta purua dira menuan. Prezioa 8 euro da.

Trikitilari talde batek girotuko dute festa eguna. Bertsolariak ere izango dira: Jokin Labaien eta Beñat Ugartetxea, hain zuzen ere. Gauean, 22:00etan, Edan eta Apartheid taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean.

**EKITALDI GEHIAGO MARTXOAN**

Datorren zapatuan, hilaren 24an, sukaldaritza tailerra egingo dute, goizez. 18:00etan, berriz, zazpi taldek kontzertua egingo dute gaztetxean.

**HERRI-KROSA** > 8-12 URTE BITARTEKO ESKOLAKO UMEENDAKO

## Lasterketa egingo dute umeek herriko kaleetan

Domekan, 11:30ean jokatuko dute Egokik antolatutako herri krosa eskola-umeek

**L.Z.** > ELGETA

Domekan, hilaren 18an, jokatuko da Elgetako herri krosa. Egoki kirol elkarteak antolatutako lasterketa da eta 8-12 urte bitarteko eskola-umeei zuzenduta dago. 11:30ean hasiko dute proba. Bola-Toki inguruan eta herriko kaleetan zehar egin beharko dute lasterka gaztetxoek. Antolatzaileek sariak agindu dituzte.

**BI TALDETAN BANATUTA**

Neska-mutikoek bi taldetan banatuta egingo dute lasterka. 8-9 urtekoek, benjaminek, 800 metroko distantzia egin beharko dute. 10-12 urte bitartekoek, alebinek, kilometroa egin beharko dute; hau da, 200 metro gehiago.

Udal Pilotalekuan elkartuko dira guztiak, 11:30ean.

> FUTBOLA

### Elgetak Eibarko Gazteak taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Unben 15:30ean

Asteburu honetan Gazteak taldearen aurka neurtuko ditu indarrak Elgetako futbol taldeak. Norgehiagoka, bihar, 15:30ean jokatuko dute Eibarko Unbe futbol zelaian.

Gazteak ez da taldeko aurkaririk gogorrenetarikoa. Ez du oraindik igoera txapelketa honetan garaipenik lortu.

> ISTILUAK FRONTOIAN

### Barikuan ika-mika sortu zen pilotalekuan, herritar talde bat protesta egitera sartu zenean

AHTren aurkako ekitaldia egin zuten barikuan 15 bat lagunek. Hala, ETB frontoian jokatzen ari ziren finalak grabatzera etorria zela-eta, protesta kantxara eramatea erabaki zuten. Ozkarbiko Jose Luis Uberak adierazi du horrelakoek ez dietela inongo mesederik egiten etorkizunari begira herrira ekarri gura diren pilota ikuskizunei.

> TXIRRINDULARITZA

### Xabier Aranguren txirrindulari elgetarrak tarteko helmugen saria irabazi zuen Maliañon

Zapatuan Kantabriako Maliañon jokatutako amateur mailako txirrindularitza lasterketan laugarren sailkatu zen Xabier Aranguren elgetarra. Cafes Baque taldeko txirrindulariak, gainera, tarteko helmugen saria irabazi zuen. Lorpen horiek, zalantza barik, konfiantza emango diote aurrera begira.



TALDE HANDIA Herritar ugari batu ditu ezker abertzaleak, argazkiak erakusten duen moduan. GOIENKARIA

**POLITIKA** > EZKER ABERTZALEA

# "Beste Aramaio bat" lortzeko lanean dabiltza

Aramaioko ezker abertzaleak iragarri du hauteskundeei begira lanean dabilela

Azken asteotan dabiltza herri batzarrak egiten, herriaren egoeraren gainean hausnarketa egiteko

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

"Aramaioko ezkertiar eta abertzale batzuk elkartu ginen argazki horretan, beste Aramaio bat nahi dugulako, etorkizun ezberdin bat eraikitzeko, alternatiboagoa". Halaxe aurkeztu du bere burua Aramaioko ezker abertzaleak. "Herritarrei ateak ixten dizkion Udala bukatu da, badator aldatzeko aukera, momentua da ezker abertzalea Udalera bueltatzeko eta maiatzean Udalera bueltatuko gara, indarrez eta laneorako gogoz", gaineratu dute taldeko ordezkariek.

**HERRI BATZARRAK**

Hori horrela, azken asteotan, martitzenero elkartzen dabil kultura etxean herritar talde bat, herriaren egoeraren gainean hausnarketa egin eta ekarpenak jasotzeko.

Orain arte euskara, kultura, hezkuntza, kirola, gazteria eta aisialdia landu dituzte. Eta datorren martitzenean, berriz, hirigintza eta gai sozio-ekonomikoak landuko dituzte.

Batzar horretan parte hartu ahal du interesa duen edozein herritarrek. Hitzordua egin dute, beraz, martxoaren 20rako, 19:00etan, kultura etxean.

**BERTSOLARITZA** > ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

# Manex Agirre, etzi finalaurrekoan

Zigoitian jokatuko dute Arabako Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa, 17:30ean hasita

**U.M.**> ARAMAIO

Etzi, domeka, Zigoitian jokatuko dute Arabako Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa. Sei bertsolarik jardungo dute finalerako txartelarengatik lehian. Tartean izango dugu Manex Agirre aramaioarra. Honako hauek izango ditu hark lehiakide: Iñaki Viñaspre (Gasteiz), Ruben Sanchez (Gasteiz), Felipe Zelaieta (Gasteiz), Zigor Enbeita (Izarra) eta Izar Mendiguren (Laudio).

Ondategiko Zigoitia Aretoan izango da saioa, 17:30ean hasita.

**BIGARRENA, ARAMAION**

Bigarren finalaurrekoa hurrengo asteburuan da, kasu honetan, Aramaioko kultura etxean. Hor beste sei bertsolarik jardungo dute lehian.

Hala, bi finalaurrekoetatik puntu gehien eskuratzen dituzten sei bertsolariak pasako dira finalera.

Finala Gasteizen jokatuko dute, apirilaren 21ean, Jesus Guridi auditorioan.

> GIZARTEA

### Elkarri laguntzeko taldea sortu dute, aholkuak, laguntza eta beste konpartitzeko asmoarekin

Senideren bat edo beste pertsonaren bat zaintzen dituzten zenbait lagunek elkarri laguntzeko taldea osatu dute. Esperientziak konpartitu, laguntza behar izanez gero hura hartu, beste zaintzaile batzuei lagundu gero eta aholkuak jaso nahi dituztenek osatu dute taldea.

Bi eguaztenean behin elkartzen da taldea, 17:00etatik 18:30era, kultura etxean. Hala, parte hartu nahi duenak Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo beharra dauka.

> ABIADURA HANDIKO TRENA

### Bihar, zapatua, Arrasateko manifestazioan parte hartzeko dei egin du Aramaioko taldeak

Bihar, zapatua, manifestazioa egingo dute Arrasaten, Abiadura Handiko Trenaren kontra. Hala, tren horren kontrako Aramaioko taldeak ere bat egin du manifestazio horrekin eta parte hartzeko dei egin die herrikideei. Manifestazioa 17:30ean aterako da, Arrasateko Herriko Plazatik.

**LOGOTIPO LEHIAKETA** > SARI BANAKETA

# Oñatiar baten irudia da Masustarako

Bederatzi lan aurkeztu dituzte, bost helduen mailan eta beste lau umeen mailan

**U.M.** > ARAMAIO

Logotipo lehiaketara aurkeztutako lanen artean, Aratz Losada oñatiarrarena aukeratu dute Masusta Haurreskolaren irudi izateko. 250 euroko saria eskuratu du hark. Egilearen azalpenen arabera, ahalegindu da eskolari eta haren izenari erreferentzia zuzena egiten. Hala, marrazkian azaltzen diren borobilek masusten forma sinbolikoari erreferentzia egiten diote. Eta umeak ere irudika ditzakete borobilok. Kolore biziekin, berriz, alaitasuna eta dinamismoa erantsi dizkio.

Laster, irudi horrekin egindako plaka bat ipiniko dute Haurreskolaren eraikinean.

Helduen mailan bost lan aurkeztu dituzte eta gazteenean lau. Hori horrela, umeen lan onena ere saritu nahi izan du Udalak eta Itziar Errasti aramaioarrari ere eman dio saria: 60 euroko txartela Elkarren gastatzeko.




SARI BANAKETA Ezkerretik eskumara, Aratz Losada, Mertxe Mondragon alkatea eta Itziar Errasti. UDALA

**SORGINAK** > BERBALDIA

## Emakumeek Mont Blanc-era egindako espedizioa berbagai gaur, 19:00etan

Bazkaria egin zuten zapatuan Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, eta gaurko berbaldiarekin borobildu egingo dute eguna

**MIRARI ALTUBE** > GATZAGA
Sorginak emakume taldeak emakumeen gaineko hainbat ekitaldi egin gura zituen nazioarteko eguna pasa berri denean. Hala, bazkariaren osterako berbaldia antolatu du.

**GEMA ZUBIZARRETA**
Hain zuzen, Marimendi taldeko emakumeak joango dira gaur, 19:00etan, Gatz Museora. Iaz uztailean Mont Blancera egindako espedizioaren berri emango dute, eta hantxe egindako argazki eta irudiak ere ekarriko dituzte. 40 urte beteta dituzten 19 emakumek igo zuten Mont Blanc lau puntu desberdinetatik, eta haien artean dago Gema Zubizarreta aretxabaletarra. Hura izango da gaur Gatz Museora etorriko den kideetako bat, eta beste bi lagun ekarriko ditu.



**SORGINAK** 33 emakume elkartu ziren Gure Ametsa jatetxean Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko. JOSETXO ARANTZABAL

**ZAPATUAN, PAREGABEKO GIROA**
Esan bezala, ez da *sorginek* antolatutako lehen ekitaldia; joan zen zapatuan bazkaria egin zuten emakumeek, urtero moduan. 33 elkartu ziren, eta gazteak ere hasi dira poliki-poliki taldeak antolatutako ekintzetan parte hartzen. Arabako Elosu herriko emakumeak izan zituzten, gainera, lagun, eta elkarren aurka jolasean jardun zuten bazkalostean. Lehiaren gainetik umore ona eta barrea izan ziren nagusi zapatu arratsaldean, Gure Ametsan.

**KORRIKA** > MARTXOAREN 23KO EKITALDIAK

## Astelehenean bukatuko da Korrikako afarirako txartelak jasotzeko epea

**M.A.** > GATZAGA
Martxoaren 23an, 22:40 inguruan, sartuko da Korrika Debagoienera Gatzagatik. Hori horrela, Korrika batzordeak arratsalde pasa bikaina antolatu du herrian.

**MENU EUSKALDUNA**
Arratsaldean umeak izango dira protagonista, eta 17:00etan antzerkia izango dute: *1, 2, 3 Inaxito*. Trikuharri taldeak eskainitako bertso antzerkiak pertsonaia bereziak ekarriko dizkie musikak, bertsoek eta kantuek lagun eginda. 18:00etan, zirku tailerrak izango dituzte ume zein gazteek, eta 20:00ak ingururako afaria gertatuko dute Garro jauregian. "Gero ago ez da komeni, 22:40 inguruko gertu egon behar dugulako Korrikari ongietorria emateko", azaldu digu Rosa Urreta kideak. Menu oso euskalduna gertatuko dute: berakatz-zopa, baserriko oilaskoa entsaladarekin eta gazta eta intxaurrak. Helduek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta gazteek 7. Txartelak Labidea dendan dauzkate herritarrek, eta jasotzeko azken eguna astelehena izango da.

**BASERRIETAKOEI DEI BEREZIA**
Korrika batzordeko kideek dei berezia egin gura diete baserrietan bizi direnei ekitaldietan parte har dezaten: "Ez daukate Korrikaren atzetik joan beharrik", argitu dute, baina herrian sortuko den giro berezia bizi izatera gonbidatu gura dituzte, eta afalorduan bertan izatea pozgarria litzatekeela diote.

Gainera, afalorduan eta Korrika pasatu ostean, trikitilariak izango dituzte lagun: "Eta, seguru asko, txokolate beroa eskainiko dugu pasatu ostean, jai giroak, trikitilarien laguntzarekin, jarrai dezan", esan digu Urretak.

> PILOTA

### Aste Santu ostean joango dira pilotari gazteak Amurriora

Gaur ziren joatekoak herriko pilotari gazteak Amurriora txapelketa jokatzera, baina Sorginek antolatutako berbaldia dela-eta hainbat gurasok atzeratzeko eskatu diete. Hala, Aste Santu osterako utzi dute Belokiren mutilek txapelketa.

Txapelketaren lehen atala Gatzagan jokatu zuten otsailaren 16an, eta orain Amurriora joatea egokitzen zaie. Orduan, zortzi partidutatik bi bakarrik irabazi zituzten, eta errebantxa hartu gurako dute gatzagarrek.

**'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin**

**Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloi saila 06-07 astelehen honetan, *Asteleheneko Goienkaria*-rekin**




Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.
Oraingo astelehenean, martxoak 16, Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloi sailarenak argitaratuko ditugu. Saileko hiru taldeen argazkiak eta horietako bat, senior mailako neskena, handiz eta jokalarien izen-abizenak jasoko dituzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria.*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

> FUTBOLA

### Mondrak badu zer konpondu Martuteneren zelaian

Azkenaurreko postuan dagoen Martuteneren (21 puntu) zelaian jokatuko du Mondrak (37) asteburuan. Arrasatekoek nahikoa lan izango dute joan den astean etxean egin zutena konpontzeko.

Aretxabaletak (31) Ondarroako Aurreraren (33) kontra jokatuko du; etxean 0-0 egin berri, puntu bila joango dira aretxabaletarrak. Aloñak (31), berriz, gertu-gertu duen Hondarribia (29) izango du zain.

> MUSHINGA

### Itoitz Armendariz Europako Txapelketan lehiatuko da

Suedian Munduko Txapelketa jokatu berri –25. sailkatu da–, Itoitz Armendariz eskoriatzarrak Europako Txapelketa jokatuko du oraingo asteburuan, Norvegiako Hamar herrian.

Eskoriatzakoak joan den astean egindako lana hobetzea izango du helburu: "Europakoan ez da horrenbesteko maila egongo". Norvegian ere sei txakurrekin lehiatuko da Eskoriatzakoa.

> ESKUBALOIA

### Espainiako Txapelketarako txartela, Gasteizen

Euskadiko Txapelketan lehian dabilen kadete mailako Verkol Aloñak ligako azken norgehiagoka jokatuko du bihar Gasteizen (16:00), Consulting Social Alaves taldearen kontra.

Talde hori azkena da sailkapenean, ez dute ezer jokoan; kontrara, Verkol Aloñak garaipena behar du maiatzaren 12an, 13an eta 14an egingo duten Espainiako Txapelketarako sailkatzeko.



**BIZIKLETAK ZAIN** Joan den urteko txapelketan, bizikletak boxen lekuan jabeen zain, 40 kilometroko ibilbidea egiteko gertu. JOSETXO ARANTZABAL

**DUATLOIA** > OÑATIKO PROBA

# Joan den urteko irabazle Laurent Galinier da biharko faboritoa

Bihar arratsaldean egingo dute XVI. Oñatiko Duatloia. 16:00etan hasiko dute inoiz baino parte-hartze handiagoa izango duen lasterketa

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Bihar arratsaldean (16:00) egingo dute Euskadiko duatloi txapelketen egitarauko hirugarren proba, Oñatiko lasterketa. Eta, antolatzaileek inoiz baino proba jendetsuagoa aurreikusten dute, Oñatiko Triatloi Taldeko lagunek lan txukuna egiten dabiltzan seinale. Biharko 300 lasterkari izango dira irteera puntuan –udaletxe parean–, eta maila onekoak asko: "Euskal Herriko duatloilari onenekin batera –tartean dago Mikel Elgezabal, txirrindularitza profesionala alde batera utzi eta iaz duatloietan hasi zena–. Horrekin batera, joan den urteko irabazlea ere izango da Oñatin, Laurent Galinier", esan digute lasterketako antolatzaileek. Gainera, aurten ere atleta frantziarra dute faborito, besteak beste, Europako Txapelketan laugarren sailkatu da-eta.

Emakumetan, berriz, antolatzaileek Inma Pererio kantabriarraren eta Virginia Berasategiren arteko lehia azpimarratu dute, punta-puntakoak biak.

#### IBARREKOAK, ASKO

Oñatiko taldeko hainbat laguni antolatzaile lana egitea tokatuko bazaie ere, "Oñatiko taldetik 17 lehiakide izango dira, eta Antxintxika taldetik ere beste 20 lagun-edo etorriko dira". Horrekin batera, bat baino gehiago izango da bere kasa korrituko duena.

Txantxikuarrak urtarril inguruan hasi ziren proba prestatzen: "Orain gaudenok beste batzuen errelebua hartu dugu, eta orduan egin zuten lanari esker, orain errazagoa da horrelako lasterketa bat antolatzea. Gainera, biharko hainbat boluntario izango ditugu laguntzen, errepideko bidegurutzeetan batez ere", esan digu Mikel Larreak.

#### ALDAKETA BARIK

Zirkuituari dagokionez, txapelketak ez du inongo aldaketarik izango. Hasteko, lehiakideek bi itzuli egingo dituzte Oñatiko kaleetatik korrika (8 kilometro). Udaletxe parean egongo da boxen lekua, eta lehiakideek bertan utziko dituzte korrika egiteko zapatilak, eta bizikletak hartu. Hala, Oñatitik Bergararako bidea hartuko dute, handik Antzuolara, Deskargako gaina, Legazpira eta Udana gainetik Oñatira bueltа egiteko (40 kilometro). Ondoren etorriko dira korrika egin beharreko beste 4 kilometro.

**BORROKA LIBREA** > ESPAINIAKO TXAPELKETA

## Espainiako Txapelketa irabazi berri, Europari begira dago Maider Unda

**X.U.** > ARAMAIO

Zapatuan gailendu zen Maider Unda Espainiako Borroka Libreko Txapelketan. Gainera, Granadan egin berri duen lorpenarekin, Oletakoak dagoeneko bederatzi aldiz irabazi du txapelketa hori; bederatzi aldiz izan da Estatuko onena. Undak aitortu digu, baina, badagoela marka hori gainditzen duenik: "Beste pisu batean lehiatzen den Minerva Montero borrokalariak hamar aldiz irabazi du txapelketa hori". Bada, Aramaiokoak badu beste marka bat gainditzeko bidea, kanariarra atzean uztea, alegia.

#### EUROPAKO TXAPELKETA

Espainiako Txapelketan egindako lanak Europan lehiatzeko atea ireki dio Undari: "Datorren hilean egingo dituzte Europako Txapelketak, Sofian (Bulgaria). Alde horretatik, ez dut deskantsua hartzeko asti handirik izango, txapelketa hori prestatu beharko dut-eta". 72 kilotik beherako kategorian, Aramaiokoak badaki txapelketa horretan daukan maila erakusten badu ez dela esku hutsik bueltatuko: "Zerbait ekartzeko esperantza daukat, bai. Txapelketa hasi arte, baina, horrelakoak ez dira horren argi ikusten.

Denboralditxo bat Madrilen egin eta gero, egun Gasteizen entrenatzen da aramaioarra.



Undak urrian hasi zuen denboraldia, eta hasi da fruituak jasotzen. GOIENKARIA

**MENDIA**

# Gaur egingo dute euskal mendizaletasunaren gala, Espaloia antzokian

18:30ean hasiko den ekitaldian, Euskal Mendizale Federazioak bederatzi sari banatuko ditu, tartean Patxi Usobiagari eta Patxi Basauriri


**PATXI USOBIAGA** Munduko txapelketa eraman duen Usobiaga sarituko dute.

**X.U.** > ARRASATE

Elgetako alkatea izango da, debagoiendarren artean, saria jasoko duen ordezkaria. Hala, Basauriri Antxon Bandres saria emango diote, kolaborazio interesgarrienagatik. Guztira, baina, Euskal Herriko Mendi Federazioak bederatzi sari banatuko ditu. *Guias Vascos de Montaña* argitalpenak jasoko du Ibilbideari saria. Mendiko lasterketetan egindako lanagatik Iker Karrerarendako izango da oroigarri bat, eta Arantza Lazurtegirendako izango da Sheve Peña saria. Horrekin batera, mendian egindako jarduera onenaren barruan, Alberto Zerainendako eta Xabier Altzolarendako izango da Andres Espinosa saria. Eskaladako jarduera onenaren barruan, aurten ez dago duda izpirik: Patxi Usobiaga eibartarrarendako izango da Angel Sopeña saria.

**BAITA ADISKIDE ONENEK ERE**

Andoni Arabaolazak eta Euskalmet euskal agentzia meteorologikoak jasoko dute Euskal Mendizaletasunaren Adiskide Onenari saria, eta azpimarratu egingo dute Gipuzkoako Kutxak mendiko jarduerak babesteko egiten duen ahalegina. Amaitzeko, Izaskun Zubizarretarendako izango da Andres de Regil saria.

Ekitaldia, baina, ez da sariak banatzera mugatuko. Mendiko proiekzioak egingo dituzte, Elgetako Abesbatzak emanaldia egingo du, eta baita Elgetako Musika Eskolak ere.


AFP

## Velascok lotsa barik ekin zion Paris-Niza lasterketari, ihesaldian sartuta

Euskaltel-Euskadiko ziklista Iban Velasco arrasatearrak Pro-Tour barruan estreinaldia egin berri du aste barruan, Paris-Niza lasterketan. Eta, lehenengo egunean bertan protagonista izan zen. Astelehenean, lasterketa hasi eta Velasco lehenengo ihesaldian sartu zen Feillu, Herve Duclos-Lasalle eta Laurent frantziarrekin batera. Eguneko ihesaldia izan zen hori, baina helmugatik bi kilometrora irentsi zuen tropelak. Erretratuan, Velasco Credit Agricole taldeko Christophe Laurentekin.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Lehenengo maila**
Vila-Real-Reala
Domeka. 17:00. El Madrigal.

**Preferente maila**
Ondarroako Aur.-Aretxabal.
Domeka. 16:45. Zaldupe.

Hondarribia-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Ondartza.

Martutene-Mondra
Domeka. 12:15. Martutene.

**Lehen erregionala**
Bergara-Elgoibar
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**Bigarren erregionala. Igoera fasea**
Gazteak-Elgeta
Zapatua. 15:30. Unbe.

**Bigarren erregionala. Kopa txapelketa**
Urki-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea**
Mondra-Beasain
Domeka. 16:30. Atxabalpe.

Aretxabaleta-Vaskonia
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 15:30. Azkoagain.

**Ohorezko mailako gazteak. Jaitsiera fasea eta Kopa**
Bergara-Hondarribia
Zapatua. 18:30. Ipintza.

**Lehen mailako gazteak. Igoera fasea**
Tolosa-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 17:30. Usabal.

**Lehen mailako gazteak. Kopa txapelketa**
Antzuola-Arrasate
Zapatua. 16:30. Estala.

Eibartarrak-Bergara
Domeka. 17:00. Unbe.

**Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea**
Touring-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 12:30. Errenteria.

Zarautz-Bergara
Domeka. 12:00. Asti Txiki.

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsiera fasea**
Lagun Onak-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Azpeitia.

Hernani-Arrasate
Domeka. 12:00. Zubipe.

**Lehen mailako kadeteak. Kopa Txapelketa**
Zestoa-Arizmendi Aretx
Domeka. 16:30. Zestoa.

Bergara-Ikasberri
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Emakumezkoen Liga. Igoera fasea**
Mondra-Vaskonia
Zapatua. 16:00. Atxabalpe.

BTLS-Luberri
Domeka. 16:00. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**Euskadiko Liga**
Euskal Sofa Inter-Eskoriatza
Zapatua. 17:15. Donostia.

**Lehenengo maila**
Aloña Mendi-Ventanas ISU
Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
UDA Mercedes-Power Rang.
Zapatua. 16:00. Aretxabalet.

**Gazteak**
Goierri-Aloña Mendi
Zapatua. 13:00. Urretxu.

**SASKIBALOIA**

**ACB**
Granada-Bruesa GBC
Zapatua. 18:30. Granada.

**Lehenengo maila**
Tabirako Ba-Mugarri Alkesa
Zapatua. 19:00. Durango.

**Emakumezkoen bigarren maila**
Mugarri Alkesa-Tabirako Ba.
Domeka. 12:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako senior maila, gizonezkoak**
Candy-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Labegaraiet.

KatuKaleKa-Ointxe Arrasate
Zapatua. 18:30. Eibar.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Andraitz
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

Oiarso-Aloña Mendi
Zapatua. 19:30. Errenteria.

**Gipuzkoako ligako junior maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Goierri
Zapatua. 19:15. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako junior maila, emakumezkoak**
Astigarraga-Eskoriatza
Zapatua. 11:00. Astigarra.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Easo
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Ford Mugarri-Easo Basoa
Zapatua. 16:00. Musakola.

Bergara-Goierri
Domeka. 10:00. Maria Lag.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak**
Aldapeta-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Eskoriatza.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Senior Maila**
Ford Mugarri-Lea Corazo.
Zapatua. 17:45. Iturripe.

**Euskadiko preferentea, emakumezkoak**
Bera Bera-Verkol Aloña
Zapatua. 16:30. Donostia

Bergara-Urduliz
Zapatua. 18:00. Labegaraiet.

**Euskadiko kadeteak, emakumezkoak**
Consulting-Verkol Aloña
Zapatua. 16:00. Gasteiz.

**Gazteak, gizonezkoak**
Amenabar-Bergara
Zapatua. 17:30. Zarautz

Egia-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Donostia.

**Kadete maila, gizonezk.**
Usurbil-Gatz Museoa
Zapatua. 16:30. Hernani.

Katilu-Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Legazpi.

**Kadete mailako Udaberri Saria, emakumezkoak**
Arrasate-Pulpo
Domeka. 16:00. Arrasate.

**PILOTA**

**Eskola Arteko Gipuzkoako Txapelketa, finalak**
Martxoak 17, 24 eta 31.
Zapatua. 16:00. Oñati.
Txapelketa horretan lehiatuko dira Deba ibarreko, Goierriko, Urola Kostako, Oriako, Donostiako eta Oarso-Bidasoak taldeak.

**DUATLOIA**

**Oñatiko 16. Duatloia**
Zapatua. 16:00. Oñati.
Atletek 8 kilometro egingo dituzte korrika, 40 biziketan, eta beste lau kilometro korrika.

**URPEKARITZA**

**Ikastaroa egingo dute Arrasaten, Nazioarteko titulua eskuratzeko**
Apirilaren 16an. Arrasaten.
Izenematea apirilak 13a baino lehen. 627 930 330.


**Arizmendi Queens-ek estreinaldi ona egin du**
ACB Ligak antolatzen duen Series Colegiales txapelketan Arizmendiko nesken taldeak finalerdietan esan dio agur txapelketari.

**FUTBOLIN TXAPELKETA**
Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat
eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)
BTLS 7 JOKU AUTOMATIKOAK
**www.ehmff.com**
**943 76 42 31 / 652776051**
**Altsasu:** Lurazpi **Antzuola:** Mox – Surpe **Aretxabaleta:** Haizea – Izotz – Kixkor **Arrasate:** Biona – Iturriotz – Equs – Udala **Azpeitia:** Korrale – Txarrantxa **Beasain:** Pott **Bergara:** Agorrosin – Avenida – Biko – Gaztetxea – Mitor **Eibar:** Balkoi – Hilbehera – Monteka **Ermua:** Carpediem – Xagua – Zabal **Eskoriatza:** Aldatz – Naira **Etxarri Aranatz:** Iturrieder **Gasteiz:** Irauli – Parkesur – Sorginak – Txintxarri **Oñati:** Arrano – Ongi – Otamendi **Ondarru:** 34 **Pasaia:** Kamio **Urretxu:** Berit – Florida – Gaztetxea

# Zorionak irabazleoi!

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAk, bere harpidedunen artean zozketatu dituen "Eutsi" filmaren kamiseta eta sarreren irabazleak honakoak dira:**




**"Eutsi" filmaren 18 kamiseten irabazleak**

- Guadalupe Goikolea Zabala (Arrasate)
- David Blazquez Diaz (Oñati)
- Iñaki Aranzabal Zabala (Arrasate)
- Santiago Ruiz Ansotegi (Osintxu)
- Arantzazu Barrutia Mitxelena (Bergara)
- Angel Mari Idiakez Aranburu (Antzuola)
- Arantzazu Garcia Azkoaga (Arrasate)
- Vicente Markuleta (Oñati)
- Peio Olabe Aranburuzabala (Aretxabaleta)
- Maite Uriarte Isaszelaia (Arrasate)
- Joxe Migel Bolivar Egibar (Bergara)
- Iban Barrutia Inza (Bergara)
- Luis Mari Otxoa Arrese (Aretxabaleta)
- Jose Antonio Elexpuru Unzueta (Aretxabaleta)
- J.J Enekotegi Ruiz de Azua (Eskoriatza)
- Miren Iñarra Balerdi (Bergara)
- Ihintz Bengoa (Arrasate)
- Iñaki Larrañaga Alberdi (Bergara)

**"Eutsi" filma ikusteko 2 sarrera pertsonako**

- Karmen Arabaolaza Alberdi (Arrasate)
- Fernando Calvoecheaga Zabaleta (Bergara)
- Josu Biteri Orobengoa (Eskoriatza)
- Bittor Kortabarria Ortueta (Aramaio)
- Marilu Guridi Arregi (Oñati)

**Sariak jasotzeko pasa zaitezte, martxoaren 12tik aurrera, astelehenetik egubakoitzera (09:00-13:00 / 14:30 - 18:30)**

**Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:**
**GOIENKARIA**
**Irizar Jauregia - Barrenkale 33**
**BERGARA**

**Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:**
**GOIENA**
**Nafarroa Etorbidea 2 - 1. solairua - 5. atea (Saiolan Eraikina)**
**ARRASATE**

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**ASTELEHENEKO GOIENKARIA,**
urte osoko harpidetza,
**35 euroren truke (902 36 38 51)**



**> ANTZERKIA**
Mireia Gabilondo, *Emakumeak izarapean* laneko zuzendaria **> 45**



**> KOMUNIKAZIOA**
Euskarazko hedabideak sendotzeko dirulaguntzak **> 51**

**> AITOR UNAMUNO**
Arantzazuko artzain eskolan ikasi du aramaioarrak artzaintzaren sekretu guztiak. Barajuenen daukan pabiloian dabil lanean, 220 ardirekin **> 50**



# Euskarazko film laburren zirkuitua

AZALA: ALEX AZKARATE

Euskarazko film laburren laugarren zirkuitua antolatu du Topaguneak

Filmen artean, bi dira debagoiendarrek egindakoak

**AMAGOIA LASAGABASTER** > ARRASATE
Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak abian du euskarazko film laburren zirkuitaren laugarren edizioa. Sei film aukeratu eta horiekin 37 emanaldi eskainiko dituzte. Euskara Elkarteek antolatuta, datozen egunotan Debagoieneko hiru herritan izango dira emanaldiak.

Topagunearen eta federatutako euskara elkarteen helburua euskara sustatzea izanik, antolatzen dituzten ekimen guztiek asmo hori dute. Film laburren zirkuituarekin, gainera, euskarazko produkzioa ezagutzera emateko ahalegin berezia egin dute. Hala erakutsi dute ikus-entzunezkoen alorrean ere baduela presentzia euskarak. Topaguneko kultura saileko arduradun Manuel Morenoren esanetan, film laburren egileek sarritan ez dute aukerarik izaten egindako filma banatzeko. Orain, zirkuituari esker

(44. orrialdean jarraitzen du)



'BILINTX' Antzoki zahar baten girotu du Jon Andueza arrasatearrak bere azken lana. GOIENKARIA

## Euskarazko film laburren zirkuitua

(43. orrialdetik dator)
37 emanaldi eskaini zaizkie: "Sarea sortu dugunetik, zuzendari ugari guregana etorri dira euren lanak zabaltzeko; filmak euskaraz sortzeko bidea ere egin dugu, hortaz", dio Morenok. Gainontzean, film laburrek ez dute banaketarako bitartekorik aurkitzen, eta, horren ondorioz, ez dira egiten.

Film laburrek zinema jaialdietan izaten dute zabalkunde handiena. Lekeitioko Zinema eta Bideo Bilera da euskarazko film laburren erakusleihoetako bat. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Kimuak elkarteak ere asko lagundu die. Kimuak kultura sortu eta zabaltzeko helburuarekin sortu zuten eta harrezkero, Euskadin egindako film labur ugari bultzatu ditu.

**EMANALDIAK**

Ekimenak herrietan izaten duen harrera ere ezin hobea da. Hainbatetan, zuzendarietako bat ere hantxe izaten da. Filmak ikusi ondoren, berbaldia egiten dute ikusleekin. *Loturak* filmaren egile Ane Muñoz hondarribiarra izan da horrelakoren batean eta esperientzia positibotzat jo du. Muñozen esanetan, herri txikietako ikusleria ez da elitista izaten eta haiekin hitz eginda ikuspuntu interesgarriak jaso izan ditu. 60 urteko etxekoandrea eta 14 urteko ikaslea batzen dira horrelako emanaldietan eta haien iritzia entzutea aberasgarri dela dio Muñozek.

Gure ibarreko emanaldietara, zoritxarrez, ez da zinema zuzendaririk hurbilduko. Hala ere, ikusleek debagoiendar bik egindako filmak izango dituzte ikusgai. Jon Anduezak *Bilintx* aurkeztuko du eta Asier Altunak *Sarean*. Altuna beteranoa da dagoeneko Topagunearen zirkuituan. *Topeka* filma eskaini zuen aurreko edizio batean bergararrak.

**SORRERA ETA ARAZOAK**

Film laburren zirkuitua abian jartzeko lehenengo ahalegina duela bost urte egin zuten. Topaguneak sumatu zuen euskara elkarteek bazutela horrelako ekimen bat aurrea ateratzeko gogoa. Orduan, baina, film laburren produkzioa nahiko ezezaguna zen, eta, gainera, finantzaketa arazoak zeuden. Horregatik, urte hartan, 2003an, ez zuten zirkuiturik osatu. Gerora, berriz, 2004tik aurrera, ez dute hutsik egin.

Filma eskaintzeko formatuak ere hamaika buruhauste eman die euskara elkarteei. Topaguneak egoki ikusten zuen filma jatorrizko formatuan, 35 milimetroan, eskaintzea, baina horretarako baliabide ugari behar ziren, batez ere ekonomikoak. Aurten, lehen aldiz, DVD formatua erabiliko dute emanaldi guztietan.

### Zirkuitua Debagoienean

**Martxoak 22**
OÑATI: 20:00etan, herriko kultura etxean (Laixanek antolatuta).

**Martxoak 25**
BERGARA: 19:00etan, Agorrosin kirolgunean (Jardunek antolatuta).

**Martxoak 30**
ARETXABALETA: 22:00etan, udaletxe zaharrean (Loramendik antolatuta).



'KIXI' *Aupa Etxebeste* arrakastatsuaren ondoren, *Sarean* filmatu du. GOIENKARIA


0 km
ESKAINTZA BEREZIA
**Mondeo** serie mugatua
**6.000 euroko**
deskontua.



MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak


AURTENGO ZIRKUITUKO FILM LABURRAK

### > Bilintx / Jon Andueza




Bilintx antzoki zaharreko atezaina da. Azkeneko egunetan, dantzari baten eboluzioa ikusten gelditzen da lana amaitu eta gero. Ikuskizunaren xarmak bultzatuta *casting* batera aurkeztuko da.

Jon Andueza Oregonen jaio zen, 1966an. Kamera aurrean ibili eta gero, azken hamar urteotan zuzendari eta gidoilari lanak egiten dihardu. *Bernar* eta *Laugarren galeriatik* film laburren egile da, besteak beste.

### > Loturak / Ane Muñoz




Pellok, hala-moduzko jokalariak, apustuekiko duen obsesioa muturreraino eramango du. Horretarako, ezagutu berri duen izeba Patxika erabiliko du.

Ane Muñoz Mitxelena hondarribiarra ezaguna da film laburren zirkuituan. *Loturak* bosgarren film laburra du. Aurretik, *El Salto de Beamon* eta *Basurdea* izeneko lanak argitaratu ditu, besteak beste. Film luzeetan *script* lanak egiten ditu Muñozek.

### > Midori / Koldo Almandoz




Entomologo batek Kiotoko kongresu batean hartuko du parte. Egun batean, hitzaldi batera joan beharrean tenplu bat bisitatuko du. Udaberriko egun arrunt bat izango da, bideokamera aurrean Midori azaldu arte...

Koldo Almandoz eskarmentu handiko zinema zuzendaria da. Zortzi film labur ditu bizkarrean. Nazioarteko zinema jaialdi ugaritan hartu du parte eta hainbat sari jaso ditu.

### > Osaba Jaxinto / I.Beraetxe




Baserriko ganbaran, erdi ilunpetan, oroitzapenak eta malkoak miazkatzen ditu osaba Jaxintok. Bakardade mingarriak eraikitako bere mundu beltz eta antzua, ordea, bat-batean aldatuko da. Haurren bisita jasoko du Jaxintok.

Aktore lanekin aspertuta ekin zion Iñaki Beraetxek film laburrak egiteari. *Txarri-hankak*, *Incomunicatio*, *Bosniarra* eta *Ostertz* film laburrak egin ditu orain arte.

### > Sarean / Asier Altuna *Kixi*




Dokumentala film labur bihurtuta aurkeztu du Asier Altunak. *Sarean* iparraldeko itsasoetan gertatzen den arrantzaren gaineko ikuspuntu bortitza da. Autoreak berak dioen moduan, sabelera zuzendutako kolpe garbia da.

Argiketari lanetan hasi zen Asier Altuna *Kixi* zineman. Geroztik, hainbat film labur egin ditu. 2005ean estreinatu zuen lehenengo luzea, *Aupa, Etxebeste*, Telmo Esnalekin lankidetzan.

### > Xoxoak beleari ipurbeltz / Oskar Galan




Betiere besteengan ikusi gura dugu gure erruen edo bekatuen zergatia. Film labur horrek antzinako ipuin txinatar baten bidez erakusten digu gauzak ez direla beti gure irudimenak islatzen dituen bezalakoak.

Ozkar Galan gernikarra antzerki idazlea eta aktorea da; hala ere, dagoeneko hiru film labur egin ditu Natxo Lukas eta Marta Marinekin batera.

**Mireia Gabilondo** > Antzerki zuzendaria

# "Emakumeek egindako lana da, baina gizonek disfrutatu eta ikasi ere egiten dute"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Etzi, domeka, Tanttaka antzerki taldeak *Emakumeak izarapean* antzezlana egingo du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da, eta euskaraz egingo dute. Asteon, ikuskizunaren egile eta zuzendari Mireia Gabilondo bergarrara Arrasate Irratian izan da.**



Mireia Gabilondo bergararra da ikuskizunaren egile eta zuzendaria. GOIENKARIA

**Zer-nolako antzezlana da *Emakumeak izarapean*?**

Izenburuak ondo azaltzen du aurkituko duzuena. Emakumeak eta sexua, maitasuna eta intimitatea ditugu berbagai. Umorea badauka, jakina, baina baita kontu garratzagoak eta zailagoak ere, bizitzak berak bezalaxe. Hala ere, esan beharra dago jendeak oso ondo pasatzen duela, eta barre asko egiten duela.

**Eta sexua da ikuskizunaren ardatza?**

Sexua da ardatzetako bat. Bost emakume igoko dira agertoki gainera, eta euren bizitzen gaineko azalpen txiki bana egingo dute bakarrizketan. Horren ostean, ikusiko dugu bizitzan aurrera zelan egiten duten.

**Zer pertsonaia aurkituko ditugu agertokian?**

Bost emakume. Hain zuzen ere, gaztetxoenak 18 eta 20 urte bitartean izango ditu. Hark kontatuko digu mutil-lagunarekin utzi egin duela, eta sexuarekin zer harreman daukan. Aitziber Garmendiak egingo du hori. *Martin* telesailean egiten du lan Garmendiak.

*Goenkale*-n aritzen den Sara Cozarrek, berriz, ez du bikotekide bakarrean sinisten, eta kontatuko digu errazago egiten zaiola hainbat harreman izatea.

Beatriz Martinez de Antoñana, berriz, une zail eta garratza bizi izaten ari da. Depresioak jota dago eta bikotekidearekin ez dabil oso gustura.

Teresa Calo aktoreak arazo txiki bat du; hain zuzen ere, orgasmoa izatea kostatu egiten zaio, eta itxurak egiten ditu.

**"Ikuskizunak badu zerbait jende asko erakartzen duena; ez dakit sexua den"**

**"Ikuskizunaren ardatz emakumeak eta sexua, maitasuna eta intimitatea dira"**

Bosgarren emakumea Pilar Rodriguez da. Emakume heldua eta alarguna da. Bere bizitza sexuala zelakoa den kontatuko digu. Orain bakarrik bizi da eta oso gustura dago.

**Eta izango da gizonezko aktorerik?**

Bai, Asier Hernandezek hainbat gizon irudikatuko ditu: aingeru guardakoa, konpainia goxokoa, terapeuta, laguna, iritsi berria, aita...

**Ohiko galdera bat izango dena: antzezlana emakumezkoei zuzenduta dago?**

Ez da emakumezkoendako bakarrik. Emakumeek egina da, emakumeen gainean berba egiten dugu eta emakumeak daude taula gainean, baina publiko guztiarendako da. Gizonezko asko etorri dira antzezlana ikustera eta askok disfrutatu egin dute. Are gehiago, antzezlana ikusi ahala, gauza asko ikasiko dituzte...

**Orain dela gutxi estreinatu duzue. Zelako harrera izan du?**

Hilaren hasieran estreinatu genuen Eibarko Antzerki Topaketetan. Bi egunean egin genuen, baten euskaraz eta bestean gazteleraz. Bietan aretoa bete egin genuen. Beste ikuskizunetan ere harrera ona izan da. Nik uste dut ikuskizunak baduela zerbait ikusleak erakartzen dituena. Ez dakit sexua den, emakumeak... . Bestalde, aktoreak ere asko disfrutatzen dabiltza.

**MUSIKA** > ESKOLA ARTEKO XX. ABESBATZEN TOPAKETAK

# Abesbatzen topaketak egingo dituzte zapatuan

Debagoieneko eskola arteko abesbatzen topaketak hogeigarrena egingo du bihar, Arrasateko Uarkape pilotalekuan

**I.B.**> ARRASATE

Bihar, zapatua, Debagoieneko eskola arteko abesbatzen XX. topaketak egingo dituzte Uarkapen, 17:00etan.

Arizmendi Ikastolak hartu du topaketak antolatzeko ardura. Eta honako erakundeek lagundu dute: Arrasateko Udalak, Euskadiko Kutxak, Eroskik eta Kutxak.

Arizmendi Ikastolako lau abesbatzek esku hartuko dute ekitaldian. Haur Hezkuntzako 5 urteko umeetatik hasi eta DBH artekoak izango dira abesten agertoki gainean.

**SAHARA LAGUNTZEKO**

Arizmendikoez gain, beste talde hauek izango dira Uarkapen: Mesedeetako Andra Mari ikastetxea, Arrasatekoa; San Martin Herri Eskola, Aramaiokoa; Txantxiku Ikastola, Oñatikoa; Anaitasuna Institutua, Ermukoa; eta Ganbara Txiki abesbatza, Oñatikoa.

Sarrerak zapatuan salduko dituzte txarteldegian; eta jasotako diruaren %25a Saharako herria laguntzeko bideratuko dute GKE baten bitartez.




**IKASLEAK KANTUAN** Argazkian Arizmendi Ikastolako talde bat. ARIZMENDI

> MUSIKA

## Une, Kauta eta Keike taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan

Aspaldian Debagoienera atzerriko talde dezente etortzen diren arren, tarteka Euskal Herriko taldeak ikusteko aukera ere izaten dugu. Gaur bertan, gaurkotasuneko hiru talde indartsu izango dira Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean.

Batetik, Aitor Uriarte oñatiarrak gidatutako Une taldea arituko da; horrez gain, Andoaingo Kautak melodiaz jositako metala eskainiko du; eta Ondarruko Keike taldeak rock indartsuan oinarrituko du emanaldia.



INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
**Bergara:**
- S. Antonio 50 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- San Pedro 110 m². Estreinatzeko.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Aranerreka 87m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m² Ondo.
- Ibargarai 87 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 60 m². Berritua.

***Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon.2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.***

**Elgeta:**
- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Arrizuri 97 m², oso ondo.
- Juan XXIII 80 m², berritua.
- Masterreka 87 m², oso ondo.
- Zabalotegi 50 m², berritua.
- Bidekurutzeta 60 m², oso ondo.
- Zubiaurre 60 m², prezio ona.
- Ortuibar 100 m², garajearekin.
- Paseo Irizar 89 m², garajearekin.
- Erdialdean 200 m², aukera ona.
- Bidekurutzeta 82 m², ia berria.
- Ibargarai 80 m², ondo.
- Artekale 62 m², oso ondo.
- Zubieta 70 m², oso eguzkitsua.
- Osintxu 82 m², garajearekin, ondo.
- San Lorentzo 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

**SORALUZE**
- Gabolatz, 65 m², oso ondo
- Atxuri, 93 m², oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Beheko auzoa, 53 m², prezio pna.
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ARRIETA & SAN MIGUEL
INMOBILIARIA-AGENTZIA
API

**ARRASATE - Eguzki dorrea**
- 80m².
- 3 logeta / 2 bainugela.
- Guztiz berrituta / Eguzkitsua.
- 299.500 euro

**ARETXABALETA - Otalora kalean**
- 101m²ko duplexa.
- 4 logela / 2 bainugela.
- Oso egoera onean / Leku lasaiean
- 321.000 euro

Ilargi plaza 6. ARETXABALETA - Tel.: 943 53 40 00
Iturriotz kalea 23. ARRASATE - Tel.: 943 71 17 81
www.arrietasanmiguel.com

Alfa
INMOBILIARIA
HIPOTECAS
Parrokia ondoan
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

**ARRASATE**
- Erguin: 2 logela, sukaldea, egongela, bainua eta berogailua. 30.000.000 pta.
- Santa Teresa. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua. 30.000.000 pta.
- Uribe Auzoa. 3 logela, sukaldea eta bainugela. 38.000.000 negoziagarriak.
- Uribe Auzoa. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainua. Berehala joateko. 53.500.000 pta.
- Makatzena. 72 m². Berritzeko.
- Erguin. 65 m². Oso ondo.
- Zentroan. 115 m². Garajea. Arrasateko tokirik hoberenean. Bista ezin hobeak.

**ARETXABALETA**
- Markole. 99 m². Bi trasteleku eta garajea.
- Etxe bakarra, 140 m². 400 m²-ko lursaila. Garajea.
- Estrenaitzeko etxebizitza. 3 logela, 2 bainu, egongela, sukaldea, ganbara eta garajea. 49.000.000 pta.
- Portasol. 85 m². Berritua. Prezio ona.

**www.alfamondragon.com orrialdean 7.000 etxebizitza baino gehiago aukeran**

ARETXABALETA

Zerbitzaria behar da asteburuetarako.
652 70 82 46

Auzo Lagun
ERKOP

ESKOLA ETA IKASTOLA EZBERDINETARAKO BEGIRALEAK BEHAR DITUGU.

- Euskara beharrezkoa da.
- Egunean 3-4 ordu.
- Kurrikuluma:

rrhh.urc@auzolagun.com

ARRASATE

Enpresa batek administrari eta kontabilitate lanak egiteko langilea behar du. **Ordutegi malgua.** KONTRATUAREKIN. Esperientzia baloratuko da. Curriculumak: konta2007@gmail.com
943 77 12 37

DEBAGOIENA

Etxe-agentzia batek KOMERTZIALA behar du. 28 urte baino gehiagokoa. Bidali curriculum-a argazkiarekin inmoempleo@hotmail.com-era

ARRASATE

Esperientziadun ile apaintzailea behar da.
606 63 06 14

ARRASATE

Muxibar jatetxean aste bukaeretan **sukaldaria** behar da.
943 79 11 25

BERGARA

Ariznoa tabernak zerbitzaria behar du.
943 76 52 30

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Baserri baten dagoen etxebizitza salgai. Eguzkitsua eta lursailarekin. 943 65 42 44.

**Antzuola**. Buztinzuri kalean. 74 metro koadro. Hiru logela. Eguzkitsua. Altzariekin. 616 09 46 55.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. Telefonoa: 607 79 00 37.

**Antzuola.** Zurrategi plazan duplexa salgai. 666 81 56 42.

**Aretxabaleta.** 97 m², hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, berogailua. Erdialdean. Telefonoa: 660 79 27 67.

**Arrasate.** Bi logela. Berogailua. Guztiz jantzita. Erdialdean. Telefonoa: 666 40 51 54.

**Arrasate.** Etxea salgai. 93 m². Hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela eta ganbara. Garajea aukeran. 670 42 21 08.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

**Arrasate.** Gorostiza (Malvinak) auzoan. 3 logela, egongela, jangela, 2 bainugela, ganbara handia, garajea eta ikuspegi zoragarria. Guztiz jantzia. Telefonoa: 686 01 75 45.

**Arrasate.** Maalako Errabalean etxebizitza salgai. 76 m². Berria. Dena kanpoaldera. Telefonoa: 695 77 62 19.

**Arrasate.** Zarugalde kalean etxebizitza salgai. 80 m². 3 logela. Dena kanpoaldera. Berritua. 606 55 10 92.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldea, trastelekua eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. 628 26 65 77.

**Bergara.** Erdialdean. 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Bizitzeko gertu. 120.000 euro. 679 45 57 62.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Berrituta dago, berogailua dauka eta baita ganbara ere. 943 28 76 36.

**Bergara.** Ibargarai kalean. 70 metro koadro. Berria, eguzkitsua, dena kanpoaldera eta balkoiarekin. 659 04 37 70.

**Bergara.** Labegaraietan. Guztiz berritua, eguzkitsua, ikuspegi onak. Bi logela, sukaldea, jangela, berogailua, bainugela hidromasajearekin. Bizi izatera sartzeko. 196.000 euro, negoziagarriak. 635 71 04 55.

**Bergara.** Zabalotegin, 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela eta 2 logela. 14 metro koadroko sotoa. Berritua. 635 72 67 11.

**Bergara.** Zubiaurre kalean. 60 metro koadro. Berogailua. Guztiz jantzita. 162.000 euro. 619 65 10 87.

**Bilbo.** Loft-a salgai, 63 m². Dena berritua, argitsua, orientazio ona. Jantzita. Telefonoa: 656 78 70 34.

**Cambrils** (Tarragona). Apartamentua salgai Llosa inguruan. Hondartzatik oso gertu. Garajea, igerilekua eta lorategia. 619 72 34 33.

**Elgeta.** Hiru gela, ganbara, igogailua. 138.232 euro. Telefonoa: 946 81 71 97.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzon. Saloi-sukaldea, 2 logela, komuna eta terraza handi bat. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñati.** Etxea salgai San Lorentzon. Garajea aukeran. Prezioa, negoziagarria. 656 74 80 47.

**Oñati.** Etxea salgai. Hiru gela, bi bainugela, sukaldea, sala, ganbara. Garajea aukeran. 685 77 28 05.

### 102. EROSI

**Arrasaten** 2 logelako etxe berria edo berritua erosiko nuke. 609 41 53 26.

**Arrasaten,** Zigorrola auzoan 3 gelako etxebizitza behar da. 653 71 64 79.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta egongela. 645 70 71 23.

**Bergara.** Erdialdean. Hiru logela. 685 72 51 58.

**Bergaran.** Erdialdean. Simon Arrietan. 80 metro koadro. 664 73 49 60.

**Cambrils** (Tarragona). Apartamentua, hondartzatik oso hurbil. Igerileku eta berdegunearekin. 610 79 47 29.

**Carboneras** (Almeria). Bi etxebizitza ematen dira errentan. Hondartzan daude. Itsasora ematen dute. 1.000 euro hamabostaldia. 950 13 00 27.

**Noja.** Apartamentua errentan ematen da. Garajea eta igerilekua dauzka. 635 75 35 29.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Lau neska ikasle etxebizitza bila dabiltza unibertsitatetik gertu. 645 73 89 34 edo 635 71 26 27.

**Bergara.** Bikote bat errentan hartzeko etxe bila dabil. 500 euro inguru ordaintzeko gertu. Josu edo Joana. 669 56 56 87 edo 648 81 67 21.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke. 609 38 86 47.

**Bikote** batek Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten apartamentua errentan hartuko luke. 660 03 16 22.

**Debagoiena.** Bi neskak etxebizitza alokatu gura dute. Arrasaten bada, hobeto. Telefonoa: 616 05 97 92.

**Debagoiena.** Errentan hartzeko etxebizitza txikia behar dut. 650 11 15 28.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 52 29 69.

**Debagoiena.** Hiru logeladun etxebizitza hartuko genuke errentan. 650 11 15 28.

**Debagoiena.** Senar-emazteak gara eta etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Ez dugu seme-alabarik. Kanpotarrak gara. Irekiak. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Familia** batek etxebizitza hartuko luke errentan Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. 617 69 07 52.

**Oñati.** Bikoteak etxebizitza errentan hartuko luke. 616 60 13 28 edo 699 06 29 19.

**Oñati.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 603 03 13 22.

**Oñati.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. 943 81 09 26 edo 650 56 39 92.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Gela bat errentan ematen da etxea osatzeko. Durana kalean. 616 75 41 30.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat falta zaigu. Etxe erosoa eta handia. Ekonomikoa. 615 72 33 44.

**Arrasate.** Gela bat errentan ematen da, unibertsitatetik gertu. Pertsona arduratsua izan dadila eskatzen da. Telefonoa: 616 32 90 12.

**Arrasate.** Uribe auzoan etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 685 73 67 54.

**Debagoiena.** Bi neskak beste batzuekin etxebizitza osatu gura lukete. Arrasaten gurago dute. 636 05 36 18.

**Oñati.** Logela errentan emango nuke. 617 44 85 19.

### 106. BESTELAKOAK

**Aretxabaleta.** Etxebizitza eraikitzeko baimena duen lokala salgai. Argitasun handia, leku lasaia eta ondo kokatua. Eremua 74 m2 eta altuera 3,35 m. Telefonoa: 699 86 14 32.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Uribarri etorbidean. 16.000 euro. 625 47 61 62.

**Bergara.** Garaje bikoitza salgai erdialdean. Hari atxikitutako lokala errentan hartzeko aukera dago. 625 70 86 50.

**Bergara.** Garaje itxia salgai, San Lorentzon. 943 76 40 05.

**Bergara.** Garajea salgai Masterreka kalean. 607 15 26 62.

**Bergara.** Zubiaurren garajea salgai. 37 metro koadro. 606 65 97 82.

**Oñati.** Garajea salgai San Lorentzo auzoan. 678 80 87 53.

### 202. EROSI

**Bergara.** Garajea erosiko nuke Koldo Eleizalden. 646 07 48 96.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasaten** Garaje itxia. Uarkapen. Deitu telefono honetara: 680 77 64 05.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Oñati.** Etxea garbitzeko lagun bat behar da. 943 71 61 48.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu atariak garbitzeko edo umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko. 5 urteko esperientziarekin. 663 61 74 38.

**Arrasate.** Emakumea esperientziarekin gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko garbiketak egiteko. 943 08 12 80.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko nahiz tabernako garbiketak egiteko. Arratsaldeetan, orduka. Esperientziarekin. Telefonoa: 943 77 16 73.

**Arrasate.** Emakumeak lan egingo luke sukaldari laguntzaile, zaharrak edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen... Orduka. 637 21 97 04 edo 943 79 76 39.

**Arrasate.** Emakumeak lan egingo luke zaharrak edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen... Orduka. 697 93 73 32.

**Arrasate.** Mutil gaztea gertu obran, garbiketa lanetan edo nekazaritza lanetan lan egiteko. 663 61 74 38.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 665 75 41 32.

**Bergara.** Emakumea gertu lan egiteko garbitasunean edo nagusiak zein umeak zaintzen. 646 75 08 07.

**Bergara.** Emakumea gertu lan egiteko garbitasunean edo nagusiak zein umeak zaintzen. 657 71 51 94.

**Debagoiena.** Emakume bat gertu umeak edo edadetuak zaintzeko nahiz garbitasun lanak egiteko. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Emakume batek umeak zainduko lituzke arratsaldeetan. 686 02 33 03.

**Debagoiena.** Emakume gazteak arratsaldez lan egingo luke. 636 35 29 80.

**Debagoiena.** Emakume gazteak lan egingo luke umeak edo pertsona nagusiak zaintzen, edo garbiketa lanak egiten. Etxe barruan bizitzeko gertu ere badago. 679 27 37 53.

**Debagoiena.** Emakumea astelehenetik egubakoitzera eguneko menuak zerbitzatzeko prest. 652 75 95 64.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. 639 94 48 65.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. 648 81 67 21.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta haurrak edo adineko pertsonak zainduko nituzke orduka. 636 91 93 81.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Edozein lan egingo luke: mekanikari laguntzaile, argiketari, arotz edo banatzaile. Lanaldi osoa hartuko luke, gauez edo egunez. 638 43 80 27 edo 619 34 71 85.

**Debagoiena.** Gizonezkoak apalbetetzaile moduan lan egingo luke. Fausto. 647 49 72 90.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lanetarako prest. 609 98 02 52.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu gaixoak, umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita ere garbiketak egiteko. Laguntzaile titulua daukat. 606 64 22 84.

**Debagoiena.** Neska gertu ostalaritzan lan egiteko. Maria. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92.

**Debagoiena.** Zerbitzari lanerako gertu mutil bat. Telefonoa: 653 85 48 59.

**Emakumea** pertsona nagusiak gauez zaintzeko prest. Telefonoa: 685 75 43 80.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskola partikularrak emateko pertsona bat behar da. Telefonoa: 605 74 43 64.

**Arrasate.** Batxilergoko 1. eta 2. mailetako eskola partikularrak hartzeko irakasle bat behar dut. 650 62 61 78.

**Kimika.** Batxilergoko 2. maila egiten ari den neska batek kimikako eskola partikularrak hartuko lituzke Aramaio edo Arrasaten. 945 44 53 60.

### 502. EMAN

**Bergara.** Fisika eta matematika eskolak ematen ditut. Baita unibertsitate mailakoak ere. Marco. 696 38 10 07.

**Goi mailako** ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroën ZX** 1.4 i autoa. Bost ate, aire girotua, 76.000 km. Telefonoa: 659 44 87 08.

**Citroën C3**, HDI 1.4 autoa salgai. 42.000 Km. 2003ko martxokoa. Aire girotua. Telefonoa: 685 71 80 66.

**Derby Senda** Supermotar. 900 eurotan salgai. 50 cm³, 2002koa. 15.000 km. Deitu arratsaldez. 616 68 32 54.

**Golf** GTI III. 943 76 64 71.

**Hagunak (llantak)** saltzen ditut: R19 16 v lehenengo modeloko 5 hagun. Peugeot 250 GTI modeloko 4 hagun. 658 72 11 49.

**Opel Vivaro** furgoneta salgai. Hornitua. 2003koa. 28.000 km. 943 71 61 00.

**Peugeot 106** salgai. Diesela. Bost ate, 140.000 km, egoera onean. 2.400 euro. Jon. Telefonoa: 669 17 01 72.

**Suzuki SJ** 410 autoa salgai. 1.000 cm3. 2.500 euro. Telefonoa: 651 59 64 55.

**Volkswagen** Sharan 1.8 Turbo. Gasolinazkoa. 1999koa; 121.000 kilometro, ABS, aire-girogailua eta aire-poltsak. Oso egoera onean. 7.500 euro. Telefonoa: 645 73 97 69.

**Yamaha 250** motorra salgai. 2001ekoa. 3.000 km, oso egoera onean. Egoitz. 635 71 67 06.

**Rieju RR Castrol** motorra salgai. 50 cc. 2000koa, goera onean. Telefonoa: 600 82 73 38 edo 943 77 02 30.

### 602. EROSI

**Renault Express** edo antzeko auto merke bat erosi nahi nuke. 647 24 40 54.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Artzain** txakurra salgai. Hilabete du. 650 62 61 78.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Antzinako** altzariak salgai: oheak, armairuak, mahaitxoak eta abar. Eraberritu beharrean daude. 615 74 13 47.

**Argazki kamera**. Canon EOS 300; 28-90 mm-ko objektiboa. Poltsa opari. 150 euro. 639 90 36 18.

**Argazki kamera.** Olympus Camedia, D 390. 2.0 megapixel; 2.5x zoom digitala eta bi memoria txartel. 60 euro. Deitu telefono honetara: 639 90 36 18.

**Arrasate.** Kanpin denda (120,20 €) eta sukalde denda (30 €) salgai. 2 logela eta pasillo zabala. 4 pertsonarendako. Telefonoa: 943 79 57 64.

**Epiphone SG** gitarra. 2004an erositako G400 Custom zuria, Jeff Beck pastillarekin eta neurriko kaxarekin, oso ondo zaindua. 350 euro. Deitu telefono honetara: 607 21 19 69.

**HH Bassamp** baxu anplifikadorea (kabezala),100 watt. 150 euro. 607 21 19 69.

**Jaurnartzerako** almirante jantzia. Neurria: 8. 150 euro. Telefonoa: 943 77 16 73.

**Lursail** bat saltzen dut. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

**Nokia 6280** poltsikoko telefonoa salgai. Vodafone. Estreinatu bakoa. Gurutze. Telefonoa: 679 86 51 36.

**Olympus SP-500** argazki kamera digitala. Sei megapixel, 10eko zoom optikoa. 260 euro. Telefonoa: 667 94 52 12.

**Ume-kotxea** salgai. Silver Cross markakoa. Urdina. Egoera oso onean. Deitu telefono honetara: 615 74 13 47.

### 806. GALDU

**Biolina** galdu nuen Oñatiko musika eskolan otsailaren 13an. Urte ugari dituen eskuz eginiko biolina da. Egurrean zati batzuk falta zaizkio. Duen balio ekonomikoaz gain, lanerako behar dut eta balio sentimental handia du. Aurkitzen duenari sari bat emateko prest nago.Deitu telefono honetara: 943 78 31 74 edo 686 60 48 56.

**Bizikletako poltsatxoa** galdu dut errepidean. Ganbera eta giltzak ditu barruan. Telefonoa: 606 65 85 86.



Aretxabaletako **Iratxe Elizburu** eta Zizurkilgo **Axier Imaz** martxoaren 17an, zapatuan, Zizurkilgo udaletxean ezkonduko dira eta gauean Asteasuko sagardotegian ospatuko dute lagunekin. Egun zoragarria pasa eta itsas bidaian primeran ibili. Koadrilakoak.

## hildakoak

- **Inazio Beristain Urkiri.** Bergaran (Elosu), martxoaren 9an. 83 urte.
- **Angeles Arana Arantzeta.** Arrasaten, martxoaren 10ean. 93 urte.
- **Inazio Zabala Larrañaga.** Bergaran, martxoaren 11n.
- **Alicia Soler Otxoa.** Arrasaten, martxoaren 11n. 91 urte.
- **Victoria Prieto Moral.** Arrasaten, martxoaren 12an. 68 urte.
- **Jose Velez de Mendizabal Abarrategi.** Arrasaten, hilaren 13an. 72 urte.
- **Antonio Lazkanoiturburu Korkostegi.** Oñatin, martxoaren 13an. 83urte.
- **Geronimo Sandoval Ramos.** Arrasaten, martxoaren 13an. 84 urte.
- **Maria Fernandez Fernandez.** Arrasaten, martxoaren 14an. 94 urte.

VIII. URTEURRENA

## Mikel Elorza Colinas



Zortzigarren urteurreneko meza egubakoitzean, martxoaren 16an, 20:00etan, Oñatiko Bidaurreta elizan.

—

*Gurasoek, anaiek, osaba-izebek, gainerako senideek eta adiskideek maitasunez gogoratzen zaitugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maitere Bergara Iturbe



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Benito Lizarralde Urkia



Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 17an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren elizan.

—

*Gure artetik joan zinela urtebete pasa zaigu Urrezolako paradisua da hutsunaren testigu bertan ematen bait zenituen berdin uda eta negu Barrenetxe baserrian hutsunea sentitzen dugu zure zintsotasuna oroituz bizi gara gu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Angeles Arana Aranzeta

Arrasaten hil zen 2007ko martxoaren 10ean, 93 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2007ko martxoaren 16an.

Babeslea:

OROILORE

Hileta eta beilatoki zerbitzuak

*Zerbitzu etengabea 365 egunean*

*Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera…*

*Erantzun azkarra, tratu pertsonala*

*Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan*

*Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak*

*Bete beharreko tramiteak*

*Gorpua prestatu eta dotore ipini*

*Zerraldo aukera, denetariko prezioak*

*Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76

URTEURRENA

## Juan Kortabarria Gabilondo

Maritxu Arandoren alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 18an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Berri-emailea / * Irudiko animalia
Barazki mota / Zaborrak
Burmuina / Hizkuntza zaharra
Latz / Lasai
Inudea / Tuberkulu mota
Beratzen jarri / Arraunen euskarri
Indioa / Bokala
Eromena / Hondamena
Bokala / Otx!
Infusio mota
Mezaren hasiera / Etxe aberea
Ikas eta Ari / Bokala
Kontso-nantea / 50
Bilo

GOIENKARIA

## umore giroan



Kike Amonarriz

**Oraindik horrela**

Andrea Anbulatorioko harrera leihatilara hurbildu da:

- Esango al didazu, mesedez, zer egin haurrak pediatrara eramateko? —galdetu dio harreragileari—.
- Zer urte dituzte haurrek?
- 4 eta 2.
- Eta ez al dituzu aurretik inoiz ekarri?
- Ez, egia esan, ez naiz oso medikuzalea,... Ez dut uste senarra duela sei urte hil zitzaidanetik anbulatorioan sartu naizenik.
- Hara! Senarra duela sei urte hil eta bi haur txiki dituzu?
- Aizu! Hildakoa senarra da... Ez ni!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 3 | 9 | | | 4 | 7 | | |
| | | | | 1 | | | | |
| | 8 | | 2 | | | 3 | | 6 |
| | | | | | | 1 | 5 | |
| 4 | | | 7 | | 6 | | | 9 |
| | 9 | 8 | | | | | | |
| 3 | | 4 | | | 5 | | 2 | |
| | | | | 7 | | | | |
| | | 6 | 1 | | | 4 | 9 | |

## hieroglifoa

Gipuzkoako herria



## hizki salda

Euskalerriko 5 hondartza

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | Z | E | H | U | L | I | L | Z |
| I | U | L | A | I | D | A | A | L |
| D | E | D | I | T | A | I | G | U |
| A | N | U | I | Z | R | O | I | A |
| R | A | D | H | U | K | E | L | O |
| T | S | E | T | R | Z | T | D | I |
| E | N | G | A | U | I | I | O | R |
| D | E | M | E | N | P | O | T | A |
| K | A | R | R | A | S | P | I | O |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | K | | L | | G |
| | | | G | A | Z | E | L | A |
| | | | | Z | A | K | A | R |
| | H | | B | E | R | A | T | U |
| P | A | T | A | T | A | | I | N |
| | Z | O | R | A | M | E | N | A |
| G | A | L | E | R | A | | A | |
| | M | E | | I | K | A | | T |
| K | A | T | U | A | | I | L | E |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 3 | 9 | 8 | 6 | 4 | 7 | 1 | 2 |
| 6 | 4 | 2 | 3 | 1 | 7 | 9 | 8 | 5 |
| 1 | 8 | 7 | 2 | 5 | 9 | 3 | 4 | 6 |
| 7 | 6 | 3 | 9 | 4 | 2 | 1 | 5 | 8 |
| 4 | 1 | 5 | 7 | 8 | 6 | 2 | 3 | 9 |
| 2 | 9 | 8 | 5 | 3 | 1 | 6 | 7 | 4 |
| 3 | 7 | 4 | 6 | 9 | 5 | 8 | 2 | 1 |
| 9 | 2 | 1 | 4 | 7 | 8 | 5 | 6 | 3 |
| 8 | 5 | 6 | 1 | 2 | 3 | 4 | 9 | 7 |

**Jeroglifikoa:** Behi-zama
Beizama

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | Z | E | H | U | L | I | L | Z |
| I | U | L | A | I | D | A | A | L |
| D | E | D | I | T | A | I | G | U |
| A | N | U | I | Z | R | O | I | A |
| R | A | D | H | U | K | E | L | O |
| T | S | E | T | R | Z | T | D | I |
| E | N | G | A | U | I | I | O | R |
| D | E | M | E | N | P | O | T | A |
| K | A | R | R | A | S | P | I | O |

## bono fotoa



**Argazkian ageri diren etxe sailak Arrasateko Uribarri auzoan daude. Auzo horretan ikerketa enprresentzako industrialde handia egiten ari da. Nola du izena industrialde horrek?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..........

IZEN-DEITURAK ..........
TELEFONOA..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Kas**
2 litroko botila
0,99 € 165 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Arrasateko **DANEL LEUNDA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: Artixa errekan.**

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Aitor Unamuno > Artzaina

# "Bizimodu honek bete egiten nau; gustura bizi izateko aukera eman dit"

18 urte zituenean hasi zen Aitor Unamuno Fagorren lanean. 25 urterekin, baina, lantegiko lana utzi eta artaldea jartzea erabaki zuen. Arantzazuko artzain eskolan ikasi du aramaioarrak artzaintzaren inguruko sekretu guztiak. Orain, Barajuenen daukan pabiloian aritzen da lanean, 220 ardirekin. Gainera, gazta ere egin du: apirilerako egongo da gertu.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Aitor Unamunorekin Aramaion duen pabiloian izan gara, Barajuen auzoko Elizaurre baserriaren gaineko partean egin duen ardientzako kortan. Eta egunotan lan handiarekin dabil; izan ere, ardiak zaintzeaz gain, gazta egiten ari da Unamuno.**

**Familiatik datorkizu baserriko bizimodua?**

Bai. Amama artzain izandakoa da; bizi guztian izan ditugu ardiak etxean. Gero, osabak hartu zuen errelebua. Osaba, baina, ez da artzaintzatik bizi izan: beti izan du 100 buru inguruko artaldea, baina ez du bizimodua hortik atera.

Ni laguntzen aritu izan naiz etxean; beti gustatu izan zaizkit mendia eta animaliak, eta, azkenean, nire bizimodua hau izatea erabaki dut. Lehen, Fagorren egiten nuen lan, baina nazkatuta nengoen, eta erabakia hartu behar izan nuen: lantegian jarraitu edo artaldea jarri eta bizimodua artzaintzatik atera.

**Arantzazuko artzain eskolan ikasi duzu. Nolako esperientzia izan da?**

Arantzazuko eskolan asko lagundu didate; han hartutako aholkuak lagungarri izan zaizkit pabiloia jartzeko orduan: zein animalia jarri, zelan egin pabiloia, zelan egin gazta... Urtebeteko ikastaroa da eta urte bukaeran praktikak egiteko aukera dago. Ni neu hiru baserritan egon naiz: Iparraldean, baserri baten, 15 egun egon nintzen eta baita Getarian ere.

Eskolan, artzaintzatik bizi diren artzain asko ezagutu ditut, eta haiek asko erakusten dute. Azken finean, haiek bizi izan dutena erakutsi digute.

**Eta zelakoa da zure eguneroko lan jarduna?**

Urtaroaren arabera, egunak ezberdinak izaten dira. Negua gogorra izaten da; ume denboran, erditzeak direla-eta, gauean uneoro jaiki beharra egoten da. Gero, egunean zehar, gazta egin, azpiak garbitu... Lan handia egoten da. Gainera, bildotsak zaindu beharra ere egoten da eta horrek denbora luzea kentzen du.

Amak eta bildotsak zenbatu egiten ditut eta liburu batean dena idazten dut; erditzeen kontrola deritzo horri. Ardi bakoitzaren datu guztiak ageri dira: zenbat ardi izan dituen, arrak edo emeak izan dituen, hil diren ardiak, zelakoa izan den erditzea, botikarik hartu duen, eta abar. Datu horiek Arabako artzainen elkarteari ematen dizkiot; gero, elkarteak ardi bakoitzak zenbat esne ematen duen eta errentagarria den edo ez kontrolatzen du. Esnearen kalitatea da neurtzen dena, batez ere.

**Beraz, udak lasaiagoak izango dira.**

Bai. Udan mendira eramaten ditut ardiak, Anboto aldera; han, ardien estaltzeak kontrolatzen ditut, dena ondo atera dadin. Bestalde, mendia txarto badago, nahikoa jan duten ere zaindu behar izaten da.

Ni etxean egoten naiz, eta bi egunetik behin-edo igotzen naiz mendira, autoz. Uda negua baino lasaiagoa izaten da.

**Gazta ere egin duzu.**

Bai, gutxi gorabehera, 3.000 edo 4.000 kilo egin ditut. Idiazabalekin nabil harremanetan izendapenean sartzeko, eta izena eta etiketa oraindik egin barik ditut; horretan ari naiz. Gazta bera ere, oraindik egin barik dago; baina apirilean jateko modukoa egongo da; itxura, behintzat, izugarri dauka!

**Lantegian ere ibili izan zara... Balantzan jarri zenuenean lantegia edo artzaintza, zerk bultzatuta hartu zenuen artzaintzarekin hasteko erabakia?**

Bizimodu modu honek dena ematen dit; bete egiten nau. Gainera, mendian egoteko aukera ematen dit eta nik neuk neurtzen dut denbora; nik erabakitzen dut zer egin eta noiz.

Gustuko dudan lana da, animaliak atsegin ditut, mendia gustatzen zait... Nire buruari esan nion: "Gustura bizi gura badut, hau egin behar dut", eta hala hasi nintzen. Lantegiko lana ere hor neukan, baina nik animaliekin lotutako zerbait gura nuen.

**Eta zer esan zizuten ingurukoek artaldea jarri behar zenuela jakin zutenean?**

Egia esan, ez dut inolako arazorik izan, denek animatu naute hartu dudan erabakian.

Gainera, lantegiko lanak ez dit inbidiarik ematen; bizitza osoan artzaina izan banintz, beharbada gustura hartuko nuke lantegiko lana, baina orain ez. Ibili izan naiz eta badakit zer den goizeko bostetan jaiki eta lanera sartu beharra. Nik nahiago dut goizeko ordu horietan kortara joateko esnatu.










JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Aramaio. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak?** LH-II eta artzain eskolako ikastaroa. **Zaletasunak?** Mendia; mendi maratoiak egiten ditut. **Badaukazu maniarik?** Bai, asko izango ditut; burugogor samarra naiz. **Zein da zure bokazio ezkutua?** Atleta izan gurako nuke; mendiko maratoietako korrikalari. **Gizateriaren asmakizun onena?** Ardiak batzeko makina eta jaten emateko zintak. **Inoiz ahaztuko ez duzuna?** Perun, Andeetan, 5.000 metroko mendia igo ez nuen eguna. Txarto pasatu nuen.




**GOIENA** Prentsa idatzia, irratia, telebista eta telematika jorratzen ditu Goiena Kooperatibak. GOIENKARIA

**KOMUNIKABIDEAK** > DIRULAGUNTZAK

# Euskarazko hedabideek iaz baino %17,4 gehiago jasoko dute laguntzatan

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egin berri du dirulaguntzak jasotzeko deialdia, eta 5,75 milioi euro banatuko ditu aurten; iaz baino 825.000 euro gehiago, hain zuzen

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Euskarazko hedabideak sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko dirulaguntzen deialdia egin du Jaurlaritzako Kultura Sailak. Aurten, 5.750.000 euro emango ditu horretarako, iazko deialdian baino %17,4 gehiago.

Atal guztietarako diru kopurua hazi egin da, batzuetarako beste batzuetarako baino gehiago.

**IGOERA HANDIENA, INTERNETEK**

Portzentajeari dagokionez, igoera handiena Interneten atalean izan da, hor bikoiztu egin direlako dirulaguntzak. Kontuan hartu behar da, baina, Internetez emititzen duten irratiak aurreikusten dituztela deialdi horretan.

Bigarren igoera handiena erdal prentsarako aurreikusten dena da: hain zuzen, gaztelania darabilten egunkariek euskara hutsezko gehigarriak egiteko laguntzak %86 igo dira, 305.200 eurotik 568.600 eurora.

Euskara hutsean lan egiten duten aldizkariendako berri ona da aurtengo deialdia; izan ere, udalerri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariek hirugarren igoera handiena dute: %86.

Aldizkariek bai, baina tokiko informazioko egunkariek ez dute igoera nabarmenik izango.

Bestetik, telebistei dagokienez, %15eko igoera aurreikusten da. Aurten, beste tokiko telebista bat dabil emititzen, Tolosaldeko 28. Kanala; horregatik, igoera ondo datorkie tokiko telebistei, GOITBri kasu.

Goiena Komunikazio Zerbitzuek, oro har, balorazio ona egiten dute aurtengo deialdiaz. Hala ere, hedabide asko aurkeztuko direla aurreikusten da, eta, azkenean, bakoitzari egokituko zaiona ikusteko dago.

**HILABETEKO EPEA**

Dirulaguntzak jasotzeko interesa duten hedabideek hilabeteko epea dute eskaerak aurkezteko. Eskaera guztiak aztertu ondoren zehaztuko du Kultura Sailak komunikabide bakoitzari dagokion dirulaguntza. Elkarteek eta enpresek urtearen lehen erdian izango dute kopuruaren berri.

## teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

### Canon EOS 1D MarkIII, argazkilari profesionalei zuzendutako aurrebistadun argazki kamera

Pasa den astean aurkeztu zuen Canon etxeak EOS gamako kamera profesional berria, Canon EOS 1D MarkIII.

Nabarmentzeko prestakuntzen artean honako hauek: CMOS APS-H (x1.3) 10.1 megapixeleko sentsorea, hiru hazbeteko aurrebistadun pantaila (Live View deitu diote), hamar fotograma segundoko, ISO 50/6.400 sentikortasuna, sentsore garbiketa, CompactFlash eta SD/SDHC txartelak onartzen ditu.

Prezioa: 3.000 euro inguru.




Segundoko hamar fotograma egiteko aukera, segidan 110 irudi JPG formatuan (30 RAW formatuan).

> UMPC

### FipStart enpresak ordenagailu baten boterea oso diseinu konpaktuan eskaintzen du

Ultra Mobile PC (UMPC), edo PC Ultra Mugikorra euskaraz, Tablet PC txiki bat da. Garraiagarritasunagatik, negoziotarako eta asko bidaiatzen dutenendako egokia.

Prestakuntza nabarmenenak: Windows XP edo Windows Vista sistema eragileak aukeran, 30 gigako disko gogorra, 5,6 hazbeteko pantaila 1024x600 bereizmenarekin, Bluetooth,Wifi eta poltsikoko telefono funtzioak.

Salneurria: 1.694 euro.



Eskuan eraman daitekeen 5,6 hazbeteko pantailadun 30 gigako ordenagailua.

> USB GAILUAK

### Kingston etxearen DataTraveler-ek USB gailuan txartelak irakurtzeko gailua dakar

Hasieran USB lapitza badirudi ere, bat, bi eta lau gigako memoriarekin, tapa altxatuz gero barnean daraman sekretua agerrarazten du. Barruan fitxategiak gordetzeko aukeraz gain, erabiltzaileek edukiera handitu egin dezakete SD, MMC edo SDHC txartelekin eta dagokion egokigailuarekin miniSD, microSD, MMCPlus, RS-MMC, MMCmobile eta MMCmicro txartelak ere erabili ahal izango dituzu.

Salneurria: 19,99 euro giga batekoa; eta 34,99 bi gigakoa; lau gigakoa, erabakitzeke.




Fitxategiak gordetzeko aukeraz gain, edukiera handitu egin daiteke dagokion egokigailua jarrita.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak
/aebpn
/aiastui
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gurea
/guztizeder
/hamaika
/itxaseder
/irudisport
/jracing
/joseba
/korozabaleta
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/pando
/richimaier
/tabernaberri
/udalaitz
/urdeki
/urbieta
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.uxarte.net



**berriak**

> GOITB

### Oraingoan oi! musikarekin dator 'Musikantoi' saioa

Datorren asteko *Musikantoi* saioa oi! musikaren gainean izango da. Arrasateko streetpunkari gainbegiratua egingo diote eguenean. Hala, herriko zenbait talderen irudiak berreskuratuko dituzte (Arkada Sozial, Zakarrak, eta abar) eta bideoak ere eskainiko dituzte.

Horrez guztiaz gainera, Des-kontrol taldea gaiaren gainean berba egiten agertuko da saioan.

> GOITB

### Gazteentzako eskaintza zabala 'Didjeridu' saioan

Gazteak ardatz dituen saioa edukiz gainezka dator beste behin. Literaturaz egingo dute berba, bailarako gazte bat elkarrizketatuko dute, teknologia berrien egoeraz mintzatuko da Amaia Arregi eta Gaztelupeko Hotsen eskutik disko bat eskuratzeko aukera izango da.

Gazteei interesatzen zaien informazio orokorra lantzen duen saioa indartsu dator oraingo honetan ere.

> ARRASATE IRRATIA

### Korrikarekin bat egingo dugu 'Igo autobusera' saioan

Datorren eguenean, hilak 22, Korrika Karrantzatik abiatuko da, eta egun horretan bertan, *Igo autobusera* saioko bigarren orduan zuzeneko konexioa egingo dugu Korrikarekin.

Eguenean ez ezik, aste barruan aukera izango da egunero Korrikaren egoera zein den jakiteko: denboraz ondo doan, nondik ari den pasatzen, zein giro dagoen, bitxikeriak, eta abar.

> ARRASATE IRRATIA

### Asteburuan 'Asteko gainbegiratua' saioa elkarrizketaz beteta

Pello Zabalak Korrikaren gainean egingo digu berba. Birritan izan du abiapuntu Arantzazu euskaren aldeko ekimen horrek, eta edizio horietan gertatutako bitxikeriak izango ditugu hizpide.

Horrez gainera, Nerea Laspiur, Arrasateko Udaleko Agenda 21eko ordezkaria, izango dugu gurekin, etxeen alokairua sustatzeko asmoz abian jarri den *Bizigune* proiektuaren gainean berba egiteko.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Josetxo Lizartza izango da gaur 'Ilunpean' saioan

Pilota partiduen esatari ezaguna elkarrizketatuko dute gaur gauean 'Ilunpean' saioan

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Tele5en ikusi ohi dugu gaur egun Josetxo Lizartza leitzarra. *Frontón* programako aurkezle ezaguna, ordea, lehenagotik ibilia da ETB1en partiduak euskaraz aurkezten.

Pilota munduari oso lotua dagoen arren, euskararekin ere harreman estua izan du, aurkezle nafarra euskaltegi bateko irakaslea ere izana da eta.

Beraz, pilota kontuak izango dira nagusi Oihana Elortzak aurkeztutako saioan, eta garai bateko frontoi zurien gainean berba egiteko aukera ere izango da.



**OIHANA ELORTZA** Kazetari oñatiarra da *Ilunpean* saioko aurkezlea. GOIENKARIA

**BERTSOAK** > EGUAZTENA, 21:47

# Eguaztenero Osinalde bertso txapelketa ikusteko aukera izango dugu

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Osinalde bertso txapelketak garrantzi handia du, bertsolari gazteen artean ospe handia du eta.

Aurten txapelketa hori antolatzen duten 37. aldia da. Bertsolariak hiru taldetan sailkatzen dira eta talde bakoitzak saio batean hartzen du parte. Saio bakoitzeko bi finalista izaten dira, eta, beraz, sei bertsolarik hartzen dute parte finalean.

Lehenengo kanporaketa pasa den zapatuan izan zen Ordiziako Argi Berri elkartean.

Argi Berri, Axari eta Aztiri izeneko kanporaketak ikusteaz gain, finala ere ikusgai izango dugu GOITBren eskutik. Goierri Telebistak ekoiztuko du programa berezi hori eta aurkezlea Iñaki Apalategi bertsolaria izango da.

Hainbat bertsolari gazte entzungo ditugu martxoaren 21etik aurrerako eguaztenetan. Lehenengo saioan, adibidez, hauek izan ziren protagonista: Patxi Iriart, Alaia Martin, Aitzol Barandiaran, Karmele Mitxelena, Mizel Mateo eta Manu Goiogana.

**telebegi**

**Unai Loidi**

## Inaugurazioak

Albistegietan inaugurazioak bata bestearen atzetik datozenean, eta kaleetan pintadak ezabatzen hasten direnean, zalantzarik gabe, hauteskundeak hurbil dira. Aurten, baina, garaia baino lehen iritsi zitzaigun hauteskundeetako bideoen usaina eta estiloa, BBKren publierreportajearekin. Zortzi bat minutukoa, berdin-berdin izan zitekeen boterean dagoen edozein alderdi politikoren bideo elektorala: etorkinen integrazioa, ingurumena, kultura, azpiegiturak, adinekoen ongizatea… Baietz alderdien bideoetan ere gai horiek azaldu! Kasualitatea ote?

Inaugurazioen artean, berriz, telebistaren beraren egoitza berriarena ikusiko dugu aurki. ETBrena. Apirilaren 3an, kate publikoan huelga deialdi eta guzti. Bilbokoa inauguratzen den bitartean, Iurretakoak puskaka erortzen jarraituko du, edo igual berriro ere argindarrik gabe geldituko da. Halaxe geratu zen Iurreta zaharra, *Teleberri* bat itxuraz aireratzeko arazoekin, Miramonen 20. urteurreneko festa ospatzen ari ziren une berean. Augurioa ote?

**arrasate irratia**

**FM 107.7**

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Elkarrizketak: Metereologiaren geltokia (Pello Zabala); Pedro Uranga abadea eta Elisa Maiztegi musakolatarrarekin Santa Teresa elizaren gaineko egoeraz egingo dugu berba; Zinearen geltokia Amaia Labaienek aurkeztuta;...

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

**GOITBko programazioa**

**Egubakoitza, 16**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire.**14:15** Musikantoi.**14:45**Albiste aurrerapena.**15:15**Iragana Gogoratuz. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu-David Gorospe. **16:15**Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Rallysprint. **18:15**Erreportajea.**18:45**Albisteak.**19:15** Erreportajea .**19:45**Berriak.**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.**20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hitz bitan **22:15**Ilunpean-Josetxo lizartza. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Jazmina. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 17**

**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Jazmina. **12:00** Astekoak. **12:15**Bizitegia. **12:30** Erreportajea. **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea:Sahara. **14:00** Rallysprint. **14:30**Musikantoi. **15:00** Teknopolis. .**15:30** Didjeridu. **16:00** Tradiziozko dantzak:Aiko taldea. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:30** Hasiberriak. **20:00**Hitz bitan. **20:30**Erreportajea. **21:00**Berbaire. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Didjeridu. **23:30**Musikantoi. **00:00**erreportajea:Sahara**00:30** Emisio amaiera.

**Domeka, 18**

**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Fernando Amezketarra eta Trikitraka trikitron. **11:00**Hitz Bitan. **11:30**Musikantoi. .**12:00**erreportajea. **12:30**Tradiziozko dantzak:Aiko taldea. **13:30**Erreportaia. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean. **15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Berbaire. **18:30**Hitz Bitan. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Berbaire.**21:00** Erreportajea. **21:30** Klip@. **22:00**Erreportajea:Sahara. **22:30**Erreportajea:Putreak. **23:00** Berbaire.**23:30**Ilunpean-.**00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 19**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Teknopolis. **14:15**Hitz Bitan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Mkt.**16:00**Gatza ta berakatza.**16:15**Jazmina. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ur eta Lur. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Musikantoi. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Didjeridu. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ikusmira. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena,20**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Harmaillatik. **14:15**Erreportajea.**14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak**16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Fernando Amezketarra. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean .**18:15** Mkt. **18:30** Gatza ta berakatza. **18:45**Albisteak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea**22:15**Harmaillatik. **22:45**Berriak. **23:15**Hitz Bitan. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena,21**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Musikantoi. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Bertso saioa. **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ur eta lur. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena,22**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Bertso saioa. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Fernando Amezketarra. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Eltze beroa .**18:15** Teknopolis. **18:45**Albisteak. **19:15** Gatza ta berakatza.**19:30**Mkt. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra. **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Musikantoi. **22:15**Didjeridu. **22:45**Berriak. **23:15**Erreportajea. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera.

# UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK

K21 KALITATEA





- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak







**ALTZARI DENDA**
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

---

## Era guztietako pintura lanak egiten dira.

# Davila margoak

- **Pintura plastikoak**
- **Papereztatzea**
- **Estukoa**
- **Bernizadurak**
- **Esmalte ureztatuak (ekologikoagoak)**
- **Fatxadak**

**Ordutegia:**
09:00etatik 21:00etara

**Poltsikoko telefonoa:**
646 22 41 09

**Lan txikiak ere egiten dira**

**ESKATU AURREKONTUA KONPROMISO BARIK**

# Martxoak 16-23

EDU MENDIBIL
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Antzerkia



ARRASATE
**> 'Emakumeak izarapean', Tanttakaren azken antzezlana Amaia antzokian**

Tanttaka taldearen ikuskizuna emakumeen sexu bizimoduaz hitz egiteko aitzakia da. Teresa Calo, Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Beatriz Martinez de Antoñana eta Asier Hernandez aktoreekin. Emanaldia 19:30ean izango da.

## Musika



MUSIKA
**> Bergarako Orfeoiaren emanaldia zapatuan Mariaren Lagundian**

Iñigo Biainen zuzendaritzapean, hainbat abesti eskainiko ditu Orfeoiak, 19:30ean: *Gloria Salmo 102* (Miskinis), *Ave Maria* (Busto), *Neskatx-ederra* (Sarasola), *Locuras* (Cangiano), *Look at the world* (Rutter) eta *Lantzarena* (Azurtza), besteak beste.

## Musika



OÑATI
**> Une, Kauta eta Keike taldeak gaur, Oñatiko Gaztelekuan**

Une, Kauta eta Keike taldeen kontzertua gaur, egubakoitza, Gaztelekuan, 22:30ean. Aitor Uriarte oñatiarra da Une taldeko abeslaria. Kauta andoaindarrek eta Keike ondarrutarrek osatuko dute kartela. Sarrerak 7 eurotan salgai.

## Antzerkia

BERGARA
**> Umore gaua, gaur**

Jon Plazaolarekin batera txiste kontalariak eta umore lehiaketa izango dira.

Gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 22:30ean. Debagunek antolatuta.

BERGARA
**> La Ressistens taldea**

Korrika Kulturalaren barruan, *Bräkala* antzezlana egingo du Bilboko taldeak. Maria Urtzelai bergararra ari da bertan.

Martxoaren 23an Munibe plazan, 19:00etan.

## Hitzaldiak

ARRASATE
**> Iñaki Eizmendiren eta Julio Ibarraren hitzaldia**

*No sabemos euskera... ¿cómo podemos ayudar a nuestros hijos e hijas?* hitzaldia.

Martxoaren 21ean, Santa Marina auzoko Ludotekan, 18:30ean. AEDk eta Txatxilipurdik antolatuta.

## Musika

OÑATI
**> Oñatiko Musika Banda**

Domekan, Santa Anan, 12:30ean.

ELGETA
**> Mikel Urdangarin Elgetan**

Zornotzako abeslariak azken diskoa aurkeztuko du.

Martxoaren 23an, Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean.

ARRASATE
**> Tantra taldea eta Los Cretinos**

Gaur, egubakoitza, Tantraren pop-rocka, 23:00etan, Gure-Leku tabernan. Bihar, ordu berean, Los Cretinos taldeak joko du.

BERGARA
**> DJ saioak Ziripot tabernan**

Gaur, egubakoitza, DJ Balza 23:00etan. Bihar, ordu berean, DJ Papi Plaentxi.

BERGARA
**> Gasteizko Banda, martxoaren 25ean**

Sarrerak kultura etxean eta Lazkano oinetako dendan salgai.

BERGARA
**> Los Delinquentes eta Saxon Jam aretoan**

Los Delinquentes martxoaren 23an eta Saxon eta Masterplan martxoaren 24an.

Sarrerak salgai Jam aretoan eta ohiko tokietan.

## Erakusketak

BERGARA
**> Daniel Txopitearen erakusketa**

Daniel Txopitea (1950-1997) Eibarko Gorutz taldearen sortzaileetako bat izan zen 1970eko hamarkadan eta Oteitzaren inguruko mugimenduari lotutako ibilbidea izan zuen.

Erakusketa apirilaren 15era arte izango da zabalik.

OÑATI
**> Begoña Uriarteren eskultura erakusketa**

Arrasatearrak hainbat lan ditu ikusgai, domekara arte.

Aste bukaeran, 18:30etik 20:30era.

ARRASATE
**> Pintura erakusketa Harresi aretoan**

Gloria Uriarteren, Angelines Ruizen eta Francisco Mateos *Txikuri*-ren margolanak ikusgai.

Martxoaren 25era arte, aste barruan 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

ESKORIATZA
**> Jose Mari Zenitagoiaren margo erakusketa**

Eskoriatzako margolariaren *Aurpegi indartsuak* izenburuko erakusketa.

Inkernu tabernan, martxo bukaera arte.

ARRASATE
**> Taldeko erakusketa zabalduko dute Kulturaten**

Iñigo Arregi, Juan Luis Goikolea, Kepa Landaluze, Melina Lopez eta Iñaki Riviere arrasatearrek taldeko erakusketa egingo dute.

Kulturate kultura etxean.

ARRASATE
**> Martxoaren 8ko kartel lehiaketako lanak**

Emakume Txokoan, hilaren 22ra arte. Astelehenetik eguenera, 16:00etatik 19:00etara.

PROPOSAMENA

ARRASATE
### > Guinardoko Musika Eskolako Orkestra eta Arrasate Musikal

Guinardo Musika Eskolako Orkestrak eta Arrasate Musikalek emanaldia egingo dute gaur, bi taldeek egin duten elkartruke musikalaren barruan. Lehenbizi Arrasate Musikaleko Orkestrako musikari gazteek lau pieza joko dituzte eta jarraian katalanen txanda izango da: 22 lagun dira Guinardoko orkestran. Kontzertuari amaiera emateko bi taldeak elkarrekin arituko dira.

Gaur, egubakoitza, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan.




## Lehiaketak

OÑATI
**> Oñatiko IV. Bertsolari Txapelketa bihar**

Txapelketaren hirugarren eta azken kanporaketa zapatuan, hilaren 17an, jokatuko da. Ander Lizarralde, Egoitz Aizpuru, Xabi Paskual, Guren Zumalde eta Beñat Alberdi arituko dira lehian. Gai jartzaile: Sagarzazutarrak.

Bertso saioa Portu tabernan izango da, 18:00etan.

BERGARA
**> Koldo Eleizalde Lehiaketaren 22. ekitaldia**

Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta horiez gain ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira.

Argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 79 zenbakian.

ESKORIATZA
**> I. Margo Lehiaketa Aire Zabalean, martxoaren 25ean**

Gaia: Eskoriatza eta elizateak. Irabazleak 600 euro eta plaka eskuratuko ditu. Beste hainbat sari ere izango dira. Herri bazkaria izango da partaide guztiekin, 14:30ean.

OÑATI
**> Arrasate-Oñati lasterketako kamisetarako lehiaketa**

Laixan euskara elkarteak Arrasate-Oñati lasterketaren kamisetarako diseinu lehiaketa deitu du: marrazkia bi koloretan izan behar da gehienez eta *XXV. Arrasate-Oñati lasterketa* eta *Jantzi kirola euskaraz* leloak gehituko zaizkio marrazki aukeratuari. Irabazleak 150 euro jasoko ditu eta lanak entregatzeko epea apirilaren 15ean bukatuko da. Argibideak Laixanen, 943 71 63 11 zenbakian.

## Ikastaroak

ARRASATE
**> Taila ikastaroa emango du tailagileen elkarteak**

Arrasateko Tailagileen Elkarteak ikastaro berria jarri du martxan. Hasierako maila. Izena emateko deitu gau aldera 645 70 59 13/943 79 40 79 zenbakietara (Felix) edo 943 79 77 57 zenbakira (Jose Mari).

Izenematea zabalik dago.

BERGARA
**> Euskal dantzen ikastaroak maiatzera bitartean**

Jardun elkarteak eta Abarka dantza taldeak euskal dantzen ikastaroak abian jarri dituzte. Ikastaroak maiatzera bitarteko martitzenetan izango dira, Aranzadi ikastolan. Izenematea Jardun elkartean, 943 76 36 61 telefonoan.

**nire aukera**



Ana Eriz
Mankomunitateko Turismo teknikaria

## Lana eta aisialdia asteburuan

Ana Eriz aretxabaletarrak laster 10 urte egingo ditu Mankomunitatean, Turismo teknikari. Zapatuan, Donostiako Sevatur turismo azokan izango da; ibarreko eskaintza plazaratuko dute Kursaal jauregian, Gipuzkoako Diputazioak jarritako erakusmahaian: "Gure ibarreko eskaintzaren berri ematea interesgarria da beti", dio. Aste bukaeran lasai ibiltzea atsegin duela esaten digu: "Irteerak egin gure ibarrean edo Euskal Herriko beste toki batzuetara, antzerkira edo zinemara joan lagunekin...". Bereziki udaberria eta udazkena gustuko ditu.

**Sevatur ferian lan egitea egokitzen zaizu, beraz...**
Hala da. Zapatuan Kursaalen egongo naiz eta domekan jai daukat: eguraldi ona egiten badu, paseatzera aterako naiz; mendizalea ez naiz, baina ibilaldi txikiak egitea atsegin dut. Eta arratsaldean filmen bat ikustera joango gara, ziurrenik.

**Ibarreko zein txoko gomendatzen diezu lagunei?**
Lagunen eta haien gustuen arabera... Oñati, Arantzazu eta Bergara ikusgarriak dira; mendian ibiltzeko, Aizkorri, Degurixa, Aitzorrotz... Ibilaldi ederrak egiteko leku aproposak daude ibarrean.

**Aste Santuan, zer?**
Ez dakit. Iaz Valentzian egon ginen. Aurten Espainiako beste tokiren batera joango gara, ziurrenik.

**Eta zure ametsetako bidaia?**
Europa iparraldera joan nahi nuke: Suediara, Norvegiara... Aurten zaila daukat, udan ama izango naizelako.

# Zinema

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Dragon Hill, dragoien muinoa**
Domeka: 17:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**En busca de la felicidad**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Kubo magikoa**
Zapatua: 17:00.

**Para que no me olvides**
Eguena: 20:30.

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**La increible historia de Caperucita Roja**
Domeka: 17:30.

**Menos es más**
Eguaztena: 21:30.

### BERGARA
**AGORROSIN**

**Piratas del Caribe**
Zapatua: 17:00, 19:00, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:00.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**La ciudad del silencio**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Perez, gure sagutxo hori**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Film laburren zirkuitua**
Eguena: 20:00.
Laixan euskara elkarteak antolatutako emanaldia.

### EIBAR
**UNZAGA**

**En busca de la felicidad**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Un puente hacia Terabithia**
17:00.

**Epic movie**
17:00, 18:40.

**Lola**
17.30, 20:00, 22:30.

**Eutsi!**
18:45, 20:30, 22:30.

**La vida de los otros**
17:00, 19:45, 22:30.

**Hannibal: el origen del mal**
17:30, 20:00, 22:30.

**Man to man**
20:25, 22:35.

**Captivity**
22:30.

**Teresa: el cuerpo de Cristo**
17:30, 20:00.

**Viviendo el sueño**
17:30, 20:00, 22:30.

Aste bukaerako programazioa.

**FLORIDA-GURIDI**

**El jefe de todo esto**
17:30, 20:00, 22:30.

**Cartas desde Iwo Jiwa**
19:30.

**Venus**
18:45, 22:30.

**El ultimo rey de Escocia**
17:00, 19:45, 22:30.

**El velo pintado**
17:30, 20:00, 22:30.

**El concursante**
17:00, 19:45, 22:30.

**Llach: la revolta permanent**
17:30, 20:30.

**El buen alemán**
17:00, 22:30.

**Mariposa negra**
17:00, 19:45, 22:30.

Aste bukaerako programazioa.

**ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

**Epic movie**
16:00, 18:15, 20:30. 23:00.

**Captivity**
23:00.

**Un puente hacia Terabithia**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**The Host**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00..

**Ciudad del silencio**
20:30, 23:00.

**Lola**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Diamante de sangre**
16:00, 19:00, 23:00.

**En busca de la felicidad**
16:30.

**Noche en el museo**
16:00, 18:15.

**Infiltrados**
19:00, 23:00.

**El laberinto del fauno**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Azur y Asmar**
16:00, 18:15, 20:30.

**Hannibal: el origen del mal**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Aste bukaerako programazioa.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Hannibal: el origen del mal**
12:15, 15:45, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.

**Ciudad del silencio**
20:05, 22:25, 00:45.

**El motorista fantasma**
20:25, 22:25, 00:25.

**Diamante de sangre**
19:20, 22:00, 00:35.

**En busca de la felicidad**
12:15, 15:55, 18:05.

**Eutsi!**
20:20, 22:20, 00:20.

**Lola**
12:15, 15:30, 17:45, 20:00, 22:15, 00.30.

**Un puente hacia Terabithia**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

**Noche en el museo**
12:15, 15:40, 17:40.

**El laberinto del fauno**
22:10, 00:35.

**The Host**
12:15, 15:50, 18:01, 20:25.

**Infiltrados**
21:45, 00:30.

**Happy feet**
12:15, 16:05, 18:05.

**Arthur y los Minimoys**
12:15, 15:30, 17:25.

**El Ratoncito Perez**
12:15, 15:55, 17:45.

**Epic movie**
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**Cautivos**
19:45, 21:45, 00:00.

**El velo pintado**
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Azur y Asmar**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

**Man to man**
22:35, 00:40.

**Norbit**
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Persecución extrema**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Epic movie**
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**El velo pintado**
12:10, 16:45, 19:20, 22:00, 01:00.

**Teresa: el cuerpo de Cristo**
18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

**Un puente hacia Terabithia**
12:00, 16:00, 18:05, 20:10.

**Hannibal: el origen del mal**
12:00, 17:00, 19:30, 22:05, 01:00.

**El grito 2**
22:00, 00:30.

**Lola**
12:00, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Ghost rider**
12:00, 17:00, 19:25.

**Diamante de sangre**
12:00, 16:25, 19:20, 22:15, 01:00.

**Norbit**
12:00, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 01:00.

**En busca de la felicidad**
19:30, 22:10, 00:45.

**Noche en el museo**
12:10, 16:30.

**El concursante**
12:10, 16:00, 18:00, 20:05, 22:15, 00:30.

**Viviendo el sueño**
12:10, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Babel**
22:00, 01:00.

**Arthur y los Minimoys**
12:10, 15:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Bosque de sombras** ***
Euskal Herria-Frantzia-EB, 2006. Zuzendaria: Koldo Serra. Aktoreak: Gary Oldman, Virginei Ledoyen, Aitaja Sanchez-Gijon, Lluis Homar.
98 min.
Inkomunikazioa da filmaren ardatza. Euskal Herrira ehizatzera doazen senar-emazte ingeles batzuen arteko inkomunikazioa, heziketa eta maila sozial ezberdinetako pertsonen artekoa, baita etxe bakartuetan edo giltzapean bizi direnen arteko inkomunikazio fisikoa ere.

**Diamante de sangre**
AEB, 2006. Zuzendaria: Edward Zwick. Aktoreak: Leonardo di Caprio, Jennifer Connelly.
142 min.
Solomon diamante meatoki batean lan egitea behartuta dago, eta haren semea bahitu eta soldatu bihurtu dute. Harribitxi bat aurkituko du egun batean Solomonek. Aecher trafikatzaileak hori jakiten duenean, haren atzetik joango da, kazetari estatubatuar batekin.

**Cartas desde Iwo Jima** ****
AEB, 2007. Zuzendaria: Clint Eastwood. Aktoreak: Ken Watanabe, kazunari Ninomiya
141 min.
1945. urteko otsailaren 19a. AEBetako tropak Iwo Jimara iritsi dira. 40 eguneko borrokan, 6.000 estatubatuar eta 21.000 japoniar hil ziren. Tadamichi Kuribatashi teniente jeneralak porrot egin eta uhartea galduko du. Japoniarren Ikuspegia jaso du Clint Eastwoodek.

**Manuale d'amore 2**
Italia, 2007. Zuzendaria: Giovanni Veronesi. Aktoreak: Monica Belluci, Elsa Pataky.
120. min.
Irratsaio baten bitartez pertsonaia hauek ezagutuko dituzte ikusleek: Fisioterapeuta batekin obsesionatuta dagoen gazte bat, ama izateko *in vitro* ernalketa erabiliko duen emakume bat, bikote homosexual bat eta pasioa berriro deskubrituko duen 50 urteko gizon bat.

**Babel** ****
AEB, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Iñarritu. Aktoreak: Brad Pitt, Cate Blanchett, Gael Garcia Bernal, Elle Fanning, Koji Yakusho, Adriana Barraza, Rinko Kikuchi.
142 min. Drama. 13 urtetik gorakoendako.
Estatu Batuetako bikote bat Marokon dagoela gertakari larri batek gertakizun katea ekarriko du. Gertakizun kate horrek lau kontinentetako familia banarengan eragingo du. Jatorri eta kultura oso ezberdinetakoak badira ere, laurek ondorio bera aterako dute: familia da benetako kontsolamendua.

**Miss Potter** * *
AEB-EB, 2006. Zuzendaria: Chris Niconan. Aktoreak: Renee Zellweger, Ewan McGregor.
92 min.
Beatrix Potter idazle arrakastatsua izan zen. Horrez gain, bere independentziaren alde borrokatu zen Ingalaterra victoriar kontserbadorean. Editorearekin amodiozko istorioa ere izan zuen.

**En busca de la felicidad** *
AEB, 2006. Zuzendaria: Gabriele Muccino. Aktoreak: Will Smith, Thandie Newton.
117 min. Adin guztietarako.
Afera ekonomiko korapilatsu batzuen ostean, Chris langabezian geldituko da, eta dirurik gabe. Bikotekideak ere utzi egingo du. Orduan semea zaintzen gelditu beharko du, eta baliabide ekonomikorik eza maitasunarekin ordezkatu.

**Infiltrados** *****
Alemania-Frantzia-Espainia, 2006. Zuzendaria: Tom Tykwer. Aktoreak: Dustin Hoffman, Ben Whishaw, Alan Rickman.
147 min. 18 urtetik gorakoendako.
Paris, XVIII. mendea. Jean-Baptiste Grenouillek mundua usaimenaren bitartez ikusten du. Amestutako lurrina lortzeko ezagutzak izango ditu, gainera. Hainbat emakumezkok dute lurrin preziatu hori.

**Noche en el museo** **
AEB, 2006. Zuzendaria: Shawn Levy. Aktoreak: Ben Stiller, Carlan Cugino, Dick Van Dyke.
108 min.
New Yorkeko zientzia naturalen museoan segurtasun zaintzaile lanean hasi behar du Larry Daleyk. Lanean hasten den gauean, eraikineko animaliek, argazkiek eta estatuek bizia hartuko dute.



## El buen alemán *

**Zuzendaria:** Steven Soderbergh.
**Aktoreak:** George Clooney, Cate Blanchett.

Duela 18 urte Soderberghek *Sexo, mentiras y cintas de video*-rekin Canneseko sari nagusia irabazi zuen. Handik aurrera oso estilo desberdineko film pila bat egin ditu: komertzialak (*Ocean's Eleven, Erin Brockovich*); lan konplexuagoak (*Traffic*); eta lan arriskugarriak eta esperimentalak (Solaris).

Orain, *El buen alemán*-ekin, Hollywoodek 40ko hamarkadan egiten zuen filmetara hurbildu nahi izan du. Istorioa II. Mundu Gerraren gerraosteko Berlinen kokatzen da, zuri-beltzean filmatuta dago eta filmatzeko eran duela 60 urteko teknikak erabiltzen ditu. Argiak eta argazkiak espresionismoaren garaia gogoratzen dute; musikak eta estetikak beste garai batekoak dirudite, baina, tamalez, gidoiak ez du Hollywoodeko klasikoen doitasun, sakontasun eta abileziarik. *El buen alemán*-en kontatzen den istorioa ez dago ondo garatuta, oso modu nahasian azalduta dago, pertsonaiak agertu eta desagertu egiten dira, toki desberdinetan elkartzen dira, baina ez dakigu oso ondo horren zergatia. Eta hori gutxi balitz pertsonaiek ez dute indarrik, oso lauak dira, eta euren arteko harremanak ez dira sendoak: iraganaren garrantziari aipamenak egiten diren arren, ikusleek ez dugu nabaritzen iragan horren pisua. Horrela, pertsonaiak ez dira erakargarriegiak eta, gainera, horiei gertatzen ari zaien gorabeherak nahiko modu nahasian kontatzen bazaizkigu, azkenean lortutako emaitza oso interes gutxikoa da. Filma 40ko hamarkadako estetikara hurbiltzen bada ere, ez du garai hartako filmen izpiriturik jasotzen.

**Antonio Zabala**



Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-03-16

# 'Segway', ibilgailu ekologikoa

**BATERIAREKIN** Ibilgailu horrek ez du erregairik erabiltzen; etxean karga daiteke mugitzeko behar duen bateria

**OREKA** Gorputza aurrera edo atzera eraman ahala, esfortzu barik, ibilgailua mugitu edo gelditu egiten da

**ALOKAGAI** Ibilbideak egiteko edo publizitate euskarri moduan alokatzeko, sei ibilgailu ditu En-medio enpresak

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Azkenaldian, batek baino gehiagok ikusiko zuen Eskoriatza eta Arrasate bitarteko bidegorrian barrena bi gurpileko ibilgailu bitxia. Eskoriatzan halako sei aurkitu dugu, eta jabeengana jo dugu zer ibilgailu mota diren galdetu eta horietako baten gainean bueltatxoa egiteko.

AEBetan ekoizten dute, eta *Segway* izena du. 6.000 euro inguruan saltzen dute, eta Euskal Herrian oso gutxi daude.

**ERABAT EKOLOGIKOAK**

Izan ere, oso funtzionamendu berezia du. Ez du erregairik erabiltzen, eta bateria dauka. Hortaz, erabat ekologikoa da.

Bost giroskopio ditu, eta sentsore batzuen bitartez, gorputzaren mugimenduak uneoro kalkulatzen ditu. Aipatutako sistema horri esker, ibilgailuak ez du azeleragailurik ezta frenorik behar.

Hala, gorputzarekin aurrera eginez gero, ibilgailuak aurrerantz egiten du; eta atzera eginez gero, berriz, ibilgailua gelditu egiten da. Are gehiago, gorputza zuzen izanez gero, ibilgailuak orekari eusten dio.

**LURRAZAL GUZTIETARAKO**

Gurpil sendoak jarriz gero, *Segway* edozein lurrazaletan ibil daiteke. Adibide moduan, orain dela gutxi, Eskoriatzako En-medio enpresakoak, ibilgailu horien jabeak, ia-ia Urbiaraino igo ziren.

**IBILBIDEAK EGITEKO ALOKAGAI**

Bada, Juanma Gay zaletu egin zen, eta lagun batekin batera sei ibilgailu erosi zituen. Hala, En-medio enpresa sortu dute, eta ibilbideak egiteko alokatu egiten dituzte *Segway* ibilgailuak: "Gure zaletasuna finantzatzeko bidea da", azaldu zigun Gayk.

"Inguruan daukagun bidegorri sarea oso aproposa da *Segway*-ekin ibiltzeko. Eskaintza polita dela uste dugu. Bestalde, publizitaterako euskarri moduan ere erabil daiteke".

Asteburuan Donostiako Kursaalen egingo den Sevatur ferian jarriko dituzte ikusgai.




**ZERESANA EMAN** Arreta handia piztén dute *Segway*-ek. Argazkian, ume oñatiar bat eta Juanma Gay. IKER BARANDIARAN

## ahobero

**"Zapatuan Madrilen egin genuen manifestazioa gauza benetan ederra izan zen, Espainia defendatzeko ekintza paketsua"**

**Mariano Raxoi**
> PPko presideneta

Hain pozik azaldu da Raxoi manifestazioarekin, gustua hartu diola eta zapatuan Iruñean izango dela berriz, pankartarekin.

## iturri onetik

**Aby-Kem taldeak uztailean grabatuko du Danbakako irabazlearen diskoa**

Bergarako Aby-Kem taldea, Danbaka lehiaketaren bigarren edizioko irabazlea, uztailaren 2an sartuko da Arrasateko Shot! grabazio estudioan diskoa grabatzeko. 15 egun izango ditu metal boskote bergararrak estreinako diskoa grabatzeko. Goienak ordainduko du grabazioa, hori da-eta Danbakako saria.

Gaztelupeko Hotsak diskoetxea arduratuko da lana kaleratu eta merkaturatzeaz.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Ruben

Ondo gogoratzen dut izen biblikodun pilotari gaztea famatu zenekoa. Eugi zen bestea, gaztea eta joko handikoa. Belokiri indarra azpimarratzen zitzaion nagusiki; baita bi esku on eta hanka arinak.

Irabazi zituen txapel batzuk, egin zen gizon frontoian, eta berehala hartu behar izan zituen ondorengo gazteak, trumilka zetorren koadrila: Abel, Aimar, Xala, Irujo... Hainbeste pilotari eta hain onak! Eta oso jarraian, betirako zirudiena berehala gelditzen baizen atzean. Rubenek, ordea, eutsi egin dio gazteen tiradizoari.

Eta binakako txapelketa honetan jokatzen ari da maisu bikainaren pare. Erabat gustagarri zaizkit Ruben Belokik pilotan dituen heldutasuna, patxada, inteligentzia. Baita gizatasuna, kontrola, tenplea. Eta kolpea, postura, efizientzia...

## ai, ene!




**Sushi pintxotan datorkigu Nemo...**

*Finding Nemo* filmaren bigarren zatia egin omen dute eta publizitate kanpainarako sushia egin dute Nemo koitaduarekin...

http://tinyurl.com/yrw59u

